

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4347

182/2011 DEKRETU, uztailaren 26koa, zeinen bidez behin betiko onespena ematen baitzaio Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partzialari.

1.– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean idatzi eta bideratutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko, eta otsailaren 12an argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gidalerro horietan ezartzen dira lurralde-plan partzialak idazteko esparruak; horien artean, Durangoko eremu funtzionalarena.

Aipatutako Legearen 2. eta 11. artikuluei jarraiki, lurralde-plan partzialak derrigor landu beharreko lurralde-antolamenduko tresnak dira. Alde horretatik, Gidalerroen 22. kapituluko 7. idatzi-zatiak –aplikatu beharreko araudienak– adierazten du oso garrantzitsua dela lurralde-plan partzialak lehenbailehen formulatzea, Gidalerro horien hirigintza eta lurralde irizpide osagarriak eskura izateko, eta horrenbestez, udalerrietako planak modu zehatzagoan garatu daitezzen ahalbidetzeko eta lurralde-plan sektorialak lurralde koherentzia handiagoz lantzeko.

2.– Lurralde-plan partzial hau Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako formulazio eta izapide prozesu luze baten ondorioa da, bere aurrerakinaren, hasierako onespeneren, behin-behineko onespeneren eta behin betiko onespeneren faseak izan dituen, eta herri administrazioen (tokikoa, foru-administrazioa eta erkidegoko administrazioa) eta aipatutako Eremu Funtzionaleko jendarte-espektro zabalaren partaidetza izan duena.

3.– Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 13.1 artikulua araber, Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partziala formulatzeko ekimena Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokie, maila berean; beraz, beharrezkoa da bi administrazioen arteko koordinazioa, ekintzak egitean disfuntzionaltasunak saihesteko.

4.– Xede horrekin, plan hori idazteko kontratazioa 2000ko abuztuaren 23ko Foru Akordioz esleitu zen, eta, idatzi horren segimendua egiteko, koordinazio-mekanismoak ezarri dira Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren artean.

5.– Lurralde-plan partzial honen hasierako eta behin behineko onespenerak Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eman ditu, 2008ko apirilaren 8an eta 2010eko apirilaren 13an, hurrenez hurren.

6.– Planaren edukiak Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 12. artikuluari erantzuten dio, eta lurralde-plan partzialek izan behar dituzten zehaztapenak jasotzen ditu. Planak hainbat neurri ezarri eta proposamenak egiten ditu eremu funtzionalaren antolamendu osoa lortzeko helburu nagusiarekin.

7.– Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partzialak udalerrri hauek hartzen ditu: Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Plan honen helburua Eremu Funtzionalaren lurraldean hamasei urterako lurralde antolamendu jasagarria ezartzea da, egitura eta lurralde-eredua finkatuz; egitura horri egokitu beharko zaizkio

bai udalerrien hirigintza plan eta arauak eta bai eremu funtzionalean eragina duten lurralde-plan sektorialak eta gainerako ekintzak.

Proposatutako lurralde-ereduaren oinarriak hauek dira:

- Durangoko eremu funtzionala indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko lurraldea artikulatzeko gakoa den pieza gisa, duen kokapen estrategikoagatik eta irisgarritasun handiagatik.
- Ibarren hondoko urbanizazio handia eta baserrietan oinarritutako nekazaritzako jarduera babestea bateragarriak izatea zaintzea.
- Lurraldearen zentzuzko erabileran oinarritutako hiri-garapena sustatzea.
- Ibaizabaleko Korridorean lehiakortasunerako eta birkualifikatzeko elementuak indartzea.
- Eremu Funtzionala eratzen duten elementuak.
- Naturagunea eta landagunea kontserbatzea. Bizi-iturrien babes aktiboa eta baserrien bideragarritasuna ziurtatu beharra, paisaiaren kalitatea bermatzen dutenak direlako.

Lurralde-eredu hori helburu hauen inguruan egituratzen da:

- a) Eremu Funtzionalako populazioa mantentzea.
- b) Bizitokien gunea kontzentratzea.
- c) Durangoko Eremu Funtzionalaren berezitasuna mantendu eta indartzea, naturaren eta paisaiaren balioen aldetik.
- d) Garraioen arteko intermodalitate eroso eta eraginkorra lortzea.
- e) Bizikletaren erabilera eta oinezkoentzako ibilbideak sustatzea.
- f) Energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea.
- g) Herritarren ekipamendu-beharrak asetzea.
- h) Andeatutako gunek oneratzea eta erabilera ezegokia edo ausazkoa duten gunek birmoldatzea.
- i) Landa-ondareko eraikinak zaintzea eta balio historikoa edo/eta kulturala duten gunek birgaitzea.

8.– Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin definitutako lurralde esparruaren barruan, Plan honek beste zeregin bat ere betetzen du: autonomia erkidegoko administrazio orokorraren sailek eta Bizkaiko Foru Aldundiko departamentuek sustatutako lurralde-plan sektorialak integratzea. Lurralde-plan sektorial hauek izan dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Nagusia.
- Bizkaiko Errepideen Plana.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde-plan Sektoriala.
- EAEko Energia Eolikoaren Lurralde-plan Sektoriala.
- EAEko Ibaien eta Errekastoen Ertzak Antolatzeko Lurralde-plan Sektoriala. (Isurialde kantauriarra).

2011ko irailaren 8a, osteguna

- EAEko Hezeguneen Lurralde-plan Sektoriala.
- EAEko Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde-plan Sektoriala.

9.– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan ezarritako agirietan daude jasota planaren zehaztapenak. Agirien artean, zehazki, Antolamenduaren Arauak daude, besteak beste. Arau horietan biltzen dira Planeko xedapen eta proposamenak. Dekretu honi atxiki zaizkio I. eranskinean, argitara emateko.

10.– Era berean, Planarekin batera doa Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Bateratuko Azterlana ere. Bestalde, Ingurumen araudian xedatutakoa betez (apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa; eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena) Dekretu honen II. eranskin moduan doa Planean ingurumen alderdiak txertatzeari buruz hartutako erabakiaren derrigorrezko adierazpena.

11.– Ingurumen, Lurralde-plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila da eskuduna, Planaren behin betiko onespena Gobernu Kontseiluari aurkezteko, Lurraldearen Antolamenduari buruzko legearen 13.9 artikuluan jasotakoaren arabera.

12.– Gobernu Kontseilua da eskuduna, Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partziala behin betiko onartzeko, Lurraldearen Antolamenduari buruzko 13.10 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hori betez, Ingurumen, Lurralde-plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta aldez aurretik 2011ko aren (e)(a)n egindako Gobernu Kontseiluaren bilkuran eztabaidatu eta onetsita, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partziala behin betiko onartzea. Antolamendurako arauak dekretu honen I. eranskin gisa doaz, eta ingurumen alderdiak Planean txertatzeari buruz hartutako erabakiaren adierazpena II. eranskin gisa doa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Lurralde-plan partzial hau idaztean sartu den udal plangintza planaren lanketako egun jakin batean indarrean zegoena izan da, eta betiere informazio gisa sartu da; beraz, plana indarrean sartu arte egiten diren eguneratzeak edo aldaketak sartutzat joko dira.

Bigarrena.– Lurralde-plan partzial honetako antolamendu-arauen eranskinak planaren zati dira, eta gainerako artikuluen arau-balio bera eta betebeharrak berberak dituzte.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Plan hau indarrean sartzeari hasierako onespena jaso ez duten lurralde-plan sektorialak formulatzeko eta aldatzeko prozedurak planean jasotako zehaztapenei egokitu beharko zaizkie, Durangoko eremu funtzionalari eragiten dioten heinean.

2011ko irailaren 8a, osteguna

Edonola ere, Lurralde-plan partzial hau indarrean sartzean indarrean dauden lurralde-plan sektorialak Plan Partzialak diotenaren arabera moldatuko dira; salbuespena da Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Bigarrena.– Durangoko eremu funtzionalari dagozkion udalerrietako hirigintza-agiriak Plan Orokorrak idatzi, berrikusi edo aldatzeko prozesuetan badaude eta Plan Partziala indarrean sartzean hasierako onespina jaso ez badute, agiritako zehaztapenak Plan Partzialeko aginduei egokitu beharko zaizkie, kasuan kasuko berrikuspen edo aldaketa prozeduren arabera.

Nolanahi ere, udalean indarrean dagoen hirigintza-plangintza orokorra Plan honetan xedatutakora egokituko da, berori indarrean jartzen denetik bi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

2011ko irailaren 8a, osteguna

I ERANSKINA**DURANGOKO ESQUALDE EGITURAREN LURRALDEAREKIKO ZATI-EGITAMUA****ANTOLAMENDU ARAUAK****ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK*****1. artikulua. Helburua.***

Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren helburua bertako lurraldearen antolamendu iraunkorra ezartzea da, tresna orokorraren izaerarekin; gain, EAeko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko Legeak (LAL) eta Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onetsitako EAeko Lurralde Antolamendurako Artezpideek (LAA) esleituriko eginkizunaren barruan, ezarri egin behar ditu Eskualde Egiturako lurralde-eredua eta egitura; Udaleko Hirigintza Egitamuek eta Arauek, baita Lurraldearekiko Egitamu Sektorialek eta Eskualde Egituran eragina duten gainko jarduketek ere, bete beharko dituzte.

2. artikulua. Lurralde-eremu aplikagarria.

Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren xedapenak aplikagarriak dira Lurralde Antolamendurako Artezpideetako 20. kapituluko 4.2 arauak ezarritako lurralde-eremuan, eta eremu horretan honako udalerrri hauek sartzen dira: Abadiño, Durango, Iurreta, Izurtza, Amorebieta-Etxano, Elorrio, Atxondo, Berriz, Garai, Mañaria eta Zaldibar

3. artikulua. Lurraldearen Zatiko Planaren funtsezko eta agiri mailako edukia.

1. Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren xedapenak honako agiri hauetan daude jasota:
 - Hirigintza Informazioa eta Diagnostikoa.
 - Antolamendu Memoria.
 - Ikerketa Ekonomikoa nahiz Finantzakoa eta Betearazte Programa.
 - Antolamendu Arauak.
 - Informazio Planoak.
 - Antolamendu Planoak.
 - Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Ikerketa.
 - Planeamenduaren gaineko Eraginen Agiria.
2. Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren arauzko edukia, oro har, bera osatzen duten agiri guztietan jasotako xedapenek eratzen dute.

3. Hala eta guztiz ere, izaera arauzko eta lotesle hori "Antolamendu Planoek eta Arauek" dute, hain zuzen ere. Gainko agiriak orientagarriak, erreferentziakoak edo justifikaziokoak dira, eta, beraz, euren edukia lehen aipaturikoen edukiari kontrajarriz gero, lehengoak nagusituko dira.

4. artikulua. Interpretazioa.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren Antolamendu Arauak hitzez hitz eta testuinguruari lotuta interpretatuko dira, Memorian adierazitako helburuak eta xedeak aintzat hartuta.
2. Araudi grafikoaren eta idatzien arteko kontraesanik badago, dokumentazio grafikoa nagusituko da.
3. Agiri grafikoen arteko desadostasunik egonez gero, xehetasun edo eskalarik handienekoa nagusitu egingo zaio txikienekoari. Hala ere, Antolamendu planoak gainko guztiei nagusituko zaizkie.
4. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren funtsezko edukia, udalerriz gaindiko intereseko alderdiei buruzkoa, ondoren adierazitakoaren arabera artikulatzen da:

1. Honako hauetan jasotakoak, **informazio-xedapenak** dira:

- a) Lurraldearen oraingo egoeraren eta egoera sozioekonomikoaren diagnostikoa; horren barruan, baliabide naturalen erabilera, biztanleria eta indarreko hirigintza-planeamendua aztertzen dira.
- b) Eremuen garapen sozioekonomikoaren aukerei buruzko ikerketa.
- c) Ikerketa eta diagnostiko horietan aipaturiko edo adierazitako gainko adierazpen grafiko eta plano guztiak.

Aplikazio zuzeneko edo Lurraldearekiko Egitamu Sektorialetara nahiz hirigintza-planeamendura zuzendutako erabakiak eta, horrenbestez, xedapenak hartzeko erabilitako irizpideak formalizatzen dituzten neurrian, informazio-xedapen horiek, eraginkortasunik izan ez arren, oinarritzko eta beharrezko elementuak dira xedapen zuzentzaileak interpretatzeko eta aplikatu ahal izateko.

2. **Xedapen zuzentzaileak**, izan ere, irizpide, printzipio eta arau orokorrak edo bigarren mailakoak ezartzen dituztenak dira; lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamenduko beste tresna batzuek garatu edo zehaztu behar dituzte, eta herri administrazio guztiek eta zuzenbide pribatuko subjektuek bete beharrekoak dira, lurraldean eragina duten jarduketetan.

Xedapenok nagusitu egingo zaizkie lurralde-planeamendu sektorialeko eta hirigintza-planeamenduko xedapenei, eta horiek euren arabera interpretatu eta aplikatu beharko dira. Lotu egiten dute Durangoko Lurraldearen Zatiko Plana indarrean sartu ondoren onesten den hirigintza-planeamendua, hori lehenengo formulaziokoa edo aurretiazko egitamuren bat aldatzekoa edo ikuskatzekoa izan arren. Xedapen horiek erabateko eraginkortasuna edukitzeko, ezinbestekoa da Lurraldearekiko Egitamu Sektorialak eta hirigintza antolamenduko egitamuak (kasuan kasukoa) garatuta eta zehaztuta osatzea.

Xedapen horiek Estatuko Administrazio Orokorraren edo EAeko Administrazioaren eskumenetan eragina dutenean, euren eraginkortasuna lurraldearen eta lurzorua erabilerari buruzko edukira mugatuko da (hegala eta lurpea barne).

3. **Berehalako, zuzeneko eta erabateko aplikazioko xedapenak**, bestalde, lurzorua legezko erabilera zuzenean ezartzen dutenak dira (hegala eta lurpea ere barne), eta baztertu egiten dituzte Lurraldearen Zatiko Planarekin eta udalerrietako hirigintza-antolamenduko gainko egitamu guztiekin legezko mendekotasuna duten lurralde-antolamenduko tresnetan jasotakoak, horiek kontraesankorrak edo dibergenteak direnean.

5. artikulua. Indarraldia eta eraginkortasuna.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldia mugagabea izango da, arauzko araua den neurrian; dena den, aldi baterako programatu ahal da eta aldaketak edo ikuskapenak egin ahal zaizkio (programaturikoak edo programatu gabeak).
2. Betearazpen Programa (lau urteko etapatan banatuta) derrigorrez jaso behar izatearen kalterik gabe, LZP honetan jasotako aurreikuspenak hamasei urteko aldirako egin dira.
3. Lurraldearen Zatiko Planean jasotako xedapenen bat baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainkoen baliozkotasunean, baldin eta horiek aplikagarriak ez badira, euren arteko loturaren edo mendekotasunaren ondorioz.

6. artikulua. Publizitatea.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren Edukia publikoa izango da, eta edozein pertsonak berori kontsultatzeko eskubidea dauka, Foru Aldundiak adierazten dituen egoitzetan; gain, bertako agirien kopia lor daiteke, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazitako bideari jarraituz.
2. Hiritar guztiek, baita horiek eraturiko erakundeek ere, Lurraldearen Zatiko Plana lortu eta horren kopiak nahiz ziurtagiriak lor ditzakete, interes jakinik egiaztatu gabe eta euren identitatea errespetatua izateko bermearekin.
3. Foru Aldundiak beharrezko neurriak hartuko ditu, aurreko zenbakian adierazitako hiritar-eskubidea bermatzeko, eta horretarako muga bakarrak, izan ere, prozedura judizialen edo administratiboan eraginezkoak izango dira, edo antolamendu juridikoak babesturiko datuak nahiz eskubide subjektiboak babestearen eraginezkoak.
4. Informaziorako eskubidea, bestalde, Lurraldearen Zatiko Planeko agiri guztietara hedatzen da (horietan jasotakoa informaziokoa edo xedapen mailakoa izan), baita horien eduki osora ere.

7. artikulua. Lurraldearen Zatiko Planeko aurreikuspenak betetzearen jarraipena.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren aurreikuspenak eta xedapenak zein mailatan betetzen diren egiaztatzeko, lau urtez behin memoria bat egingo da.
2. Memoria Lurralde Antolamenduan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak egingo du, behar izanez gero Eusko Jaurlaritzako Sail berari lankidetzat eskatuz.

3. Memoria horretan, xedapanak zein mailatan betetzen diren azalduko da, eta identifikaturiko ezegokitzapenak arintzeko edo aldatzeko behar diren proposamenak ere egingo dira.
4. Egin ondoren, Memoria Lurralde Antolamenduko Batzordera bidaliko da, hori jakitun gelditzeko.

8. artikulua. Aldaketa eta ikuskapena.

1. Lurraldearen Zatiko Plana ikuskatu edo aldatu egin daiteke.
2. Ikuskatzea Lurraldearen Zatiko Plan osoan ezarritako antolamendu osoa edo aukeraturiko lurralde-ereduko funtsezko elementuak berriro aztertzea da; honako honen eraginez egiten da:
 - a) Irizpide berriak hartzea, lurraldearen egiturari edo lurralde-ereduari dagokionez.
 - b) Lurraldearen egitura edo eredu horretan eragina duten egoera berriak sortzea, baldin eta horiek Lurraldearen Zatiko Planean harturiko hipotesiak aldatzen badituzte, biztanleriaren oinarrizko magnitudeei, enplegu-dinamikari edo etxebizitza-merkatuari dagokienez, horren eraginez ordura arteko antolamendu-irizpide orokorrak aldatu behar badira.
 - c) Gaitasuna agortzea.

Ikuskapenaren ondorioz, guztiz ordeztu ahal da Lurraldearen Zatiko Plana.

Lurraldearen Zatiko Plana, bestalde, EAEko Lurralde Antolamenduko 4/1990 Legeko 13. artikuluan ezarritako planeamenduko tresna horren formulazio- eta onespenezko-prozeduraren arabera ikuskatuko da.

Nolanahi ere, zortzi urteko indarraldiaren lehenengo fasea igarotakoan, Lurraldearen Zatiko Plana ikuskatu egingo da.

3. Aldatzearen barruan, Lurraldearen Zatiko Plana eraldatzeko gainko kasu guztiak sartzen dira, ikuskapentzat hartzen ez direnak.

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera (lege-testu horretako 10.10 artikulura jota), Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketarako, Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedura beteko da. Lurraldearen Zatiko Planaren aldaketa, horrenbestez, abenduaren 9ko 206/2003 Dekretuan ezarritako prozeduraren bidez egingo da (185. zenbakiko EHAA).

Lurraldearen Zatiko Plana edozein unetan aldatu ahal da. Hala eta guztiz ere, aldaketa guztiak interes orokorreko arrazoietan oinarrituko dira, eta gain, aldaketen edukia eta irismena zehatz azaldu beharko dira; halaber, justifikatu egin beharko dira. Zentzu horretan, beharrezko xehetasunarekin ebaluatuko dira aldaketek Lurraldearen Zatiko Planeko aurreikuspenetan dituzten ondorioak, biztanleriari, enpleguari, zuzkidurei eta azpiegiturei dagokienez.

Aldaketa guztiak, azkenik, eurak justifikatzen dituen zergatiari lotuta egongo dira, eta espedientean ezin izango da Egitamuaaren aldaketarik sartu baldin eta horiek zergati horri lotuta ez badaude, edo egindako azalpenetan eta justifikazioetan berariaz aipatu gabeko aldaketak ere ezin izango dira sartu.

LEHENENGO TITULUA: DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO LURRALDE EREDUA.**I. KAPITULUA: DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK ETA PRINTZIPIO NAGUSIAK.****9. artikulua. Lurralde Antolamenduaren izaera.**

1. Lurraldearen Zatiko Planak ezarritako antolamenduak Durangoko Eskualde Egituraren eremuko antolaketa fisikoa egiten du, EAeko Lurralde Antolamendurako Artezpideek (LAA) ezarritako mugaketaren arabera, eta gain, bete egiten du EAeko Lurraldea Antolatzeari buruzko 4/1990 Legeak eratzitako funtzioa.
2. Lurralde-antolamenduaren helburua, izan ere, beharrezko baldintzak sortzea, mantentzea eta garatzea da, banakako nahiz taldeko bizi-kalitate ahalik eta handiena lortzeko, hiri- eta natura-ingurua zaintzearekin eta hobetzearekin bateratuta.
3. Lurralde-antolamendua, kasuan kasuko tresna juridikoetan gauzatzearen kalterik gabe, erabakiak hartzeko prozesu iraunkorra da, bere izaera orokorraren eta integratuaren arabera; horri dagokionez, informazio garrantzitsu guztia aztertu eta bidezko interes publiko nahiz pribatu guztiak haztatu behar ditu.

Aurreko paragrafoan aipaturiko prozesuan, Lurraldearen Zatiko Plana:

- a) Europako Lurralde Estrategiaren (ELE) barruko piezatzat egituratzen da; estrategia hori Europar Batasuneko Lurraldea Antolatzeko ardura zuten ministroek erabaki zuten Potsdamen, 1999ko maiatzean; horri dagokionez, helburu nagusizat eta eskualde-helburuen kalitateari lotuta, Europako politikaren hiru helburu nagusiak onartzen dira, estrategia horretan adierazitakoak:
 1. Gizarte- eta ekonomia-kohesioa.
 2. Baliabide naturalen eta kultura-ondararen kontserbazioa eta kudeaketa iraunkorra.
 3. Lehiakortasun orekatua Europako lurraldean.
- b) Lurralde-esparru estrategikoa zehaztuta, ez du erreferentziatzen eta irizpidetza soilik jarduten (lurraldean eta hirigintza-antolamenduan eragina duten erabaki sektorialak hartzeko orduan), lurralde-politika publiko objektiboaren eta bidezkoaren katalizatzailetzat ere jarduten baitu.

10. artikulua. Lurralde Antolamenduaren Printzipio Nagusiak.

Aurreko artikuluan aipaturiko antolamenduari buruzko informazioa ematen duten printzipioak dira, eta, horien arabera, honako hauek formulatu, interpretatu eta aplikatu behar dira:

1. Garapen iraunkorraren printzipio orokorra, hau da, garapen sozioekonomikoaren eskakizunak honako hauen eskakizunekin bateratzen dituenak: hiri- eta natura-inguruaren eskakizunekin eta, hain zuzen ere, ekosistemen oreken eskakizunekin, oraingo taldekobeharrianak bete ahal izateko, etorkizuneko belaunaldiak izango dituztenak arriskuan jarri barik.

Garapen iraunkorraren erreferentziako irizpidea, erabakiak hartzeari dagokionez, Lurreko Gailurrean sinaturiko 21 Agenda da, eta hori, udalerrri mailan, kasuan kasuko tokiko 21. Agendetan gauzatu behar da.

2. Ekosistema desberdinak aintzat hartzeko, haztatzeko eta errespetatzeko printzipioa, baliabide natural hidriko eta energetiko berriztagarrien kontsumoak ekosistemen gaitasuna (horiek berreskuratzeko gaitasuna) ez gainditzeko, eta baliabide berriztaezinak kontsumitzeko erritmoak baliabide berriztagarri iraunkorrak ordeztzeko erritmoa ez gainditzeko; era berean, saihestu egin behar da kutsagarriak igortzeko erritmoak aireak, urak eta lurzoruak horiek xurgatzeko eta prozesatzeko duten gaitasuna gainditzea.
3. Lurzoruaren okupazio iraunkorraren printzipioa; horrek honako hau eskatzen du: a) lurzoria birgaitzeari eta berrerabiltzeari lehentasuna ematea, hazkunde berriari dagokionez; eta b) ekidin egin behar da hiriko bereizketa eta barreriadura, eta erabilerak eta funtzioak integratzeko eta elkartzeko ahalegina egin behar da, mugikortasuna urritzeko.
4. Mugikortasun iraunkorraren printzipioa, eta horrek hau eskatzen du: a) derrigorrezko mugikortasuna eta motordun ibilgailuen alferreko erabilera urritzea; eta b) ingurumena errespetatzen duten garraio bideei lehentasuna ematea, behar izanez gero horien erabilera konbinatua planifikatuz.
5. Aintzat hartu behar dira, edozein erabaki-hartzetan, epe luzerako ondorioak, kontsumoaren benetako kostuak eta baliabide berriztaezinen narriadura.
6. Berdintasun printzipioa, eta horrek hau eskatzen du: a) garapen iraunkorraren kostuak eta hobariak gizarte taldeen, belaunaldien eta lurraldeen artean banatzea; eta b) oinarriko beharrezkoak betetzea eta funtsezko eskubideak erabiltzea guztion esku egotea.
7. Lurralde-alderdien ikuspegi estrategikoaren printzipioa, eta horrek hau eskatzen du: a) eremuan eraginik handiena duten eta lurraldea berregituratzeko politika baterako berritzaileak diren prozesuak detektatzea eta arautzea; b) denboran eta espazioan, eraldatze-gaitasunik handieneko ekintzei lehentasuna ematea.
8. Dibertsitatea errespetatzeko printzipioa; horretarako, kontuan hartu, balioztatu eta, behar izanez gero, babestu egin behar da lurraldean identifikatzen diren hiri- eta landa-pieza guztien nortasun bereizgarria, horiek esparru estrategiko bakarrean, koherentean eta kohesionatuan artikulatzearen kalterik gabe.
9. Hitzartze-printzipioa, eta horrek hau eskatzen du: erabakiak hartzeko orduan gardentasuna, hiritarren benetako parte hartzea eta gizartearen gehien onartzen diren soluzioak hartzea eta horiei lehentasuna ematea; gain, ordezkartza-organoen babes politikoa ezinbestekoa da.

11. artikulua. Lurraldearen garapen iraunkorreko printzipioak.

Lurraldearen Zatik Planaren printzipiotzat hartzen dira, Durangoko Eskualde Egituraren garapen iraunkorrerako, Europako Lurralde Estrategiari loturiko honako printzipio hauek:

1. Hiriguneen arteko oreka-printzipioa, horiek hiri-sistema batean artikulaturik daudenean; horren barruan hau eskatzen da:
 - a) Hirigune eta landagune handien eta txikien arteko osagarritasuna eta lankidetzeta.

- b) Eskualde metropolitarran, hiri taldeen eta hiri-sareen sistema orekatuagoa eta polizentrikoagoa sustatzea eta finkatzea, egitura-politikaren eta Europaz gaindiko sareen politikaren arteko lankidetzaren bidez, baita honako honen arteko loturak hobetzearen bidez ere: alde batetik, Estatuko eta nazioarteko garraio-sareak, eta bestetik, eskualdekoak eta udalerrietakoak.
 - c) Hiriguneetako oinarri ekonomikoa, ingurumena eta zerbitzu-azpiegiturak hobetzea, inbertsio mugikorretarako duten erakargarritasuna handiagoa izateko.
 - d) Jarduera-adar bakarrarekiko mendekotasun handiegia duten hirien oinarri ekonomikoaren dibertsifikazioa sustatzea, eta hiri txikien eta ertainen garapen ekonomikoan laguntzea, eremurik narriatuenetan.
 - e) Hiri-garapeneko estrategia integratuak sustatzea, gizarte- eta funtzio-aniztasunari begira, batez ere gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokari eta bertan behera utzitako nahiz gutxi erabilitako zonak suspertzeari dagokionez. Hiri-ekosistemaren kudeaketa adimentsua sustatzea.
 - f) Hirietan eta hiri-eskualdeetan irisgarritasunaren hobekuntza sustatzea, kokatze-politika baten eta lurzorua erabilera planifikatzearen bidez, hiri-funtzioen nahastea eta garraibide publikoen erabilera sustatuz.
 - g) Kontrolik gabeko hiri-hedapena geldiarazteko metodo eraginkorrak sustatzea, baita egoitza-zonen gehiegizko presioa murrizteko metodoak ere.
2. Hiri- eta landa-eremuen arteko oreka- eta lankidetzaren printzipioa, eta horretarako, hauxe egin behar da:
- a) Garapen-estrategia dibertsifikatuak sustatzea, landa-eremuen ahalmenetara egokitua, garapen endogenoa ahalbidetzeko, nekazaritzaren funtzio anitzeko sustapena ere barne.
 - b) Landa-zonei laguntza ematea, hezkuntzaren eta heziketaren arloan, eta nekazaritza sektoretik kanpo enpleguak sortzea.
 - c) Landa-inguruko hiri txikiak eta ertainak indartzea, eskualde-garapena gauzatzeko lekutzat, eta horiek sareetan integratzeari bultzada ematea.
 - d) Landa- eta hiri-inguruen arteko lankidetzaren eta esperientzia-trukea sustatzea, aintzat hartuta tokiko eta eskualdeko baldintzak, batez ere natura- eta kultura-ondareari dagokionez.
 - e) Hiria eta landa-inguruaren arteko lankidetzaren bultzatzea, eskualde funtzionalak indartzeko.
 - f) Zerbitzu eta garraio publikoen oinarriko mailak mantentzea, landa-inguruetako hiri txikietan eta ertainetan, batik bat gainbeheran dauden eremuetan.

- g) Hiri handien landa-kanpaldea integratzea, hiri-eskualdeen lurralde-garapeneko estrategietan, lurzoruen erabileraren planifikazio eraginkorragoa lortzeko, hiri-kanpoaldeko bizi-kalitateari arreta berezia jarrita.
 - h) Nekazaritza iraunkorra bermatzea, ingurumen-neurriak aplikatzea eta lurzoruen nekazaritza-erabilera dibertsifikatzea.
 - i) Energia berriztagarrien ahalmena erabiltzea, landa- eta hiri-zonetan, kontuan hartuta toki- eta eskualde-baldintzak, batez ere natura- eta kultura-ondarea.
 - j) Ingurumena errespetatzen duen turismoa garatzeko aukerak ustiatzea.
3. Azpiegiturak erabiltzeko orduan aukera-berdintasuna izatearen printzipioa; horrek hauxe eragiten du:
- a) Azpiegiturak eraginkortasunez eta iraunkortasunez erabiltzea.
 - b) Bigarren mailako garraio-sareak eta horiek sare nagusiarekin dituzten loturak indartzea, garraio publikoko eskualde-sistema eraginkorren garapena ere barne.
 - c) Telekomunikazio-azpiegiturak errazago eskuratzea eta erabiltzea.
 - d) Lurraldea garatzeko eta lurzorua erabiltzeko politikak hobeto artikulatzea, garraioen eta telekomunikazioen planifikazioa eginez.
 - e) Garraio publikoa hobetzea eta zerbitzuko oinarrizko eskaintza bermatzea, hirigune txikietan eta ertaintetan.
 - f) Trafiko-itotzeak dituzten zonetan ondorio kaltegarriak murriztea, kutsadura urriagoa sortzen duten garraio-bideak indartuz.
 - g) Merkantzien garraioko korapilo intermodalen sareetako integrazioa sustatzea, arreta berezia jarrita trenbideko eta errepedeko garraioaren eta itsas nabigazioaren arteko loturari, azken hori Bizkaiko Lurralde Historikoan baina Durangoko Eskualde Egituratik kanpo dauden portuetatik ahalbidetzen baita.
 - h) Azpiegituren kudeaketa hitzartua eta integratua egitea, alferreko inbertsioak murrizteko, oraingo garraio-azpiegituren erabilera eraginkorragoa bermatzeko.
4. Aukera-berdintasuneko printzipioa berrikuntza eta ezagupena lortzean; horrenbestez:
- a) Ezagupenari loturiko politikak lurralde-garapeneko estrategietan erabat integratzea; halaber, berrikuntza nahiz hezkuntza, lanbide heziketa nahiz iraunkorra, ikerketa eta garapen teknologikoa sustatzea.
 - b) Berrikuntza-zentroak sortzen laguntzea, eta goi-irakaskuntzaren, ikerketa aplikatuaren nahiz garapen teknologikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzara eragitea.

- c) Eskaintza eta eskaria sustatzeko neurriak garatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien lorpena eta erabilera hobetzeko
5. Natura-ondarea kontserbatzeko, zentzuz kudeatzeko eta garatzeko printzipioa, beraz:
- a) Politika sektorialetan biodibertsitatearen matenamendu integratua egitea.
 - b) Lurralde-garapeneko estrategia integratuak lantzea, babesturiko zonetarako, ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonetarako eta biodibertsitate handiko zonetarako (esate baterako, kostaldeko eremuak, mendi-eskualdeak eta zona hezeak), aintzat hartuta babesaren eta garapenaren arteko oreka, eta interesa duten kideekin egindako ingurumen- eta lurralde-eragineko ikerketetan oinarrituz.
 - c) Babeseko zonen eta ingurumen-zona sentikorren balio ekologikoa onartzeko tresna ekonomikoak sustatzea.
 - d) Energia gutxiago behar nahiz trafiko urriago sortzen duten hiri-egiturak, baliabideen planifikazio integratua eta energia berriztagarrien erabileraren hazkundera sustatzea, CO₂ isurpenak murriztu ahal izateko.
 - e) Lurzorua babestea, gizakiaren, animalien eta landareen bizitzarako oinarritzat, higadura urrituta, lurzorua suntsipena eta eremu irekien gehiegizko erabilera saihestuz.
 - f) Arriskuak kudeatzeko estrategiak aukeratzea, toki, eskualde eta nazioarte mailako hondamen naturalen mehatxupearan dauden zonetan.
6. Baliabide hidrikoak arretaz zaintzearen printzipioa, eta hortaz:
- a) Uraren horniduraren eta eskariaren arteko oreka hobetzea.
 - b) Ura kudeatzeko tresna ekonomikoak garatzea eta aplikatzea, nekazaritza-ustiapeneko metodoak eta baliabideen erabilera murrizten duten ureztatze-teknikak ere barne.
 - c) Ur gehiegi eraztearen edo hirigintzaren eraginez mehatxupearan dauden zona hezeak kontserbatzea eta suspertzea.
7. Kultura-paisaiak kontserbatzearen eta sormenez kudeatzearen printzipioa; horrenbestez:
- a) Kulturaren, historiaren, estetikaren eta ekologiaren aldetik esangura berezia duten kultura-paisaiak sormenez kontserbatzea eta garatzea, paisaia horiek lurralde-garapeneko estrategia integratuaren esparruan baloratuz.
 - b) Giza esku hartzearen ondorioz kalteturik dauden paisaiak sormenez suspertzea eta horiek berriro laboratzeko neurriak hartzea.

- c) Babesa merezi duten hiri-multzoak sormenez kontserbatzea nahiz eraldatzea, eta narriaduraren eta bertan behera utzita gelditzearen mehatxupean dagoen kultura-ondarea babesteko estrategia integratuak garatzea; horren barruan, arriskuak ebaluatzeko eta krisi-egoerak gainditzeko tresnen sorkuntza sartzen da.
 - d) Lurralde- eta hiri-garapeneko politikaren pertzepzioa indartzea, etorkizuneko belaunaldien kultura-ondarea hobetzeko.
8. Europako printzipio horiek EAEn onartuta daude, Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorraren eta Garapen Iraunkorreko EAeko Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) bidez, eta horiek bost ingurumen-helburutan laburbiltzen dira:
- a) 1. helburua: aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea.
 - b) 2. helburua: baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
 - c) 3. helburua: natura eta biodibertsitatea babestea: sustatu beharreko balio berezia.
 - d) 4. helburua: lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
 - e) 5. helburua: aldaketa klimatikoaren gaineko eragina mugatzea.

II. KAPITULUA: DURANGOKO ESKUALDE EGITURAREN KUDEAKETA ESTRATEGIKORAKO LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK.

12. artikulua. Aukeraturiko Lurralde Ereduen edukia eta irismena.

- 1. Kapitulu honetan jasotako arauak Lurraldearen Zatik Planak harturiko Lurralde Ereduen oinarriak behar dituzte. Horiek erreferentziako irizpidetzat zuzenean aplikatzearen kalterik gabe (lurraldea eta hirigintza antolatzeko edozein politikatarako, baita eragin fisikoa duen edozein politika sektorialetarako ere), Arauotako bigarren eta hurrengo tituluen edukia, Lurralde ereduen oinarrien garapenari buruzkoa izateari dagokionez, horren arabera interpretatu eta aplikatu behar da.
- 2. Lurralde-eredu hori (Lurralde Ereduen Planoan, antolaketaren 6. planoan, grafikoki adierazita) helburu estrategikoak betetzeko ezarri da, eta helburu horiek Lurraldearen Zatik Planaren Memorian azalduta daude; Eskualde Egiturako garapen-beharrizanak aintzat hartuta formulatu dira.
- 3. Lurralde-eredu hau oinarritzko baldintzen izaera duten honako helburu hauen inguruan egituratzen da:
 - a) Eskualde Egiturako biztanleria mantentzea.
 - b) Egoitza-espazioa pilatzea.
 - c) Durangoko Eskualde Egituraren berezitasuna mantentzea eta sustatzea, natura- eta paisaia-balioei dagokienez.
 - d) Garraioen arteko intermodalitate eroso eta eraginkorra lortzea.
 - e) Bizikletaren eta oinezkoen ibilbideen erabilera sustatzea.
 - f) Energia berriztagarrien aprobetxamendua bultzatzea.

2011ko irailaren 8a, osteguna

- g) Biztanleek ekipamenduen arloan dituzten beharrianak betetzea.
 - h) Narriaturiko espazioak suspertzea eta erabilera ezegokia edo aukerakoa duten espazioak birmoldatzea.
 - i) Landa-ondareko eraikuntza-elementuak zaintzea eta historia- edota kultura-balioa duten espazioak birgaitzea.
4. Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planak, Lurralde Antolamendurako Artezpideen xedapenak eta Egitamuaeren beraren helburuak kontuan hartuta, honako eremu hauetan zaintzen du lurralde-eredua:
- a) Landa eta Natura Inguruaren Lurralde Eredua.
 - b) Ezarkuntzen, Lurzoruaren Antolamenduaren eta Etxebizitza Estrategiaren Eredua.
 - c) Garraio- eta zerbitzu-azpiegituren Lurralde Eredua.
 - d) Ekipamenduen Lurralde Eredua.
 - e) Jarduera Ekonomikoen Lurralde Eredua.
 - f) Esku hartze Estrategiak.
5. Goian azaldutako helburuak garatzea eta aipaturiko eremuetan edo gaietan aplikatzea, bestalde, proposaturiko lurralde-ereduaren oinarrietan euskarrituz formulatzen da, eta oinarri hauek Araudiko hurrengo artikuluetan azalduta daude.

13. artikulua. Durangoko Eskualde Egitura indartzea, Bizkaian nahiz EAEn duen kokaleku estrategikoa eta irisgarritasun handia aintzat hartuta.

Lurralde-ereduaren zati osagarria da Durangoko Eskualde Egituraren oraingo posizioa, Bizkaiko eta EAeko hiri- eta industria-hazkundearen ardatz gisa; halaber, sustatu egingo da Ibaizabalen igaorbideko pieza estrategikotzat, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eta EAEn testuinguruan, honako honetan oinarrituriko lurralde-garapena lortu ahal izateko:

- 1. Hiri- eta industria-hazkundearen arteko oreka eta bateragarritasuna, eta azpiegituren, ekipamenduen eta zuzkiduren garapen paraleloa, jarduera ekonomikorako eta egoitza-eremu berrietarako.
- 2. Industria-lurzoruen birkualifikazioa, batez ere lurzorurik asetuenean eta antzinako industria-ereduari dagozkion jarduerak egiten dituzten kasuan; horiek berbideratu egingo dira, ahal den neurrian eta eskariaren arabera, industriako eta hirugarren sektoreko jarduera berrietara, horiek hobeto integratzen baitira ingurumenean, eta hori, betiere, lagungarria izango da Eskualde Egituraren lehiakortasuna hobetzeko.
- 3. Haraneko isurialdeetan sakabanaturiko egoitza-garapenen kontrola; horiek ezarritako landaguneetara mugatu eta landa-idiosinkrasia mantendu egingo da; hala ere, aldi berean, ezabatu egingo da lehendik dauden guneak aldi behin handitzean euskarrituriko eraikuntza-hazkundeko ikuspegia.
- 4. Lurzoruaren erabilera desberdinen eta paisaia-egituren arteko orekak bermatu eta zaindu egingo dira.

5. Ekologia-ondarea zorrotz babestuko da, ez mendi-inguruetan bakarrik, baita haran-hondoetako landa- eta natura-eremu batzuetan ere.
6. Hiri-industria jarraipenaren eraketa saihestuko da, baita industrializazio zaharreko EAeko beste haran batzuen ohiko asetasuna ere.
7. Saihestu edo, behintzat, murriztu egingo da arrisku natural batzuen eragina (batez ere, uholdeak), horiek sarritan lurzorua-erabilera desegokien eta urbazterrak suntsitzearen eraginezkoak izaten baitira.

14. artikulua. Eskualde Egituraren bokazio bikoitza bateratzea: hirikoa eta landakoa.

- 1 Durangoko Eskualde Egiturarako lurralde-ereduaren funtsezko elementua da, lagungarria baita aurreko artikuluan zehazturiko oinarriaren eraginkortasunerako, lurzorua-erabilera eta paisaiaren arteko kontrasteak zaintzea, haran-hondoko hiri-industriako espazioaren eta baserriaren landa-munduaren artean; azken hori Ibaizabalen, Zalduren eta Zumelegiren inguruko landazabaletatik eta isurialdeetatik hedatzen da, eta horiek Atxondoko, Mendiolako, Mañaria gaineko edo Oromiñoko alboko haran guztien lurraldea betetzen dute (azken hori Ibaizabalen iparraldeko isurialdean).
- 2 Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondoreetarako:
 - a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak bermatu egin behar du landa-paisaiaren ezaugarrien kontserbazioa; izan ere, eraikuntza-prozesuak ezin du inoiz ere gainditu landaguneak eta baserri berriak (nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari zorrotz eta benetan lotuta) arautzeko esparrua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - b) Baserriak artikulaturiko landa-inguruan eragina izan dezaketen politika publiko guztiek saihestu egin behar dituzte jarduera horretan eragin txarra izan dezaketen xedapenak; gain, bidezkoa denean, sustatu egin behar da jarduera hori, hain zuzen ere, nekazaritzakoa nahiz abeltzaintzakoa eta basokoa, baita jarduera anitzeko familia-unitateen artean ere, eta unitate horietan jarduera lanerako zein errentarako beste iturri bat da eta baserriak arduraldi partzalean garatzen du.

15. artikulua. Lurraldea zentzuz erabiltzea, hiri-garapenerako.

1. Lurraldearen Zatik Planaren lurralde-ereduak gunen tradizionalen nortasunaren eta kultura-ondarearen zaintzaren harmonizazioa eragiten du, eta bete egiten ditu bertako biztanle kopurua haztearen ondoriozko beharrezkoak; era berean, lurzorua-erabilera eta kudeaketa modu egokiak sustatzen ditu, kaltegarriak direnak ezabatuz eta zuzenduz.

LZPk mugatu egin nahi du lurzorua-erabilera kontsumoa, azken urteotako joera irauliz. Horretarako, eraikitako ondarea birgaitu edo suspertu egingo du, eta gain, udal-planeamenduaren gaitasuna (erabili gabea) erabili eta balizko okupazioko eremu berriak zehaztuko ditu.

Lurzorua-erabilera eragiten duten proposamen berriak planteatzeko, LZPk beharrezkotzat hartzen du baldintza egokiak betetzen dituzten kokalekuen hautapena egitea. Beraz, hauxe proposatzen da: lurraldearen harrera-gaitasunaren arabera mugak ezartzea, komunikazio-azpiegituren eta oinarriko

sareak lortzea, natura- eta landa-inguruaren gaineko eragina mugatzea, paisaia mantentzea eta eraikuntza jarraituko fatxada saihestea.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondoretarako, hirigintza-planeamenduaren formulazioa gidatzen duten jarraibideak ezartzen dira, honako hau lortu ahal izateko:
 - a) Udal mugartea artikulatzeko eginkizuna finkatzea; eginkizun hori gunek tradizionalek dute eta, beraz, sustatu egin behar da landa-eremuei eta barreiaturiko biztanleriari ondasunak eta zerbitzu publikoak emateko duten funtzioa.
 - b) Gune tradizionaletan euren egitura tradizionala itxuragabetzen duten hazkunde guztiak ekiditea, eta eskari endogenoari eta exogenoari erantzun egokia emateko behar den hazkundera garatzea, landaguneen hazkundera eusteko eta lurzoruaren nahiz etxebizitzaren prezioaren neurri gabeko gorakada geldiarazteko.
 - c) Oraingo guneetan, ingurumenaren nahiz gizartearen narriadura ekiditeko neurriak hartuko dira, eta gain, iraunkortasunaren helburu orokorrak lortzera bideraturiko neurriak ere bai; hain zuzen ere:
 - i Erdiguneko eraikinak ez ezik, eremu publiko bereziak ere suspertu behar dira, eraikita eta hutsik dauden espazioen arteko erlazioa ondo ulertuz, eta ekintza horiek birgaikuntza- eta suspertze-prozesu funtzional oso baten barruan integratuko dira.
 - ii Hobekuntzako eragiketak finkaturiko gune osora hedatuko dira, eta kanpoaldearen hirigintza berria ere horren barruan sartuko da.
 - iii Mugatu egingo da ibilgailu pribatuak erdigunera duen sarrera, neurri "bigunak" eta gomendatuzkoak hartuta (gune bakoitzaren egoerari egokituriko neurriak); esate baterako, oinezkoen uharteak (mugatuak) edo egoiliarren nahiz zerbitzuen ibilgailuak soilik sartzeko eremuak sortuko dira.
 - iv Kultura-ondarea babesteko neurriak hartuko dira, errealismo- eta haztapen-irizpideetan oinarrituz; horri dagokionez, Babesturiko Eraikinen Katalogoak egokitu egingo dira higiezinak mantentzeko eta hobetzeko benetako aukeretara, eta higiezinak erraz egokitu behar dira egoiliarren beharrianetara, euren turismo-erabilera eta bertako biztanleen beste kultura- nahiz gizarte-beharrizan batzuk aintzat hartuta.
 - v Erabilera ezegokiak nahiz zaharkituak dituzten edo hutsik dauden higiezin eta instalazio publikoak zuzkidurako erabilera publikoetarako suspertuko dira.

16. artikulua. Barreiaturiko hazkundera eta landagune berrien eraketa geldiaraztea.

Lurralde Antolamendurako Artezpideen eremuan eta horiek betetzeko, aukeraturiko lurralde-ereduak, landa-espazioa balioztatzeko, landagunearen kontrolik gabeko hazkunde-fenomenoa kontrolatzen du, eta gain, horren berezko izaera suspertzen du, berezko ingurumen- eta paisaia-balioak mantendu ahal izateko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, hauxe proposatzen da:

1. Udalerriei heziketa eta informazioa emateko lana sustatzea; informazio hori, berriz, landaguneen balioari eta horiek kontrolik gabe haztearen (egitura-beharrizanak aintzat hartu gabeko hazkundera) alde txarrei buruzkoa izango da.
2. Udal-kudeaketako mekanismo baten ezarkuntza sustatzea, guneen garapenak udalerrian sortzen dituen gastu handiak kontrolatu ahal izateko.
3. Babes Berezikotzat eta Babeseko Lurzorutzat kalifikaturiko lurzoru urbanizaezinetan landagune berrien hazkundera eta eraketa ekiditea.

17. artikulua.Etxebizitza publikorako lurzoria sustatzea.

Etxebizitza duina eta egokia edukitzeko eskubidea lortzeko behar diren baldintzak sortzea eta mantentzea, izan ere, funtsezko gaia da Lurraldearen Zatik Planaren lurralde-ereduaren zehaztapenerako.

Baldintza horiek lortzen laguntzeko, honako jarraibide hauek ezarri dira:

1. EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera, babes-araubide publikoren bati loturiko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak 3.000 biztanletik gorako udalerrri guztiek bete behar dituzte, baita hiri-lurzoruko gune jarraituak dituztenek ere, baldin eta 2.000 biztanle baino gehiago badituzte.
2. Horri dagokionez, kontuan hartuta dinamika demografikoaren ondoriozko beharrizanak eta etxebizitzak merkatuko prezioan lortu ezin dituzten taldeen etxebizitza-beharrizanak, LZPk gomendioak ezartzen ditu udalerririk txikieneztat (Garai, Izurtza, Atxondo eta Mañaria), legeriak salbuetsi egiten baititu babeseko etxebizitza garapen horietarako lurzoru-erreserbak egin behar izatetik, Lurzoruari buruzko indarreko Legeko 27.4 artikuluan babeseko etxebizitzaren benetako zenbatespena egin behar izateari buruz ezarritakoaren kalterik gabe.

18. artikulua.Ekipamenduak eta zerbitzuak orekaz birbanatzea.

1. Antolamenduko Lurralde Jarraibideek eskualdeko erreferentziako eta azpierreferentziako eremuen lurralde-ereduaren arabera, eta berori zehazteko, Durangoko Eskualde Egiturarako eskualdeko eta azpieskualdeko erreferentziako eremu hauek ezartzen dira:
 - a) Eskualdeko erreferentziako eremu bakarra: Durango eta horren mugakidea den hiri-eremua (Durango-lurreta-Abadiño-Izurtza).
 - b) Eskualdeko azpierreferentziako bi eremu: Amorebieta-Etxano eta Elorrio.
2. Aurreko paragrafoan aipaturiko erreferentziako eremuek zentralizatu egingo dituzte, elkarri lotuta eta modu osagarrian, eskualde-lerruneko eginkizunak, eta bildu egingo dituzte erdigune bakoitzaren inguruan grabitatu behar duten udalerrriak, horiek ondo zehaztuta, zuzkidura publikoak hobeto eman ahal izateko.
3. Ekipamendu-sistema, horrenbestez, erdigune nagusien eta horien eragin-aldeen inguruan egituratzen da lurraldean:

- a) Durango (eta horren eremu mugakidea: Durango-lurreta-Abadiño-Izurtza). Eskualdeko erreferentziako eremua da eta eragin dauka Eskualde Egiturako udalerrri guztietan.
- b) Amorebieta-Etxano eta Elorrio. Eskualdeko azpierreferentziako udalerrriak dira eta nolabaiteko autonomia funtzionala dute; horien eragin-aldeen barruan udalerrria bera eta, Elorrioren kasuan, Atxondo ere sartzen da.

19. artikulua. Ibaizabalen igarobidearen lehiakortasuna eta birkualifikazioa indartzea.

Lurraldearen Zatiko Planaren lurralde-eredu estrategikoak Ibaizabalen igarobidearen lehiakortasuna segurtatzea eta igarobide hori birkualifikatzea aukeratu du; horretarako, honako neurri hauek hartu ditu, jarduera ekonomikoaren tertziarizazioaren arabera:

1. Bertako industria-klusterra sustatzea, hori birkualifikatuz, batik bat beharrezko giza kapitalaren prestakuntza bereziko zuzkiduren bitartez.
2. Enpresei kalitatezko zerbitzuak ematea, horiek gehienbat hiriguneetan kokatuta; bertan, hirugarren sektoreko eta egoitzako erabileren bizikidetzak sustatuko da, zonen arabera espezializazio funtzional kaltegarria eta horrek eginkizunetan nahiz ingurumenean dituen eragin txarrak saihesteko (mugikortasun handia, lurzoruen okupazio soilak, etab.).
3. Horri dagokionez, LZPK egindako proposamenaren arabera, egoitza-erabilera orokorreko lurzoru berri guztiek erreserba bat edukiko dute hirugarren sektoreko jarduera bateragarriak ezartzeko.
4. Kalitate oneko lurzoria aurreikustea eta ezartzea, enpresa tradizionalak eta adar berriak kokatzeko; batez ere, jarduera ekonomikoaren oraingo eremu zaharkituak suspertzea proposatzen da.

20. artikulua. Eskualde Egitura artikulatzen duten elementuak.

1. Eskualde Egiturako egitura-elementuak bat datoz garraioko azpiegitura-sareekin, bide- eta trenbide-sareekin, baita garraio publikoari eta intermodalitateari loturiko ordezko garraio-bideak sustatzeko proposamenekin ere.
2. Lurralde-eredua eta mugikortasuneko nahiz garraioko eredua estu lotuta egon behar dira, bai hazkunde-prozesuetan eta bai hiri-birgaikuntzako prozesuetan.
3. Gai horri dagokionez, LZPK mugikortasun iraunkorreko ereduaren aldeko apustua egiten du, eta, horretarako, honako hau dauka jasota:
 - a) Premiazkoa da automobil pribatuan egindako lekualdatzeak kontrolatzea; horretarako, zona asetueta eta arazotsueta sarbidea mugatu eta trafikoa moteldu egingo da, beste bide batzuetatik bideratuta eta lurraldeko bide-sarea osatuz (ardatz nagusiak, errondako saihebidak, etab.).

- b) Beharrezkoa da lekualdatze-modu desberdinak orekatzea, garraio publikoko sare eraginkorrak, garbiak eta iraunkorrak (ingurumenaren aldetik) garatuz, ibilgailu pribatuaren ordez eta ikuspegi intermodalean oinarrituz.
- c) Geldiarazi egin behar da hiri-barreiadurarako eta erabilerak bereizteko (egoitza, hirugarren sektorea, etab.) joera gero eta handiagoa, eredu trinkoagoak eta funtzio anitzagokoak sustatuz, garraio publiko eraginkorra ahalbidetzeko dentsitate nahikoak ezarriz eta finkaturiko auzoen hiri-birgaikuntza sustatuz (politika aktiboekin eta irmoekin).
- d) Hiri trinkoaren printzipioak eta erabilera mistoen sustapena aukeratu dira, eta ahalegina egin da hiri-garapeneko oraingo joera batzuk zuzentzeko, joera horiek mugikortasun iraunkorraren aurkakoak baitira.
- e) Trenbide-azpiegituraren egokitasuna zalantzarik gabekoa da, garraibide publikotzat, batez ere aintzat hartuta dagoeneko ezarrita dagoela (kostuak murriztu) eta horren zerbitzua jasotzen duten zonak eremu metropolitarrak garrantzitsu batetik hurbil daudela; bi baldintza horiek bete egiten dira Durangoko Eskualde Egituran.
- f) Aprobetxatu egin behar dira garraioen intermodalitatearen hobariak; horrela, aldaguneak ezarriko dira, eraginkortasun funtzionala baitute. Horri dagokionez, Durangoko trenbidea lurpean sartzea bezalako ekintzak ez ezik, bazterreko espazio batzuk egotea ere aprobetxatuko da, trenbide-azpiegituraren prototipoak baitira.
- g) Aldagune horiek autobusaren "Plataforma Soilaren" ezarkuntza-proposamenarekin osatzen dira (LZPko ohikoa). Plataforma hori, autobusez lurraldearen gainko zatira egindako ibilbide osagarriekin ez ezik (ondo koordinaturiko ibilbideak), ibilgailu pribatuekin egindako ibilbideekin ere bateratu behar da.
- h) Aintzat hartu behar da Bermeo-Amorebieta-Etxano adarraren bikoizketa (trenbideen LAPek proposaturikoa).
- i) Jarduera berriek beharko dituzten jarioetan, merkantziek protagonismo berezia dute, eta, horiei dagokienez ere, trenbide-garraioa aukeratu beharko da; hain zuzen ere, azpiegiturak gauez erabiltzeaz gain, gaitasunaren lasaierak ere lortu beharko dira haran-orduetan (merkantziak soilik daramatzaten bagoiak edo, batzuetan, konboiak).
- j) Argitu egingo da lehenengo mailako sarea, ekialde-mendebalde aukerak biderkatuz eta indartuz; bigarren mailan, elementu guztiak luzera ertaineko ibilbideen bidez (udalerrirartekoak eta udalerrirarte mailakoak) integratzen dituen (ibilgailuen, funtzioen eta oinezkoen bitartez) sarea ezarriko da.

21. artikulua. Baliabide naturalak eta baserria babestea, paisaiaren kalitatea bermatzen baitute.

Lurralde Antolamendurako Artezpideen eremuan, Lurraldearen Zatik Planak garaturiko lurralde-eredua inguru fisikoaren tratamenduan euskarritzen da, honako koordinatu hauek aintzat hartuta:

1. Durangoko Eskualde Egiturarako, erabateko lehentasuna duen beharrezkoak eta helburutzat, oraingo ingurumen-baliabideak kontserbatu beharra berrestea, gehienbat oraingo eremu natural babestuak (hain zuzen ere, Urkiolako Parke Naturala eta Udalaizteko Eremu Naturalistikoa), eta narraiaturiko eremuak suspertu beharra ere berrestea (batez ere, Oiz mendia).

2. Proposamen aringarri hutsa gainditzea, eragin kaltegarriak zuzentzean edo, askoz jota, ekiditean oinarritzen den proposamena; horren ordeztan, politika positiboak, babes aktiboko estrategiak, hobetze- nahiz suspertze-estrategiak eta halakoak planteatuko dira (modu integrarean sortuak eta aplikatuak).
3. Lurraldea eta paisaia, euskarri eta eszenatoki aldaezintzat barik, egitura jakinen arabera kudeaturiko eta euskarririko espaziotzat hartzea; egitura horien artean, garrantzitsuena baserria da.
4. Landa-ingurua mantentzea eta hobetzea, baserria zentzurik zabalenean babestuta; izan ere, horren eginkizun ekonomikoa errespetuz sustatzea ezinbestekoa da baliabideen ustiapen integralerako nahiz iraunkorrerako, ingurumena mantentzeko zein hobetzeko eta eraikitako paisaia kontserbatzeko (EAEko nortasunaren ezaugarrietariko bat).

BIGARREN TITULUA: NATURA ETA LANDA INGURUAREN ANTOLAMENDUA.***I. KAPITULUA: ANTOLAMENDU KATEGORIAK ETA EREMUAK.*****1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK*****22. artikulua. Natura- eta landa-ingurua.***

1. Titulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, natura- eta landa-inguruaren barruan, udalen hirigintza-planeamenduak hiri-lurzorura edo urbanizagarrira atxikitzen ez dituen Eskualde Egiturako lurzoru-azalera guztiak sartzen dira, baita orain azpiegituretarako eta sistema orokorretarako erreserbei lotuta dauden espazioetara atxikita ez daudenak ere. Halaber, LZP honen proposamenek okupaturiko lurzoruak ere ez dira horren barruan sartzen.

23. artikulua. Durangoko Eskualde Egiturako natura- eta landa-inguruaren Antolamenduko Kategoriak.

1. Natura- eta landa-ingurua antolatzeko proposamena Lurraldearen Zatiko Planaren Memorian azaltzen da, eta 1.1 Antolamendu Planoan (“Inguru Naturalaren Antolamendua. Kategorizazioa”) jasota dago.
2. Babes edo lotura mailaren barruan bereizketa bat egiten da, eremuko balio naturalen arabera:
 - Babes Aparteko Lurzoruak.
 - Gainazaleko Uren Babesa.
 - Babeseko Lurzoruak.
3. Lurraldearen Zatiko Planaren ondoretarako, antolamenduko kategoriak eremu homogeenak dira, euren ingurumen-ezaugarrien arabera, eta bakoitzari, berriz, erabilera batzuk esleitzen zaizkio, bertako baliabideen iraunkortasuna aintzat hartuta.
4. Kategoria horiei gainjarritako baldintzatzaileak aplikatu ahal zaizkio, eta, kasu horretan, arauketa zehatza izango dute; arauketa horrek erabilerak murriztu edo sustatu egin ahal izango ditu.
5. Landagunearena Natura eta Landa Ingurua antolatzeko kategorizat ezartzen da, eta hori Bigarren Tituluko VI. kapituluan garatuta dago.

24. artikulua. Erabileren eta jardueren arauketa

1. Erabileren eta jardueren arauketa, matrize egokiaren bidezkoa, LAArekiko homologazioa ezartzen saiatuz egiten da. Horietan ezarritako bost erabilera mota hartzen dira oinarritzat: Ingurumen-babesa, Aisialdia eta jolasaldia, Oinarrizko baliabideen ustiapena, Azpiegiturak eta Eraikuntza erabilerak. LZPk mota horien

azpibanaketa edo xehapena ezartzen du eta horrek dibertsifikazioa dakar; horrenbestez, zehaztapen handiagoa lortzen da, egoera kopuru handiagoarentzat.

2. Xehaturiko erabilera horien zehaztapena, bestalde, EAeko Zona Hezeen LAPen ezarritako zehaztapenean oinarritzen da, eta hori udal-planeamenduetan garatu behar da.
3. Lurraldearen Zatiko Plan honen xedapenak eta arauak zuzenean aplikatzearen kalterik gabe, Eranskinean jasotako Antolamendu Matrizeetako erabileren ñabardurak egiten dituen antolamendua Planeamendu Orokorretan ezarriko da.
4. Eranskinean jasotako Antolamenduko Matrizeek LZPn ezarritako kategoriei loturiko erabilerak arautzen dituzte, horiek arauketa berezia dutenean izan ezik, honako hiru egoera hauetan:
 - a) Sustatua: kasuan kasuko lurzoruen berezko helburuari zuzenean lotutako erabilerak, lurzoruen funtzionamendu egokia eragiten dutenak.
 - b) Onargarria: udal-planeamenduak halako erabilerak onartzea edo debekatzea erabakiko du.
 - c) Debekatua: Lurraldearen Zatiko Plan honetan berriaz onartuta ez dauden erabilerak.
5. LZPk, gain, erabilera batzuk onartzeko baldintzak ezartzen ditu:
 - a) Udal-planeamenduan Sistema Orokortzat edota Toki Sistematzat kalifikaturiko lurzoruetan soilik garatu ahal izatea; asterisko batekin (*) jasota daude antolamenduko matrizeetan.
 - b) Ezarkuntzarako mugak errespetatzea, Eranskinean adierazitakoak, eta horiek (1) batekin adierazita daude antolamenduko matrizeetan.

25. artikulua.Hirigintza-hazkunde berrien debekua, natura- eta landa-inguruan.

1. Proposatutako Lurralde Eredua lortzeko baldintzetariko bat natura- eta landa-ingurua babestea da; beraz, hiri-garapenak halako lurzoruetatik kanpo utzi beharko dira. Natura- eta landa-inguruaren antolamenduko kategorietan, debekaturik daude hirigintza-hazkundeak, eta horiek LZPk proposaturiko **okupazioaren muga-eremuetan** soilik egin daitezke; okupatzen ez direnean, mantendu egingo dituzte kapitulu honetan ezarritako kategoriak eta xedapenak.

2. ATALA. NATURA INGURUAREN ANTOLAMENDUA

26. artikulua.Durangoko Eskualde Egiturako natura- eta landa-inguruaren antolamenduko kategoriak eta azpikategoriak.

1. Lurraldearen Zatiko Planean jasotako antolamenduko kategoriak eta azpikategoriak, antzeko harrera gaitasuna eta bokazio-erabilerak dituzten sektore homogeneoak, bertako balio naturalei jarraiki, hiru mailatan bilduta daude, alabaina, horrek ez du esan nahi arauetik inolako lotura komunik dagoenik; honako hauek dira:
 1. *Babes Aparteko Lurzorua*:
 - a. Babesturiko Ereku Naturalak eta Elementu Bereziak:
 - i. Babesturiko eremu naturalak (Urkiolako Parke Naturala)
 - ii. Urdaibai Biosfera Erreserba
 - iii. Zuhaitz berezia

- b. Interes Naturaleko Eremuak:
 - i. LAAk proposaturiko interes naturalistikoko eremuak
 - ii. Baso autoktonoak
 - iii. Mendiko larreak
- c. Interes Hidrologikoko Eremuak:
 - i. Gune hezeak
- 2. *Gainazaleko Uren Babeseko Lurzoruak.*
 - ii. Gainazaleko uren babesa
- 3. *Babeseko Lurzoruak: basoko, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko eremuak:*
 - a. Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabala:
 - i. Balio estrategiko handiko landazabalak
 - ii. Trantsizioko landa-paisaia
 - b. Basoa
 - i. Baso-landaketak
 - ii. Sastrakak
- 2. Landagunearena Natura eta Landa Ingurua antolatzeko beste kategorია bat da, eta Bigarren Titulu honetako dagokion kapituluari garatuta dago.
- 3. Natura eta Landa Ingurua antolatzeko proposamena Gainjarritako baldintzatzaileekin, Ingurumen-hobekuntzako ekintzekin, Komunitateari zuzendutako Gainjarritako Baldintzatzaileak, Flora eta Faunarako interesekoak diren eremuak eta Inguru naturaleko osagai aipagarriekin osatuta dago.
- 4. Halaber, Paisaia Natura eta Landa Ingurua antolatzeko gainjarritako baldintza izango da, eta mugatu egingo ditu Paisaiaren Irisgarritasunaren proposamenaren (hain zuzen ere, "Paisaia-intereseko eremuak" eta "Ingurumen-balioko hiri-inguruko landazabalak") eraginpeko espazioetan egiteko moduko erabilera eta jarduera batzuk Ibai eta Paisaia Sistema barruan. Halaber, paisaia-intereseko ibilbideak eta elementuak ere aintzat hartuko dira.

27. artikulua. Inguru naturalaren antolamendua, bere kategorizazioa, gainjarritako baldintzatzaileak eta Durangoko LZPren inguru naturaleko osagai aipagarriak.

Ondoren zerrendatzen diren taldeak, bestalde, bakoitzean identifikaturiko oinarritzko helburuei lotuta daude.

1. Babes Aparteko Lurzoruak:

a) Eremu Naturalak eta Babesturiko Elementu Bereziak eta Interes Naturaleko Eremuak. Horien ezaugarriak zaindu egingo dira, kontuan hartuta kasuan kasuko eremuetan ekologiaren, kulturaren eta ekonomiaren aldetik dauden balioak; gain, esku hartze antropikoa mugatu eta, komenigarria izanez gero, sustatu egingo da horren aprobetxamendu iraunkorra, erabilitako baliabidearen berriztapena segurtatuz.

b) Interes Naturaleko Eremuak: horien ezaugarriak zaindu egingo dira, kontuan hartuta kasuan kasuko eremuetan ekologiaren eta naturaren aldetik dauden balioak; gain, esku hartze antropikoa mugatu eta, komenigarria izanez gero, sustatu egingo da horren aprobetxamendu iraunkorra, erabilitako baliabidearen berriztapena segurtatuz.

- c) Interes Hidrologikoko Eremuak: arriskuen eraginpeko eremuak zaindu egingo dira, barruko gainazaleko uren eraginpeko eremuak baitira, eta gain, uren kalitatea ere segurtatu egin behar da.
2. Gainazaleko Uren Babesa: zaindu egingo dira ibilguak, urbazterrak eta arrisku naturalen eraginpean dauden eremuak, uren kalitatea segurtatu egin behar baita.
- Independenteak dira akuifero interesgarrietatik, eta, horiei dagokienez, euren babeserako behar diren baldintzatzaile gehigarriak berariaz adierazten dira, eta horiek gainjarri egiten zaizkio kasuan kasuko tipologiari eta kategoriari dagokion araubideari.
3. Babeseko Lurzoruak, baso-eremuak, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-eremuak eta landazabalak: oraingo nekazaritza- nahiz abeltzaintza- eta baso-ezaugarriak mantendu eta hobetu egin behar dira, kasuan kasuko eremuetan erabilera horretarako dagoen gaitasuna eta horren interesa aintzat hartuta, Lurralde Ereduarekin bateragarria delako eta nekazaritzako ekosistemak zein paisaiak sustatzen dituelako.
4. Gainjarritako baldintzatzaileak: inguru naturalaren ezaugarriak zaindu edota hobetu egin behar dira, kategoria honen barruko lurrek ekologiaren, kulturaren eta ekonomiaren aldetik dituzten balioak kontuan hartuta, gain, esku hartze antropikoa mugatu eta, komenigarria izanez gero, sustatu egingo da horren aprobetxamendu iraunkorra, erabilitako baliabidearen berriztapena segurtatuz.
5. Inguru naturaleko osagai aipagarriak: ingurumenaren, naturaren eta ekologiaren aldetik balio handiko interesguneak mugatzen edo adierazten dituzte, edo gai jakinean garrantzi handia duten guneak; horiek Eskualde Egiturako natura-ondarearen barruan integraturik daude eta ikerketa xehatua beharko dute; eremuaren eta horren babes-inguruaren mugaketa, baita horren behin betiko antolamendua ere, planeamendu orokorrak edo garapeneko planeamenduak egingo du.

II. KAPITULUA: EKOSISTEMAK ETA BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEA, BABES APARTEKO LURZORUAK

28. artikulua. Helburuak.

Lurraldearen Zati-Egitamua honako helburu hauek ditu ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzearen arloan:

- a) Durangoko Eskualde Egituraren barruko eremuak kontserbatzea eta hobetzea, honako hauetan ezarritakoaren arabera: indarreko araudia, NATURA 2000 SAREari buruzko Europako araudi komunitarioa, Urdaibai Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea, EAEko Natura Kontserbatzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legea (Babesturiko Eremu Naturalen sarea sortu duena) eta Europako 2004ko abenduaren 7ko Batzordea (Garrantzi Komunitarioko Lekuak ezarri dituena, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera).
- b) Udalaitez Interes Naturalistikoko Eremutat hartzea, eta hori Ingurumen Eremu Sentikorra izan daiteke, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Legeko Hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera. Horren arauketa iragankorra izango da, harik eta Baliabide Naturalak Antolatzeko Egitamua (BNAE) edo kasuan kasuko Egitamu Berezia garatu arte.

- c) Aurreko bi letretan aipaturiko espazioen eta eremuen lehengo egoera mantentzea, eta oraingo aprobetxamenduak iraunkortasunez garatzeko sustapena egitea, erabilitako baliabidearen balio ekologikoaren berrikuntza eta kontserbazioa segurtatuz.

29. artikulua. Eremu Naturalen eta Babesturiko Elementu Berezien araubide berezia: Urdaibai Biosfera Erreserba, Urkiolako Parke Naturala eta Garaiko Zuhaitza.

1. Urdaibai Erreserbaren eremuari aplikatzeko moduko erabileren eta jardueren araubidea, izan ere, Urdaibai Biosfera Erreserbaren EKEGen ezarritakoa da, eta hori, berriz, Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen babesean idatzi da, baita Urdaibaiko Ibai Sarea Garrantzi Komunitarioko Lekutzat (GKL ES2130006) izendatzearen ondorioz aplikatzeko moduko araudi komunitarioaren babesean ere.
2. Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalak Antolatzeko Egitamua, bestalde, Lurraldearen Zatik Plan honen antolamenduan integratzen da; Eusko Jaurlaritzaren 147/2002 Dekretuaren bidez onetsi zen eta xedapen grafikoetan agertzen den mugaketarekin, eta Garaiko Zuhaitzaren araubide berezia Eusko Jaurlaritzaren 265/1995 Dekretuaren bidez ezarri zen.
3. Parke Naturaleko erabileren eta jardueren araubidea, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren 111/2006 Dekretuak onetsitako Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian ezarritakoa da, baita Parke Naturala antolatzeko eta kudeatzeko (bere araudi berezia aintzat hartuta) gainko tresnetan ezarritakoa ere, eta Urkiolako Parke Naturala Garrantzi Komunitarioko Leku (LIC ES2130009) izendatzearen eraginez aplikagarria den araudi komunitarioan ezarritakoa ere bai.

30. artikulua. Interes Naturaleko Eremuak: Udalaitzeko Interes Naturalistikoko Eremua. (Ikusi erabilerak antolatzeko matrizea Eranskinean)

1. Lurralde Antolamenduko Jarraibideak garatuz, Udalaitz (zehaztapen grafikoetan ikusten denez) Interes Naturalistikoko Eremutzat hartzen da, baina udal-planeamenduak edo berori garatzen duen tresna bereziak (BNAE edo Egitamu Berezia) aldatu egin dezake kalifikazio hori.
2. Eremua antolatzeko, antolamenduko egitamu berezia idatziko da (BNAE edo Egitamu Berezia), eta horrek eremuaren ezaugarriak zehaztuko ditu.
3. Aurreko zenbakian aipaturiko planeamendua onetsi eta indarrean sartu arte, modu iragankorrean, Udalaitzeko Interes Naturalistikoko Eremuko erabilera- eta jarduera-araubidea eta udal-planeamenduan jasoko den araubidea, izan ere, honako arau hauen eta erabileren matrizearen (Arautako Eranskinean ageri dena) ondoriozkoa izango da:
 - a) Landaredia naturalaren gaineko esku hartze garrantzitsuak eragiten dituzten jarduketak (adibidez, makineria astuna erabiltzea, arraseko mozketak edo erabilera-aldaketak) salbuespenez eta justifikaturiko arrazoien eraginez soilik egin daitezke. Halako jarduketak ondo justifikatu beharko dira, honako irizpide hauetan oinarrituz: pertsonak zein ondasunak babestea, basoko masa mantentzea edo ondo justifikaturiko beste zergati batzuk.

- b) Mantendu egingo dira oraingo zuhaitz-masa autoktonoak. Masa horien tratamendua basotxoan mozketen, bakantzeen edo soiltzeen bidezkoa izango da, suspertzea lortzeko egokiena den metodoaren arabera.
 - c) Finantziazio-lerro bereziak sortzeko ahalegina egingo da, masa naturalak zaintzeko baso-lanetarako.
 - d) Basoko bideak irekitzean, errespetatu egingo da ingurua, eta beste aukerarik ez dagoenean baino ez da egingo hori; gain, bete egingo da EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Legean ezarritakoa.
 - e) Antolamendu xehatuaren bidez, lehendik dauden komunikazioko bideetatik hurbileko jolas-eremuak ezar daitezke, baldin eta horiek beharrezkoak badira landa-garapenerako edo kasuan kasuko ingurua sustatzeko.
- 4. Udalaitzeko Interes Naturalistikoko Eremuak Baso Autoktono eta Mendiko Larreen kategoriak barne hartzen baditu ere, eremuaren ezaugarriak zehazten dituen BNAEk sartutako kategoriak aldatzeko aukera izango du, eta indarrean dagoen legeria errespetatuko du beti.
 - 5. Eremu honen mugaketa eta antolamendua egiteko, aintzat hartuko da mugakidea den Arrasate-Bergarako (Deba Garaia) Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planak Udalaitzen ingururako ezarritakoa.

31. artikulua. Interes Naturaleko Eremuak: Baso Autoktonoak

- 1. Baso autoktonoak dira pagadiak, hariztiak eta ameztiak osaturiko zuhaitz-masak; artadiak, haltzadiak eta urkidiak Eskualde Egiturako ohiko basoak dira, eta balio handiko elementuak dira ekologiaren eta paisaiaren ikuspegitik.
- 2. Eremu hauen mugaketa, izan ere, garapeneko planeamendu eskudunak ezartzen duena da; planeamendu horrek, eremuok aztertu ondoren, bertako basoen egoera eta naturaltasun maila aztertuko du, eta horrexen arabera proposatuko du mugaketa.
- 3. Baso Autoktonoen eremuko erabilera- eta jarduera-araubidea legeria eta araudi sektorial aplikagarrian ezarritakoa izango da (Baso Espezie Autoktonoen Araubide Bereziari buruzko urriaren 14ko 11/97 Foru Araua); arauaren 10. artikulua aplikazioari dagokionez, aipatu espezieak kontserbatzea aginduko da, kentzeko bidezko arrazoiaren bat tartean ez badago.

32. artikulua. Interes Naturaleko Eremuak: Mendiko Larreak

(Ikusi erabilerak antolatzeke matrizea Eranskinean)

- 1. Mendiko Larreak ekologiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik balio handia duten artzain-inguruak dira; inguru ahulak dira, goiko kotetan kokaturiko belardi lauak eta trinkoak; aprobetxamendu trinkoa dute, baina urtaroen arabera, eta artzaintza-kultura tradizionalari lotuta daude.
- 2. Mendiko Larreen eremuko erabilera- eta jarduera-araubidea, eta udal-planeamenduak jasoko duena, honako arau hauen eta erabilera-matrizearen (Arautako Eranskinean dagoen matrizea) ondoriozkoa izango da:

- a) Ekologiaren nahiz paisaiaren aldetik dituzten ezaugarriak aintzat hartuta, eta bertako baliabideen ezaugarriak eta ahultasuna kontuan hartuz, lurzoru horietan artzaintza estentsiboari eta larreen erabilerari loturiko jarduerak baino ez dira onartuko, baita erlategiak ere; berriaz debekaturik daude abeltzaintza-ustiapenari loturiko eraikuntza eta azpiegitura berri guztiak, abeltzaintza estentsibo tradizionalari lotutakoak izan ezik (adibidez, bordak, itxierak eta uraskak).
- b) Zona horietarako, jabeak diren norbanakoek eta erakunde publikoek erabiltzeko moduko baliabideen antolamendua eta arauketa, Mendien Foru Administrazioak egingo du; antolaturiko aprobetxamendua sustatuko da, bereizigabeko aprobetxamendu estentsiboak baztertzuz, horiek gehiegizko abere-kargak eragin ahal dituztelako, leku eta urtaro jakinetan.
- c) Babestu egingo dira halako larredietan dauden hostozabal autoktonoen basotxoak eta aleak, eta basoko artzaintza baimendu egingo da, horren etorkizuna arriskuan jarri ezean.

33. artikulua. Interes Hidrologikoko Eremuak. Gune Hezeak.

1. Interes Hidrologikoko Eremuak dira erliebe oso lauko zona hezeak; oro har, topografiaren aldetik deprimiturik dagoen zona osatzen dute, bertatik nahiko hurbil dagoen eremu geografikoari dagokionez; ekosistema oso irekiak, dinamikoak eta ingurumen-gorabeheren mendekoak osatzen dituzte, eta horiek lotura maila handia dute inguruko sistemekin. Horiek jasotzen dituzten eraketa geologikoek iragazkortasun nahikoa dute lurpeko uraren jario egokia ahalbidetzeko; gainean, zehaztasunik gabeko ubideak doaz, iraunkorrak edo iragankorrak, eta horiek, uholdeetan, zonako zati handia estaltzen dute.
2. Zona Hezeen arauketa, izan ere, legeria sektorial aplikagarrian eta honako puntu hauetan ezarritakoa izango da:
 - a) I. taldeko gune hezeak, EAEko Zona Hezeen Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak, Durangoko Eskualde Egituraren barrukoak (Urkiolako tranpalak) eta babes bereziko lurzoruen barruan integratutako zona heze bakarrak direnak, Urkiolako Parke Naturalaren mugen barruan daudenez, parkeko irudiak arautzen ditu (Babesturiko Eremu Naturala).
 - b) III. taldeko gune hezeak, EAEko Zona Hezeen Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak, Durangoko Eskualde Egituraren barrukoak (Abadiñoko tranpalak eta Aixolako urtegia), udal-planeamenduak arautzen ditu; horrek duen babes-maila erabaki eta horretarako arauketa egokia ezarriko du.

III. KAPITULUA: UREN ERREGIMENA.

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

34. artikulua. Helburuak.

Durangoko LZPk bere gain hartzen ditu EAEko 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programak, urari dagokionez, proposatutako sei konpromisoak, 2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia barruan.

Jarraian, aipatu Konpromisoak idatzi dira:

1. Gainazaleko ur-masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, % 80k egoera ekologiko ona izan dezan lortze aldera.
2. Ur-masa artifizialak eta oso aldatutakoak babestea eta hobetzea, % 80k potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona lortze aldera.
3. Lurpeko urak babestea, hobetzea eta leheneratzea.
4. Saneamendu-azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hirietako hondakin-urak euren isurirako eta hartzailearentzat egokiak diren HUA (Hondakin-uren Araztegia) motako arazketa-sistemetan tratatzea lortzea.
5. Bainatzeko uretako lagin-hartze puntuen % 95ek kalifikazio ona edo onargarria lortzea.
6. Biztanleen % 95ek kalifikazio onargarria duen hornikuntzako kontsumo-ura jaso dezan lortzea.

Ondoren, arestian aipatutako Eremuaren barruan, Lurraldearen Zatiko-Egitamu honek planteatzen ditu, gainazaleko zein lurpeko urei dagokienez, Plana betearazteko erdietsi beharreko helburuak eta, legez, bertan gehituko diren formulazio, onarpen eta betearzatea, bai eta, hirigintza-plangintza ere:

- a) Gainazaleko uren eta lurpeko akuiferoen oraingo eta etorkizuneko erabilgarritasuna bermatzea, kalitate maila onargarrien lorpena zein mantenamendua bermatuz eta baliabidearen erabilera iraunkorra eginez.
- b) Uretako inguruei loturiko ekosistemen hobekuntza sustatzea, bertan dauden baliorik handieneko elementuak babestuta nahiz kontserbatuta eta erabilera ezegokiaren ondorioz kalteturik egon daitezkeenak suspertuta, horiek suspertzeko aukerarik egonez gero.
- c) Uholde-arriskuak eta etorkizuneko uhaldiek eragiteko moduko kalteak murriztea, erabilerak eta jarduerak leku egokian kokatuta, hirigintza- eta ekonomia-garapenaren helburuak hondamen naturalen aurkako babesarekin bateratuz.

35. artikulua. Erreferentziako lege-esparrua.

Aurreko artikuluan aipaturiko helburuak lortzean, eta bertan eta ura kudeatzeko nahiz ustiatzeko edozein egintzatan ezarritako tresnak aplikatzean zein betearaztean, aintzat hartuko da indarreko lege-xedapenek osaturiko lege-eremuan ezarritakoa; hain zuzen ere, honako hauek ezarritakoa:

- a) Urei buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua; Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko 1986ko apirilaren 11ko Araudia eta Uraren nahiz Planifikazio Hidrologikoaren Administrazio Publikoari buruzko Araudia, uztailaren 29ko 927/88 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

- b) EAEko Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea.
- c) EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.
- d) Urkiolako Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria, abenduaren 5eko 505/1995 Dekretuaren bidez onetsitakoa.
- e) Urdaibai Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzak eta Errekak Antolatu dituen Lurraldearen Arloko Plana.

2. ATALA. GAINAZALEKO URAK

36. artikulua. Gainazaleko uren babesa.

1. Gainazaleko uren babes kategoriaren barruan, Lurraldearen Zatik Plan honen ondoreetarako, Durangoko Eskualde Egitura osoko ubide eta urtegi guztiak sartzen dira, sortzen denetik mugakidea den beste Eskualde Egituraren batera iritsi arte; baita tarteen eta zonen banaketak ezarritako gutxieneko distantziak aplikatzearen eraginezko babes-eremuak ere, EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatu dituen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean jasotako ingurumen- edo hirigintza-osagaiaren arabera.
2. Gainazaleko uren araudi aplikagarria eta esku hartzeko araubidea, beraz, EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatu dituen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean ezarritakoa izango da, baita legeria sektorial aplikagarria ere, eta errespetatu egingo dira LZP honetan ezarritako xedapenen eraginezko murriztapenik handienak.
3. EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean, babes-eremua ez da uniforme edota homoginoa; horrenbestez, esku hartzeko araubidea agiri horretan ezarritakoa izango da eta kontuan hartuko dira tarte bakoitzerako ezarritako araudi bereziak, bertan jasotako osagaien eta gainjarritako baldintzatzaileen arabera.

37. artikulua. Baliabidearen kalitatezko erabilgarritasuna segurtatzeko neurriak.

1. Gainazaleko uren kalitatea segurtatzeko, Lurraldearen Zatik Plan honetan integratu behar diren lurralde-antolamenduko tresna guztiek eta hirigintza-planeamenduek honako neurri eta jarraibide hauek hartu beharko dituzte eta horietara egokituko dira:
 - a) Uren Ingurumen Egoeraren Meteorologia, Hidrologia eta Kalitatea Behatzea eta Zaintzea, eta isurketa kutsagarriak eta hondakin-uren arazketa kontrolatzea eta zaintzea.

- b) Indarreko debekua indarrean dagoela segurtatzea, itsasoan, ibilgu publikoan, urtegian, ureztatze kanalean edo lurpeko akuiferoan hondakin urak zuzenean edo zeharka isurtzeari dagokionez, baldin eta horien osaketa kimikoak, fisikoak edo eduki bakteriologikoak urak kutsatu ahal baditu eta horrek osasun publikoari edo aprobetxamenduei kalte egiten badie.
- c) Industria-establezimenduetan arazketa-instalazioak ezartzea eta hobetzea, eta horiek saneamendu-sareetara ondo lotzea; halaber, enpresen lankidetzaren sustatzea, kutsagarrien isurketa-proporzioa murrizteari dagokionez.
- d) Kutsagarriak izan daitezkeen instalazio berri guztietan, arazketa-sistema egokiak ezartzea.
- e) Aurreko bi letretan aipaturiko arazketa-instalazioen funtzionamendua kontrolatzea.
- f) Bidezkoa denean, gehiegizko kontsumoak zergapetzen dituzten tasak ezartzea.
- g) “*Kutsatzen duenak ordaindu egiten du*” printzipioa zorrotz aplikatzea, eta ibaiko urei kalte nabaria egiten dieten jarduketa guztiak zehatzea.
- h) Azpiegituretan inbertitzeko politikarekin jarraitzea; batez ere, hiriko eta industriako hondakin-uren kalitatea segurtatu behar duten saneamendu-sareetan.
- i) Herri-administrazio eskudunek, orokorrean, hiritarrak informatzeko eta jabeazteko politika formulatzea eta garatzea; eta, hain zuzen ere, hondakin-urak sortzen dituzten eragileak informatzeko eta jabeazteko politika, batik bat uren kutsadura jatorrian murrizteko eta baliabidea iraunkortasunez erabiltzeko.
- j) Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretan, lixiben eta hondakin organikoaren emisioa kontrolatzea, martxoaren 5eko 165/99 Dekretuko, abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 141/2004 Dekretuko eta Europar Batasunak nitratuei buruz duen Zuzentarauko xedapenen arabera; ingurua errespetatzen duten nekazaritza-jarduerak sustatuko dira, ibaibideen eutrofizazio-arazoak konpontzen laguntzeko.

- 2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, Administrazio eskudunak ikerketa zehatzak egin behar ditu, tarte desberdinetan ibaien eta erreken gutxieneko ibilguak mantentzeko eta, horrela, baliabidearen gehiegizko erabileren ondoriozko gehiegizko gorabeherak ekiditeko, baita Eskualde Egiturako ubide guztietan dauden presak eta errota ikuskatzeko ere, horiek fauna iktikolaren beharrezanetara egokitu ahal izateko.

38. artikulua. Uholde-arriskuak eta uhaldien ondorioak murrizteko neurriak.

- 1. Uholde-arriskuak murrizteko eta uhaldien eraginak aurreikusteko nahiz arintzeko, Lurraldearen Zatik Plan honetan integratu behar diren lurralde-antolamenduko tresna guztiek eta hirigintza-planeamenduak honako neurriak nahiz jarraibideak hartu beharko dituzte edota horietara egokitu beharko dira:
 - a) Baso-masen artoaren gaineko eragin ona aprobetxatzea; izan ere, horiek prezipitazioen zati garrantzitsua atxikitzeke eta, hortaz, efektu erregulatzailerik handia lortzeko gauza dira.

- b) Babes-basoko eremuak errespetatzea eta babestea, ibaien arroen iturburuetan daudenak, bertako landare-estaldura mantentzeko.
 - c) Lurzorua galtzea edo, oro har, higadura-prozesuak sortzea eragiten duten baso-jarduerak ezabatzea.
 - d) Baso mistoko masak sartzea, koniferoen birlandaketan artean (maila-kurbei loturiko zerrendak, pinu-masen ertzak, bideen nahiz zidorren ertzak eta halakoak erabiliz), eta espezie autoktonoen bidezko birlandaketa sustatzea, mendien jabeekin lankidetzak-akordioak eginez eta horiei diru-pizgarriak emanez.
 - e) Baso-erabilerako jarduera erasokorrak ezabatzea (esate baterako, lurreko motzondoak kentzea eta laboratzea), eta industriako baso-landaketan ezarkuntza ekiditea, %50etik gorako maldak dituzten zonetan.
 - f) Dinamika hidraulikoa berariaz aztertzea eta ebaluatzea, goi-arroetan eragina duenean, hustubide-gaitasuna bermaturik gelditzeko; guztiz saihestuko da hirigintza-prozesua, batik bat %20tik gorako malda duten lurretan eta osaketa geologiko ezegonkorra dutenetan.
 - g) Hiri, industria edo azpiegitura mailako okupazio finkatuak dituzten lurretan, ibilguetan ezabatu egingo dira oztopo iraunkor guztiak, baldin eta (urtegiak eta ur bilduak sortuz) zaildu egiten badute uren ebakuazio egokia eta produktu arriskutsuen herrestatzearen kontrola (adibidez, lehengaiak, hondakinak, etab.), horiek bolumenaren edo toxikotasunaren eraginez arazoak sor ditzaketenean.
 - h) Komunikazioko bide berriak proiektatzea, 500 urtetik beherako birgeratze-aldiko uhaldien eraginpean ez gelditzeko.
 - i) Urbazterreko basoa eta ibaien nahiz erreken inguru hurbila kontserbatzea.
 - j) Ibaien ibilguaren tratamenduan: i) ikerketa espezifikoa egitea, ingurumen-arriskuak eta arrisku hidraulikoak ebaluatzeko; eta ii) hauxe saihestea: 1) orokorrean, eta Ertzen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean ezarritakoaren arabera, estalitako bideratzeak, bai bertako estaldura guztiak apurka-apurka ezabatuz (batik bat, hiri-garapen berrietan), bai ibilgu bikoitzen sistema sortuz (bigarren ibilgu ureztagarria, salbuespenez, oinezkoen pasealekurako edo baratzerako erabil daiteke); eta 2) drainatze-kanalen estutzea, eta, horri dagokionez, ikerketak egingo dira, jarduketa horren ingurumen-arriskuak eta arrisku hidraulikoak ebaluatzeko.
2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, lurzoruek duten balio edafologikoa dela eta, LZPk hirigintza-garapen berriak debekatzen ditu 10, 100 eta 500 urteko birgeratze-aldietako uholde-orbanaren barruan, hortaz, debekua mantenduko da gaur egun behin betikoz onartutako udal-plangintzaren okupazio-eremuak Berraztertu edo aldatzean. Izan ere, garatu gabeko eremuak direla eta hirigintzako betearazte-prozesuan ez daudela ulertzen da, eta inguru naturalaren parte direnez, oro har, "Balio Estrategiko Handiko Lurzorua" kategorian integratuko dira.

3. ATALA. LURPEKO URAK

39. artikulua. Uren baldintzen mantenamendua bermatzeko neurriak.

Lurpeko baliabide hidrikoak ondo kontserbatzeko eta kudeatzeko, Lurraldearen Zatiko Planean legez integratu behar diren lurralde-antolamenduko tresna guztiek eta hirigintza-planeamenduak honako neurri eta jarraibide hauek hartu eta sustatu beharko dituzte edo euretara egokitu beharko dira:

- a) Oraingo erabilera-baldintzak mantentzea, akuiferoak kargatzeko eremuetan.
- b) Kalterik egiten ez dela bermatzea, lurpeko urak kutsatzearekiko sentikortasun handiko eremuen barruan (akuiferoen kutsadura arriskuko eremuak).
- c) Ur-erazketen arauketa eta kontrol egokia, gehiegizko ustiapena ekiditeko eta akuiferoak gehiegi ez derrigortzeko.
- d) Ur-kontsumoaren beharrianak ebaluatzea, edozein jarduera ezartzeko aurreikuspena egitean.
- e) Hornidura-sareak mantentzea eta hobetzea, alferreko galtzerik ez egoteko.
- f) Kontsumo iraunkorrak sustatzea, hiritarrak informatzeko eta jabearazteko kanpainen bidez, baita gehiegizko kontsumoari isunak ezarri ere.

IV. KAPITULUA. LANDA INGURUA ZAINTEA ETA BALIOZTATZEA. BABESEKO LURZORUAK**1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK****40. artikulua. Helburuak.**

Durangoko LZPk bere gain hartzen ditu, EAEko 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programak, biodibertsitateari eta paisaiari dagokienez, proposatutako bederatzi konpromisoak, 2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia barruan.

Goian aipatutako Esparruaren barruan, LZPk hurrengo helburu hauek planteatzen ditu:

1. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea, bai landa-inguruaren bizitasunerako sektore ekonomiko erabakigarra delako, bai eginkizun garrantzitsuak dituelako baliabide naturalen erabileran, paisaiaren kontserbazioan zein kudeaketan eta lurraldearen nortasunaren zaintzan.
2. Produkzioko baso-jarduera arrazionalizatzea eta hobetzea, landa-inguruko lurzoruaren erabileren eta ekonomiaren osagai nagusienetarikotzat; mendiko baliabideen ustiapen iraunkorrerako irizpideak eta ekintzak erabiliko dira, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik, eta arreta berezia jarriko zaie higadura-arrisku handia duten eta babesturiko eremu naturaletan dauden lurri.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Egitamuan (2007-2013 LGIE) jasotako neurriak eta helburuak integratzea; jarduteko hiru ardatz nagusiren inguruan uztartuak, honako hauek:
 - I. ardatza: Nekazaritzako eta basogintzako lehiakortasuna handiagotzea. Helburuak:
 - 1) Produkzio-sektorearen integrazioa sustatzea nekazaritzako elikagaien katean.

- 2) Enpresen dinamismoa bultzatzea. Gaitasun profesional-maila handiagotzea. Sektorea gaztetzea.
- 3) Egitura modernizatzea. Gehiago egokitzea merkatura gure nekazaritzako nahiz basoko ustiapenen produkzio-gaitasuna.

II. ardatza: Ingurumena eta landa-ingurunea hobetzea. Helburuak:

- 1) Ingurumena errespetatzen duten nekazaritzako, abeltzaintzako eta basoko produkzio-sistemak sustatzea.
- 2) Nekazaritzako ustiapenen mantentze-lanak egitea.

III. ardatza: Landa-eremuko bizi-kalitatea eta landa-ekonomia dibertsifikatzea. Helburuak:

- 1) Enplegu-aukerak sortzea.
- 2) EAEko landa-inguruetako bizi-kalitatea hobetzea.

2. ATALA. ANTOLAMENDUKO KATEGORIAK BABESEKO LURZORUETAN. NEKAZARITZA NAHIZ ABELTZAINZA ETA LANDAZABALA ETA BASOA

41. artikulua. Antolamenduko kategoriak babeseko lurzoruetan: nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala eta basoa.

1. Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoretarako, multzo honi eratxikitako lurzoruak gehienbat basoko eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako erabilera duten eremuetakoak dira, eta ez daude jasota aurreko artikuluetan zehazturiko kategorietan.
2. Erabilerak eta jarduerak bidezko matrizearen bidez antolatzeko eta arautzeko kategorია horiek ezartzea hirigintza-bermea da, halako lurzoruen nekazaritzako eta abeltzaintzako bokazioa eta funtzioak mantentzeko.
3. Babeseko lurzoruen kategoriak eta azpikategoriak honako hauek dira:
 - Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabala:
 - Trantsizioko landa-paisaia
 - Balio estrategiko handiko landazabalak
 - Basokoa
 - Basoko landaketak
 - Sastrakak
4. Udal-planeamenduak egokitu egin ditzake LZPn jasotako bi kategoriak eta azpikategoriak, aintzat hartuta errealitate fisikora egokitzeko eta azaldutako helburu orokorrak errespetatzeko egoera objektiboak.
5. Eranskinean jasotako antolamendu-matrizeak erabilerak eta jarduerak arautzen ditu, babeseko lurzoruetan.

6. Basoko eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko kategorietan, LZPn proposaturiko bide-eta trenbide-azpiegituren oinarriko eskemaren trazatuan, komenigarriak diren egokitzapen guztiak egin ahal dira, horien funtzionamendua eta zerbitzua hobekitzeko.

42. artikulua. Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko eremuak.

(Ikusi erabilerak antolatzeko matrizea Eranskinean)

1. Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategorian, honako honen arabera bidezkoz hartu diren lurzoruak sartzen dira: nekazaritza- zein abeltzaintza-espazioaren ezaugarri fisikoak, agrologikoak nahiz funtzionalak eta Eskualde Egiturako lurralde-dinamikak, halako lurzoruen gaitasun agrologikoa eta ingurumenaren, kulturaren zein paisaiaren aldetik duten esangura zaintzeko.
2. Balio Estrategiko Handiko Landazabalak (kalitate edafikorik handienekoak) bereizi egin dira gailu Trantsizioko Landa Paisaietatik. Bi kategorien helburua, izan ere, oraingo nekazaritzako nahiz abeltzaintzako erabilerak eta aprobetxamenduak mantentzea da, baita horiekin bateragarriak izan eta landazabaleko nahiz horiei loturiko ekosistemetak nekazaritza-paisaien zaintza bermatzen dutenak mantentzea ere.
3. Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategoriaren eremuko (hain zuzen ere, Balio Estrategiko Handiko Landazabaleko eta Trantsizioko Landa Paisaiako azpikategoriari dagokienez) erabileren eta jardueren araubidea eta udal-planeamenduak jasoko duena, izan ere, honako arau hauen eta Arauotako Eranskinean jasotako erabilera-matrizearen ondoriozkoa izango da:
 - a) Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenari lotutako ohiko bizitarako eraikuntza berriek justifikatu egin beharko dute euren beharrezakoa eta halako jarduerarako lotura, nekazaritzaren arloko foru-administrazio eskudunaren egiaztapena erabiliz.
 - b) Ustiapenari lotutako eraikuntza txikiagoak, adibidez, siloak edo minden biltegiak, eraikin nagusia hartzen duen lursailaren perimetroaren barruan egongo dira.
 - c) Abeltzaintza-instalazioen kasuan, euren tamaina egokitu egingo da ustiapenaren dimentsioetara, eta gain, bizigarritasun-baldintzen, hondakinen tratamenduen eta osasunaren arloan, bete egingo da EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean eta berori garatu duen 165/1999 Dekretuan eta abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 141/2004 Dekretuan ezarritakoa.
 - d) Mindak nekazaritza-lurzoruen, larredien eta belardien ongari naturaltzat erabiltzeko (eskualdean hedapen handiko ohitura), bete egingo dira 390/1998 Dekretuko irizpideak; dekretu horren bidez, uren kutsadurarako (nekazaritza-jardueran erabilitako nitratuak eragindako kutsadura) Zona Zaurgarrien izendapenerako arauak eman dira. Halaber, aplikagarriak dira Nekazaritza Jardun Onen Kodean jasotako kudeaketako irizpideak eta formulak, baita 165/1999 Dekretuan ezarritakoa ere, abeltzaintza-unitateen eta mindak barreiatzeko lurren erabilgarritasunaren arteko loturari dagokionez eta arestian aipatutako 141/2004 Dekretuan, abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak.

43. artikulua.Basoko eremuak.*(Ikusi erabilerak antolatzeko matrizea Eranskinean)*

1. Basoko kategorian sartzen dira oraingo egoera eta erabilera-bokazioa aintzat hartuta (malda, arriskuak, arrozen babesak,...) baso-erabilerarako joera argia duten lurak. Ez dira kategoria honen barruan sartzen, oraingo baso-masak, baldin eta, beheko eta landazabaleko zonan egonik, horren elementu osagarriak badira eta, beraz, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-erabilerekin konbinatu edo txandakatu ahal badira.
2. Basoko kategoriaren barruko (hain zuzen ere, Basoko Landaketak eta Sastraka azpikategorien kasuan) erabileren zein jardueren araubidea eta udal-planeamenduak jasoko duena, izan ere, honako arau hauen eta Arauotako Eranskinean dagoen erabilera-matrizearen ondoriozkoak izango dira, aintzat hartuta mendiei eta babesturiko eremu naturalen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauan jasotako esku hartze araubidea, martxoaren 20ko Foru Arauak aldatu zuena...
3. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenari loturiko ohiko etxebizitza eraiki berriei dagokienez, beharrezkoak direla eta jarduera-mota horri esplizituki lotuta daudela justifikatu beharra dago, nekazaritza-arloko foru-administrazio eskudunak egiaztatzearen bitartez.

V. KAPITULUA: LANDAGUNEAK**44. artikulua.Landaguneen arauketa.**

Landaguneak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAeko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrietarako ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko dira, Lurraldearen Zatiko Planak arautan formulatzen dituen irizpideen kalterik gabe.

45. artikulua.Landaguneak ikuskatzeko irizpide orokorrak.

Udalek Eskualde Egiturako Landaguneen ikuskapena egitean, ondoren adierazitako irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Landagune bakoitzaren mugaketa ikuskatu egin beharko da, eraikinen barreiadura ezabatzeko, eta hori, berriz, oraingo nahiz proposaturiko baserriak pilotzearen eraginezko mugaketara egokituko da; beraz, azalera murriztu egingo da. Lurzoru ezabatuen kalifikazioak bat etorri behar du LZPk inguru horretan aurreikusitakoarekin.
 - Landaguneek bermatu egingo dute lehen sektoreko jarduerarekiko lotura sozioekonomikoa dutela, eta ezin izango da egoitza hutseko eraikinik egin.
 - Landaguneen mugaketa eta arauketa, bestalde, euren historia- eta nekazaritza-izaera babesteko eta zaintzeko neurrien barruan integratu behar dira.
 - 5/1998 Legearen arabera garaturiko landaguneen kasuan, baserri kopurua 25etik gorakoa izan arren, egiaztatu egin behar da ea horien mugaketak landagunetzat hartzeko baldintzak betetzen dituen, hau da, ea etxebizitzak espazio publiko baten inguruan pilotuta dauden edo, aldiz, eraikin barreatuko multzoa osatzen duten; azken kasu horretan, mugaketa murriztu egingo da halako baldintzak betetzearen ondoriozko mugaketara.

- Ekidin egingo da landaguneak hirigune bihurtzea, indarreko legeriaren arabera zerbitzurik ez dutenean; horien barruan sarbideko azpiegituren presentzia jasoko da, gunearen kokalekuari dagokionez, baldin eta horrek ondo baloraturiko inguru fisikoko oraingo bide-azpiegituren gaineko esku hartzeak eragiten baditu.
- Ekidin egingo da landaguneak hirigune bihurtzea, horiek eraikina finkatzen dutenean, indarreko legerian ezarritakoaren azpiko eraikigarritasunak edukiz gero.
- Ekidin egingo da landaguneak hirigune bihurtzea, baldin eta oraingo etxebizitzei neurri handiagoan edo txikiagoan loturiko nekazaritza- nahiz abeltzaintza-jarduerak ezabatzen badira, eta erabilera horien iraupena bermatu beharko da.
- LZPn ez dago aurreikusita oraingo landaguneetako hiri-hazkunderik. Eta hirigintza-garapenak okupazioaren muga-eremuetako azalaretan baimenduko dira soilik.
- Eraikuntza-tipologia oraingoaren antzekoa izango da, eta mantendu egingo dira landaguneko ohiko tipologiak, pilaketak eratzeko gauza direnak.
- Adierazitako irizpide orokorren kalterik gabe (Eskualde Egiturako landagune guztietan aplikatzeko moduko irizpideak), Egitamuk arazo bereziak dituzten landaguneak identifikatzen ditu, atal honetan aztertutako alderdiei dagokienez; horien gaineko jarduketa lehentasunezkoa da eta 1.1 Antolamendu Planoan ("Inguru Naturalaren Antolamendua. Kategorizazioa") jasota daude.

46. artikulua.Landaguneak antolatzeko irizpideak.

1. Landagunea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera, planeamenduak kalifikazio hori ematen dion lurzorua da; hain zuzen ere, espazio publiko baten inguruan (bildu eta izaera ematen dien espazioaren inguruan) sei baserri edo gehiago dituen lurzorua.
2. Landagunetzat hartzen da indarrean dagoen legeria betetzen duen eta LZP honen irizpideen araberakoa dena.

Planeamendu Orokorrean edo dagokion egitamu bereziak jasotako antolamenduan, Eskualde Egiturako landaguneeen ikuskerak egiterakoan, honako argibide hauek adieraztea gomendatzen da:

- a) Landagunaren kokalekua eta horren barruan duen lekua.
- b) Irisgarritasuna: gunean sartzeko modua eta erabilitako ibilgailuen bidearen egoera.
- c) Gunearen eta bertako eraikin nagusien antzintasuna.
- d) Morfologia: landaguneearen azalpen laburra, horren jatorrizko forma eta aurreko hamarkadotan izandako bilakaera adieraziz.
- e) Hirigintza-datuak:
 - Azalera.
 - Lursail kopurua.
 - Etxebizitza kopurua.
 - Aurreikusitako etxebizitza kopurua.
 - Landagunerako planeamenduan ezarritako xedapenak.
- f) Ingurumena eta paisaia

Landaguneko ingurumen- eta paisaia-balioak zehaztuko dira; horretarako, aintzat hartuko da hurbileko eremuetan babes aparteko lurzorurik eta babeseko lurzorurik dagoen, eta gain, Lurraldearen Zatiko Planean ezarrita dauden gainjarritako baldintzatzaileak ere kontuan hartuko dira.

g) Hirigintza-zerbitzuak

- Ur-hornidura: gunea hornitzeko modua, sarearen ezaugarriak nahiz egoera, oraingo arazoak eta, halako arazorik egonez gero, garatzen ari diren jarduketak adieraziko dira.
- Saneamendua: ur zikinak tratatzeko modua, sarearen ezaugarriak eta egoera, egiten ari den arazketa, oraingo arazoak eta, halakorik egonez gero, aurreikusitako ekintzak adieraziko dira.
- Hiriko Hondakin Solidoak: hiriko hondakin solidoak ezabatzeko erabilitako sistema azalduko da; aditzera emango da bilketa nola egiten den eta isuri ondoren zer tratamendu jasotzen duten. Halaber, zaborraren bilketa hautakorrik eta birziklapenik ote dagoen ere azalduko da, eta horren inguruko jarduketa guztiak ere bai.
- Elektrizitatea: gunearen hornidura elektrikoa nola egiten den adieraziko da, baita oraingo arazoak eta aurreikusitako ekintzak ere, halaber, sarea lurperatzeko egitamua egiteko aukera ere komentatuko da.
- Gasa: gas-sarea dagoen edo hori instalatzeko aukerarik dagoen azalduko da; era berean, butano-gasaren hornidura ere azalduko da, horrek udalerrian duen erabilera adieraziz.
- Argiztapen publikoa: oraingo argiztapen publikoaren sarea azalduko da; biztanleguneko biztanleek argiztapenari buruz adierazi dituzten gabeziak eta horiek konpontzeko ekintzak (halakorik egonez gero) nabarmenduko dira.
- Telekomunikazioak: aditzera emango dira udalerriko telefonia-sistema, oraingo hornidura kopurua eta interneten erabilera maila, gunean identifikaturikoa; udalerrian zerbitzu hori erabiltzeko beharrezan sentitzen den adieraziko da. Halaber, estaldura mugikorren kalitatea azalduko da, halakorik egonez gero.
- Hiriko ekipamendua eta altzariak.
- Oraingo ekipamenduak: udalerrian orain dauden ekipamenduak eta behar diren ekipamendu berriak adieraziko dira, eta indarreko planeamenduan horri buruz dagoen aurreikuspena ere bai.

h) Eraikinaren egoera

Eraikinaren egoera baloratuko da, kontuan hartuta eraikinen erabilera nagusia, horien kontserbazio-egoera, tipologia nagusia eta aurreikusitako birgaitze-ekintzak.

i) Jarduera ekonomiko nagusia

Jarduera ekonomiko nagusia identifikatzeko ahalegina egingo da (nekazaritza, abeltzaintza, turismoa, egoitza, mistoa, etab.).

4. Egitamu Orokorretan jaso beharreko prebentzio-neurriak eta irizpideak ezartzen dira, landaguneeen kontrolik gabeko hazkundearen eta iraunkortasun ezaren fenomenoak kontrolatzeko; landagune guztientzat komunak dira:

a) Kudeaketa hobetzea: lursailak zatitzeko eta eraikitzeko baldintzak zorrotz arautzea, indarreko planeamenduan aurreikusitakoak, hiri-izaerako eraikinak ekiditeko, araudiko kontraesanen edo anbiguotasunen ondoriozkoak, eta lurzoruaren kontsumoa ahalik eta gehien murrizteko.

b) Oinarrizko hirigintza-parametroak:

- Eraikiko diren etxebizitza berrien azpiegitura-loturak udalerriko bide-sare orokorrekoak izango dira.
- Kontrolatu egingo da eraikin berriak inguru naturalean duen eragina, babes aparteko zonetatik hurbil egonez gero.

- c) Baimendutako erabilerak honako hauek dira:
- Nekazaritza eta abeltzaintza.
 - Lehenengo egoitzako familia bakarreko etxebizitza.
- d) Bete behar diren gutxieneko eraikuntza-baldintzak:
- Eraikuntza-tipologia oraingoaren antzekoa.
 - Gehieneko altuerak ez du inoiz ere oraingoa gaindituko.
 - Lursailaren dimentsioak, ahal den neurrian, egokitu egingo dira; horrela, gehieneko etxebizitza kopurua mantenduz, murriztu egingo dira landagunetzat kalifikaturiko lurzorua eta, aldi berean, lurzorua kontsumoa.
 - Azpiegiturak eta zerbitzuak kasuan kasuko Egitamu Orokorrean adieraziko dira, eta gutxieneko baldintzak antzekoak izango dira:
 - Landagune osoan bermatu egingo da edateko uraren hornidura.
 - Hustubideko, saneamenduko eta arazketako sistemak, kasu bakoitzean, Egitamu Orokorrek finkatuko ditu, baita kalitateko, kontroleko eta mantenamenduko gutxieneko arauak ere. Isurketak gunean bertan konponduko dira, batez ere sistema komunitarioak erabiliz, eta debekatu egingo da efluenteak bideetara, ibilguetara edo sare publikoetara botatzea, gutxieneko arazketa maila izan barik.

Argiztapen publikoko sarearen ezaugarriak eta elementuak bideak seinaleztatzeko beharizanetara mugatuko dira.

VI. KAPITULUA: KATEGORIZAZIOARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

47. artikulua. Definizioa.

LZPk kategorizazioari gainjarritako baldintzak ezartzen ditu, eta horiek, berriz, Gainjarritako baldintzatzaileak, Ingurumen-hobekuntzako ekintzak, komunitate-izaera duten gainjarritako baldintzatzaileak, flora eta faunaren aldetik interesa daukaten eremuak eta Inguru naturaleko osagai aipagarriak izan daitezke; horiek guztiak Lurraldearen Zatiko Planaren arauketa bereziak dira eta erabileren baldintzatzailetzat dihardute, aurreko kapituluetan arauturiko Antolamendu Kategoriei gainjarrita.

48. artikulua. Helburuak.

1. Lurraldeko eremu natural nagusiak babestea, mantentzea eta modu aktiboan kontserbatzea: ibaien nahiz erreken ertzak, ikuspegi ekologikotik oso sentikorrak diren zonak, biodibertsitatea zaintzeari nahiz higaduraren prebentzioa egiteari eta, beraz, uholdeen eraginezko ondorioei dagokienez.
2. Gutxieneko ibilgu ekologikoak zehaztea, horiek mantentzea eta kutsaduraren eremu zein gune nagusiak zehatz ebaluatzea.
3. Lurraldeko ingurumen-arrisku nagusiak ahalik eta gehien murriztea, batez ere higadura eta uholdea.

4. Espazioen eta babesturiko eremuen arteko truke genetikorako bideak ezartzea, uharte-izaera murrizteko, oraingo komunikaziorako hesiak iragazkortuta, igarobide ekologikoak sortuz, hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzailetzat.

2. ATALA. GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

49. artikulua. Kontzeptua eta definizioa.

1. Gainjarritako baldintzatzaileek erabilerak baldintzatzen dituzte eta gainjarri egiten zaizkie aurreko kapituluetan arauturiko Antolamendu Kategoriei, arrisku handiko kasuetan; horrenbestez, mugatu egiten dute jarduera batzuk garatzeko modua, kasu bakoitzeko arriskuaren arabera eta kasuan kasuko babes-irizpideak aintzat hartuta.

Bestalde, erabilerak faktore jakinaren arabera baldintzatzen dituztenez, jarduerak sortzeko moduko arriskuak ekiditeko behar diren muga gehigarriak baino ez dira ezartzen.

2. Durangoko Eskualde Egiturako LZPk gainjarritako baldintzatzaile hauek ezartzen ditu:
 - a. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak.
 - b. Eremu higagarriak eta higadura arriskukoak.
 - c. Eremu ureztagarriak.

50. artikulua. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak.

1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak izango dira lurpeko akuiferoak kargatzeko eginkizuna eduki eta baliabide horren kutsadurarekiko zaurgarritasun handia dutenak.
2. Grafiaturiko mugaketa, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Zatiko Planetik hartu da. Hala eta guztiz ere, udal-planeamendu orokorreko tresnek eta garapeneko tresnek halako eremuen mugaketa, antolamendua, esku hartze-arubidea eta erabilerak ezarriko dituzte, honako irizpide hauek errespetatuz:
 - a. Baldintzatzaile honen eraginpeko lurzoruetako nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jarduerak garatzean, aplikagarriak izango dira Nekazaritza Jardun Onen Kodeko irizpideak eta arauketak, herbiziden, fitosanitarioen edo ongarrien bidezko tratamenduaren arloan, eta saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua sortzen duten dosiak.
 - b. Halako zonetan simaurtegiak, minda-hobiak, lurperatze hobiak edo kutsagarriak sor ditzaketen beste abeltzaintza-azpiegitura batzuk sortzeko, bete egin beharko dira administrazio sektorial eskudunak ezarritako neurriak, akuiferoen kutsaduraren zaintza bermatzen duten gaitasunari eta diseinuari buruzkoak.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak emandako dekretu hauen xedapenak betetzea exijitu egin behar da: 165/1999 Dekretua, jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jarduerari buruzkoa, 390/1998 Dekretua,

nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskutan dauden inguruak izendatzeko arauak finkatzen dituena eta nekazaritza-lanetan Jardun Onen Kodea onartzen duena eta 141/2004 Dekretua, abeltzaintzako ustiapenen Arau Teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

- c. Zuzkidurak eta azpiegiturak egokitzeko lehentasunezko eremuak dira, bestalde, Akuiferoak Kutsatzeko Arriskua duten Eremuak deritzon gainjarritako baldintzatzailearen eraginpeko eremuetan dauden hiriguneak eta landaguneak eta baserri isolatuak; dena den, Eskualde Egiturako lurralde osoan azpiegitura egokiak zuzkitu behar dira.
- d. Birkokatu eta hobetu (ingurumenaren aldetik) egin behar dira akuiferoak kutsatzeko arriskua duten zonetan instalaturiko hondakindegia.

51. artikulua.Eremu higagarriak eta higadura arriskukoak.

1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, eremu higagarriak edo higadura arriskukoak izango dira higadura-prozesuekiko zaurgarritasun handia dutenak, euren ezaugarri litologikoak eta erliebea aintzat hartuta.
2. Grafiaturiko mugaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako, Abeltzaintzako nahiz Basoko eta Inguru Naturaleko Lurraldearekiko Egitamu Sektorialetik hartu da. Hala eta guztiz ere, udal-planeamendu orokorreko tresnek eta garapeneko tresnek halako eremuen mugaketa, antolamendua, esku hartzea eta neurriak ezarriko dituzte, honako irizpide hauek errespetatuz:
 - a. Baldintzatzaile honen eraginpeko lurzoruetan, mendien foru-administrazioak arriskuaren intentsitatea ahalik eta gehien murrizteko jarduera eta kudeaketa-sistema guztiak sustatuko ditu.
 - b. Halako lurzoruetan, lehentasuna emango zaio zuhaitzik gabeko zonak oihaneztatzeari, eta horrek baldintzatu egingo du abeltzaintza-erabilera. Zona hauetan, hazkunde ertaineko edo moteleko zuhaitzen landaketa bultzatuko da.

52. artikulua.Eremu ureztagarriak.

1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, eremu ureztagarriak izango dira, Jabari Hidraulikoari buruzko Araudia aldatzen duen 9/2008 Errege Dekretuaren 14.1. artikuluekin bat etorritik, "bostehun urteko birgeratze-aldi estatistikoko ur-goraldietan urek hartuko lituzketen maila teorikoek mugatutakoak".
2. Uholde-orbanen mugaketa, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzan, uholde-arriskuaren kartografia bidez, lurturiko ibai eta erreken inguruko informazio xehatuan oinarritu da, berriztatu den (UPPI) Uholdeen Prebentziorako Plan Integraleko 10, 100 eta 500 urteko birgeratze-aldien arabera. Edonola ere, ibilguan egindako jarduketak direla eta, organo eskudunak aldatu eta eraldatzeko aukera du.
3. Udal-planeamendu orokorreko tresnek eta garapeneko tresnek halako eremuetako esku hartzeen eta erabileren araubidea ezarriko dute, honako irizpide hauek errespetatuz:
 - a. Onargarriak izango dira eraikinen edo azpiegituren instalazioa eragiten ez duten jarduerak, eta uren berezko dinamika oztopatzen duten materialen pilaketak eragiten ez dituztenak.
 - b. Uholde-arriskuaren hazkudea edo halako prozesuen eraginezko kalteen hazkudea sor dezaketen gainko jarduerak, eremuko babes-irizpidearekin baterarriak ez direnak, ez dira onartuko.

4. Aurreko puntuan esandakoaren kalterik gabe, LZPk debekatu egiten ditu hirigintza-garapenak 10, 100 eta 500 urteko birgeratze-aldien barruko uholde-orbanean eta salbuetsita geratzen da, balio handikoa delako ekologia, ingurumen eta edafologiaren aldetik.
5. Dagoeneko onartu diren udal-planeamenduetako eremuen gaineko eragin posibleei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak zehaztuko ditu lurzorua erabiltzeko irizpideak, uholde-arriskuaren arabera.
6. LZPn jasotako uholde-orbanak aldatzekotan, okupazioaren muga-eremuak egokitu beharra dago, aurreko 4. puntuan adierazitako salbuespen-irizpideak mantenduz.
7. Udal planeamenduak berriztatzerakoan, edozein birgeratze-alditako uholde-orbanetan kokaturiko eremuak, garatuak ez direnak ezta hirigintza-egite prozesuan ez daudenak, lurrak naturagunea osatzen duten aldetik baita haien goi-mailako balio edafologikoa kontuan harturik, balio estrategiko handiko lurzorutzat kalifikatu beharko dira, LZPk kontuan hartu izan duena okupazioaren muga-eremuen mugaketarako.

3. ATALA. INGURUMENA HOBETZEKO EKINTZAK

53. artikulua. Kontzeptua eta definizioa.

1. Ingurumena hobetzeko ekintzek, gainjarritako baldintzatzaileen kasuan bezala, erabilerak baldintzatzen dituzte, eta, kasu bakoitzean, Antolamendu Kategoriei gainjartzen zaizkie.
2. LZPk Durangoko Eskualde Egiturarako proposatzen duen lurralde-ereduaren barruan, Natura eta Landa Inguruari loturiko honako ekintza hauek jasotzen dira:
 - a. Ingurumena hobekuntza
 - b. Ingurumen-hobekuntza harrobietan eta hondakindegietan
 - c. Ibaiertzak:
 - i. Ondo kontserbaturiko landaredia.
 - ii. Suspertu beharra.
 - iii. Hiriguneetan bermatu beharra.
 - d. Igarobide ekologikoak

54. artikulua. Ingurumena hobetzeko eremuak.

1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren ondoretarako, ingurumena hobekuntza izango dira eremu narriatuak, lurzoru urrikoak edo higadura handikoak, halako eremuetan, ahalik eta lehenen, suspertu egin behar da ekosistema, baliabidea ez galtzeko. Kasu bakoitzeko lurzoru-kategoriaren araubideari gainjarritako baldintzatzaile gehigarritzat hartzen dira.
2. Durangoko Eskualde Egituran, ingurumena hobetzeko eremutzat hartzen da Oiz mendiaren ingurua.

3. Irizpide orokortzat, Egitamu Orokorrek ingurumena hobekuntzaren baldintzarekiko eremuetan sartu beharreko zonen kudeaketa egingo dute, baimendutako erabilerak koordinatuz, proposaturiko suspertze-helburua lortu ahal izateko.
4. Baimendutako erabilerak zehazteko eta suspertze- nahiz hobetze-helburuak finkatzeko, Egitamu Bereziaren tramitazioa egingo da, Egitamu Orokorrek ondo baderitzo; bertan, oraingo narriaduraren eragileak eta horiek zuzentzeko modua aztertuko dira, eta gain, erabileren tratamendu integrala egingo da.

55. artikulua. Ingurumen-hobekuntza Harrobi ez aktiboetan eta Hondakindegietan

1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, Ingurumen-hobekuntza Harrobi ez aktiboak eta Hondakindegia izango dira, gaur egun, narriadura handia eta higadura-zantzu handiak agertzen dituzten harrobi ez aktiboak, bai eta, hondakindegia ere, non, ahalik eta lehenen, finkaturiko lurzoru eta ekosistema suspertu egin behar den, baliabidea ez galtzeko. Kasu bakoitzeko lurzoru-kategoriaren araubideari gainjarritako baldintzatzaile gehigarritzat hartzen dira.
2. Irizpide orokortzat, Egitamu Orokorrek halako zonen kudeaketa egingo dute, baimendutako erabilerak koordinatuz, proposaturiko suspertze-helburua lortzeko, erauzketa-jardueren eraginpeko eremu naturala suspertzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan ezarritako irizpideei jarraituz.
3. Hondakindegiei dagokienez, exijitu beharreko legeriaren xedapen hauek beteko dira: Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua (1994ko abenduaren 19ko EHAA) eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko Agindua (1995eko martxoaren 20ko EHAA).
4. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nahiz instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen Zerrendan kokaturiko hondakindegiei, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuak onartua (2008ko urriaren 24ko EHAA), lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako prozedura aplikatuko zaie.
5. LZPen kartografian adierazitako Ingurumen-hobekuntza Harrobi ez aktiboetako eta Hondakindegietako egoeraren kokapena ez da sakona, eta EAEko Nekazaritza eta Basogintza antolatzeako Arlokako Lurralde Planean eta Foru Aldundi honetako kartografian datu berberak erakusten dira. LZPen dokumentazio grafikoan identifikatu ez den horrelako eremurik izanez gero, arestian azaldutako neurri berberak aplikatuko zaizkie.

56. artikulua. Babes-zerrendak errespetatzeko eta ibaiertzak oihaneztatzeako neurriak.

1. Uholde-arriskuak murrizteko eta uhaldien eraginezko kalteak aurreikusteko nahiz arintzeko, Lurraldearen Zatiko Plan honetan integratu beharreko lurralde-antolamenduko tresna guztiek eta hirigintza-planeamenduak honako neurri eta jarraibide hauek hartuko dituzte edo horietara egokituko dira:
 - a) EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialak ibaien eta erreken multzorako ezarritako sare hidrografikoaren babes-zerrendak errespetatu egiten direla bermatzea; ahal den neurrian, erabilerarik gabe gelditu diren instalazioak ezabatzeko eta zonako ingurumena suspertzeko ahalegina egingo da. Babesturiko Eremu Naturalen eta Lehentasunezko Interes Naturalistikoko

- Eremuen (Urkiolako Parke Naturala, Urdaibai Erreserba eta Udalaitz) barruko ibaien ubideetan, gain, guztiz debekaturik egongo da inguru aldazten duen edozein jarduketa egitea.
- b) Kontserbatu egingo dira ibaien ubideen zeharreko hiri-jarraipenen eraketa ekiditen duten urbazterreko eremuak, finkaturiko industria- eta hiri-egituren arteko banaketa mantentzen duten bitarteko eremu naturalak ahal den neurrian kontserbatzeko.
 - c) Ibilguen eta ibaiertzen gaineko esku hartze guztiak ekidingo dira, horiek bertako landaredian kalte egin edo landaredia horren berezko garapenean eragin kaltegarria sortzen badute; hori lehengo moduan utzi beharko da, baldin eta, justifikaturiko arrazoen eraginez, halako eremuetan jardutea ezinbestekoa bada.
2. LZPk ondo kontserbaturiko urbazterreko landaredia duten ertzak eta suspertu beharra duten ertzak jasotzen ditu, Ertzen LAPetik; gain, ertzetan beste baldintzatzaile bat sartzen du, hiriguneetan bermatu beharrekoa:
- a) Ondo kontserbaturiko urbazterreko landaredia duten ertzak. Babes aktiboa sustatzen da, urbazterreko basoa egoera onargarrian kontserbatzen duten tartetean, eta gain, landaredia naturala suspertzea eta garatzea bultzatzen da.
 - b) Suspertu beharra duten ertzak. Giza esku hartzeen eraginez narriaturiko ertzak suspertuko dira, Ertzen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean ezarritakoaren arabera, baina lehentasuna emango zaie honako inguru hauetan egin beharreko esku hartzei: i) higadura-arriskua, irristatzeak edo akuiferoak kutsatzeko arriskua duten zonak (Egitamuan adierazitakoak); ii) ondo kontserbaturiko landaredia kontaktuan jartzeko aukera ematen duten tartetean, zehaztapen grafikoetan adierazitakoak, batez ere Zumelegiren eta Mañariaren ibilguetan; eta iii) ibilguak oihaneztaturiko eremuak birkualifikatzeko eta hobetzeko aukera ematen duten hiri-inguruak, horiek gizarte- eta ingurumen-intereseko zonak izateko. Kasu guztietan ere, zortasun publikoa duten zerrendak aprobeztatu dira, landaredi-korridoreen zabalera handitzeko eta urbazterri interesgarrien ondoan oinezkoen pasealekuak egokitzeko.
 - c) Hiriguneetan bermatu beharreko ertzak. Hiriguneen barruan narriaturiko ertzak suspertzea proposatzen da (LZP honen neurri berezia), halaber, lehentasuna emango zaie hiri-espazio horiek integratzeko eta hobetzeko esku hartzei, ibai-fatxadak eta horiei loturiko elementu arkitektonikoak suspertuz, era berean, oinezkoen bideak eta ekipamenduak egingo dira, hiri-fatxaden (egoitzakoak eta industriakoak) balioa handitzeko; horretarako, hirigintzako (lorategiak), urbazterreko landaredia kontserbatzeko eta paisaia integratzeko lanak egingo dira.

57. artikulua. Eremu naturalak lotzeko igarobideak. Igarobide ekologikoak.

1. Eremu naturalak lotzeko korridore-sarea sortuko da, zehaztapen grafikoetan adierazitakoa, EAeko Igarobide Ekologikoen Sarean oinarrituz, isolaturiko fauna- eta landaredi-populazioen arteko truke genetikoa bermatzeko, espezieak galtzeko toki-prozesuak ahalik eta gehien murrizteko eta espezie berrien kolonizazioa ahalbidetzeko.
2. Gune-espazioen arteko paisaiaren konektibitate edo iragazkortasunik handieneko ibilbideak abiapuntutzat hartuta konfiguratu da Igarobide Ekologikoen Sarea. Horretarako, zabalera aldakorrek zerrenden mugaketak egin dira, gune-espazioen arteko lotura-igarobideak osatze aldera. Lotura-igarobideak eteten dituzten sektore nagusiak haiekiko desberdinak dira, eta "lotura-eremuak" izena dute. Indargetze-eremuen mugaketa hiru elementu horien inguruan datza.

Behin aurreko elementuak definitutakoan, lotura-interes bereziko ibai-tartetak hautatzen dira, sarearen koherentziaren elementu bultzatzaile gisa.

3. Halako igarobideetarako ezarritako helburu nagusiak, izan ere, EAEko Igarobide Ekologikoen Sarean ezarritakoak dira:
 - Eragin kaltegarriak aurreikustea.
 - Landaredia naturaleko elementuak kontserbatzea eta suspertzea.
 - Nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basokoak eta zinegetikoak diren aprobetxamenduak iraunkortasunez ustiatzea.

4. Lurraldearen Zatiko Planak ezarritako antolamenduan legez integratu behar diren lurralde-tresna sektorialek eta udaleko hirigintza-planeamenduak ahalegina egingo dute, hurrenez hurren, aurreko zenbakian aipaturiko sarea eraginkorra izateko eta horren antolamendurako nahiz kudeaketarako beharrezko xedapenak ezartzeko, honako jarraibide hauen arabera:
 - a) Komenigarri da igarobideak beraiek eta lotura-interes bereziko ibai-tarteak proposatutako mugaketara egokitzea.
 - b) Nekazaritzaren arloan, saihestu egin behar dira hesien, ribazoen, basotxoeren eta urbazterren gaineko jarduketa guztiak, basoko faunarako aterpe-eginkizuna murrizten badute.
 - c) Faunaren gaineko ondorio kaltegarri guztiak ekidingo dira, kutsadura akustikoari edo eraikuntza-erabileren eraginezko beste edozein kutsadura motari dagokionez.
 - d) Ez da azpiegitura lineal berririk jarriko. Hori beharrezkoa denean, proiektuak ezinbesteko neurri eta jarduketa guztiak jasoko ditu, azpiegitura berriaren iragazkortasuna bermatzeko, eta gain, bidezkoa denean, ingurumen-eraginaren aurretiazko ebaluazioa gainditu beharko du.
 - e) Oraingo hesien (azpiegiturak) inbentarioa egingo da; halaber, horien iragazkortasuna hobetzeko bidezkoenak diren soluzioak ikertu eta gauzatu beharko dira.
 - f) Hobekuntza ekologikorako lagungarriak diren erabilera guztiak ahalbidetu eta sustatu egingo dira.
 - g) Basotxoetako, hesietako, landare-pantailetak, orlako eta urbazterreko landaredia sortu eta mantenduko da, erreken ertzetan eta nekazaritza-finken nahiz belardien mugetan; era berean, zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak konbinatu egingo dira, inguru ahalik eta basotarrena sortzeko.
 - h) Basoko faunaren joan-etorriak sustatu behar dira, zona hezeak edo putzudunak suspertuz nahiz mantenduz, eta itxiera zinegetikoen ordeztu itxiera iragazkorragoak erabiliz.
 - i) Basoko lanak, ahal dela behintzat, ugaztun handien, hegaztien eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan mehatxupeakotzat katalogaturiko animalia-espezieen aralditik eta umealditik kanpo egingo dira.

5. Aurreko zenbakian ezarritako jarraibideak garatzen eta zehazten dituzten lurralde-antolamenduko tresnak eta hirigintza-planeamendua onetsi eta indarrean sartu arte, kasu bakoitzeko hirigintza-antolamendu aplikagarria horien erabateko eraginkortasuna lotzeko interpretatuko eta aplikatuko da.

4. ATALA IZAERA KOMUNITARIOKO GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK - NATURA 2000 SAREA**58. artikulua. Natura 2000 Sarea: Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL).**

1. Natura 2000 Sarea arriskuan dauden espezie eta habitatak dituzten lekuen europar sare ekologikoa da, eta bere helburua horiek guztiak egoera onean kontserbatzea da (92/43/EEE Zuzentaraua edo habitatei buruzkoa, 1997/1995 Errege Dekretu bidez eta izan dituen aldaketen bidez (1193/1998 Errege Dekretua eta 1421/2006 Errege Dekretua), Espainiako ordenamendu juridikora bildua eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jasoa.
2. BILek, Europako Erkidegoen buletinean argitaratu ondoren, NATURA 2000 SAREari buruzko Europako Araudi Komunitarioan xedatutakoarekin bat etorri beharko dute eta Habitatak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzko maitzaren 21eko Kontseiluaren 1992/43/CEE Zuzentaruaren 6. artikuluan adierazitako prezeptuak aplikatuko dira, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bitartez Barne-zuzenbideari erantsi zaiona.
3. Autonomia Erkidegoek BILak KEB (kontserbazioko eremu berezia) izendatu bezain laster, dagokien planarekin edo kudeaketa-tresnarekin batera, dagozkien Baliabide Naturalak Antolatu eta Kudeatzeko Egitamuen (EKEG edo/eta BNAE) arauen pean geratuko dira.

5. ATALA: FAUNA ETA FLORARAKO INTERESA DUTEN EREMUAK**59. artikulua. Fauna eta florarako interes bereziko eremuak**

1. Fauna eta florarako interes bereziko eremuak dira, espezie mehatxatuen, babes-neurri espezifikoaren premia dutenak, fauna- eta flora-espezie katalogatuak dituzten habitatak.
2. Multzo horretatik, bi hauek bereizten dira:
 - a. Faunarako interes-eremuak.
 - b. Flora eta landaredirako interes-eremuak.

60. artikulua. Faunarako interes-eremuak

1. Eskualde Egituran Ur-ipurtatsarentzako interes bereziko eremuak adierazten dira, espezie hori ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuak onartutako ur-ipurtatsa (desagertzeko arriskuan) Kudeatzeko Egitamuen xede da.

61. artikulua. Flora eta landaredirako interes-eremuak

1. Durangoko Eskualde Egituran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, 2003an, sustatutako "Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian desagertzeko arriskuan dagoen floraren kokapen geografikoa. I. Fasea. 1/5000 Eskala" proiektuaren kartografia eta egin diren beste azterlan batzuk oinarritzat harturik, arriskuan dauden hurrengo flora-espezie hauek identifikatu dira, horietako batzuk **Urkiola Parke Natural barnean edo Udalaitzeko Interes Naturalistikoko Eremuan**, hortaz, eremu horiei buruzko planifikazioa eta kudeaketa espezifikoa egitea espezie hauen populazioak kontserbatzeko nahikoa berme izan beharko litzateke:
 - ***Aster alpinus***, bakantzat hartzen da, birritan aipatzen da Eskualde Egituran.
 - ***Barberis vulgaris***, bakan gisa katalogatua.
 - ***Gypsophila repens***, bakantzat hartzen da, birritan aipatzen da Eskualde Egituran.
 - ***Ilex aquifolium***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Narcissu varduliensis***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Narcisos varduliensis x pallidiflorus***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Pinguicola lusitanica***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Taxus baccata***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Trichomanes speciosum***, Interes berezikoa katalogoan.
2. **Eremu katalogatuetatik kanpo**, bereziki, mikroklimak sortutako lekuetan, hauek bezalako espezieak daude:
 - ***Armeria pubinervis***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Veratrum album***, Interes berezikoa katalogoan.
 - ***Woodwardia radicans***, Interes berezikoa katalogoan.
4. **Eskualde Egiturako errekarik sartuenak**, batez ere Amorebieta-Etxano eta Durangoko mugarteetan, Aretzerrota, Berna, Zabalondo, San Antonio eta Leginetxe bezalako erreketan, tenperatura eta hezetasun-maila egonkorrekin, non desagertzeko arriskurik handieneko euskal ira-mota batzuk dauden. Izan ere, badaude ira makaronesikoak, errelaktu paleotropikalak, oso zainketa zorrotza behar dutenak. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira:
 - i. **Woodwardia radicans**
 - ii. **Stegnogramma pozoi**
 - iii. **Trichomanes speciosum**
 - iv. **Dryopteris aemula**

VII. KAPITULUA: INGURU NATURELEKO OSAGAI AIPAGARRIAK

62. artikulua.Kontzeptua eta definizioa.

1. Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, inguru naturaleko osagai aipagarriek modu irekian mugatzen edo adierazten dituzte ingurumenaren, naturaren eta ekologiaren aldetik balio handikoak diren leku interesgarriak, edo gai jakinaren eraginez garrantzi handia dutenak eta, berezitasun horretan oinarrituz, Eskualde Egiturako natura-ondarean integraturik daudenak.
2. Halako lekuetan interes handiko espezieak, sistema geomorfologikoak eta beste ekosistema natural batzuk daude, eta horiek ikerketa xehatua behar dute; planeamendu orokorrak edo garapeneko planeamenduak horien eremuaren eta babes-inguruaren mugaketa egingo dute, baita behin betiko antolamendua ere.
3. Inguru naturaleko osagai aipagarriak 1.2. Antolamendu Planoan identifikaturik daude (“Inguru Naturalaren Kategorizazioari Gainjarritako Baldintzatzaileak”), eta, aldi berean, bi azpitaldetan banatzen dira, euren berezitasunen arabera:
 - a) Interes geologikoa duten eremuak.
 - b) Zuhaitz-ale interesgarriak.

63. artikulua.Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten eremuak.

1. Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten eremuak dira, Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, euren baldintza geologikoen eta geomorfologikoen eraginez babesa merezi duten eremuak; baita, arraroak, ikusgarriak, ederrak eta bereziak direnez, Egitamuan ondare geologikoaren edo geomorfologikoaren fenomeno adierazgarrienen aztarnatzat hartzen direnak ere.
2. Lurraldearen Zatiko Plan honek halako eremuen presentzia adierazten du; eremuok ikerketa xehatua beharko duten guneak dira, eta planeamendu orokorrak edo garapeneko planeamenduak horien eremuaren eta babes-inguruaren mugaketa egingo dute, baita behin betiko antolamendua ere.

64. artikulua.Zuhaitz-ale interesgarriak.

1. Zuhaitz-ale interesgarriak dira, Eusko Jaurlaritzaren 265/1995 Dekretuan izendatuta egon ez arren, ondare balioa edo esangura garrantzitsua dutenak, kulturaren, historiaren edo zientziaren aldetik. Oro har, halako aleak, euren itxura edo adina aintzat hartuta, edo kokaleku jakina nahiz beste ezaugarri bereizgarri batzuk dituztelako, inguruan garaturiko taldeek beti ezagutu, onartu eta babestu dituzte.
2. Lurraldearen Zatiko Planak halako aleen presentzia adierazten du; aleok ikerketa xehatua beharko duten guneak dira, eta planeamendu orokorrak edo garapeneko planeamenduak horien eremuaren eta babes-inguruaren mugaketa egingo dute, baita behin betiko antolamendua ere.

VIII. KAPITULUA: INGURU NATURALAREN GAINEKO BESTE ERAGIN BATZUK

65. artikulua. Onura Publikoko Mendiak.

1. LZPn arauturiko erabilerek eta jarduerak errespetatu egingo dute Bizkaiko Lurralde Historikoko Eremu Natural Babestuak Administrazioari eta Mendiei buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan ezarritako araubidea (mendi publikoetarakoa) eta martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak horri egindako aldaketa, eta Nekazaritza Sailaren eskumenak (halako mendien okupazioak eta erabilerak baimentzeko eskumenak).
2. LZPk aurreko horiek jaso egiten ditu, informazio-izaerarekin, 5 zk.ko Informazio Planoan.

66. artikulua. Erauzketa-jarduerak.

1. LAAk adierazitakoaren arabera, udal-planeamenduak ezarriko du erauzketa-jarduerak eragindako zonaldeen mugaketa, bai eta erabilera horietarako izan ditzaketen zonaldeena ere.
2. Erauzketa-jarduera bakoitza ezartzeko, aurretik ingurumen eraginaren ebaluazio bakoiztuaren beharra denez, premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 4.3. artikuluan (2008ko ekainaren 23ko EHAA), Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen garapenean, xedatutakoa aplikatu behar zaio, beraz, plan berezia idatzi eta onartzearen beharra dago, aipatu Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c7 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz.
3. Plan bereziek, beste zehaztapenez gain, ustiapenen behin betiko mugaketa finkatuko dute, eta EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordeak aldeko txostena eman beharko du.
4. Gaur egun indarrean dagoen legeriarekin eta, zehazkiago, Euskal Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207.1.j artikuluekin bat etorrita, agregakinak erauzi eta harrobiak ustiatzeko jarduerak, baimen sektorial egokiez eta ingurumen eraginaren ebaluazioaz gain, udal-lizentziaren beharra dute.
5. Jardunean dauden, ez aktiboak diren edo erabiltzen ez diren harrobiak suspertu egingo dira, erauzketa-jarduerak kaltetutako Naturguneak Leheneratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan ezarritakoari edo, hori ezean, haren ordezkoi jarraiki.
6. Harrobi ez aktiboek "Ingurumen-hobekuntza Harrobi ez aktiboetan eta Hondakindegietan" izaera izango dute eta, horiek horrela, Araudi honetako 55. artikuluan ezarritako baldintzen pean daude.

XI. KAPITULUA: PAISAIAREN IRISGARRITASUNA, ZAINZA ETA HOBEEKUNTZA**67. artikulua. Helburuak.**

LZPk egindako proposamenaren arabera, zaindu egin behar dira elementu naturalak, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basokoak nahiz artzaintzakoak eta eraikitakoak (baserriaren paisaiari dagokionez); halaber, paisaia kontserbatzeko neurriak sustatu behar dira, paisaiaren behaketa eta errespetuzko irisgarritasun publikoa bultzatuz, paisaia lurralde-ondareztat eta, aldi berean, baliabidetzat hartuta.

68. artikulua. Paisaia-nortasuna kontserbatzeko sistema integratua.

1. LZPk sistema integratua proposatzen du, biztanleei “lurraldearen iragazkortasuna” bermatzeko; horrenbestez, mekanismoak bilatuko dira hiritarrek naturaz gozatu ahal izateko, espazio desberdinen bokazioarekin modu bateragarrian. Paisaiara hurbiltzeko aukera ematen duen sistema edo sare hori honako hauek osatzen dute: Paisaia-intereseko eremuak, Paisaia-intereseko ibilbideak eta Paisaia-intereseko elementuak, 2 zk.ko Antolamendu Planoan “Paisaiaren Irisgarritasuna eta Kultura Ondarea” adieraziak.
2. Era berean, LZPk paisaiari lotutako ibai-sistemaren proposamena egiten du ingurumen- eta paisaia-balioko eremu gisa, biztanleak Ibaizabal, Solozabal, Zumelegi eta Mañaria ibaien inguruetara hurbiltzea ahalbidetuz, eta espazio horien ezaugarriekiko errespetuzko jokabidea agertuz.
3. Paisaiaren tratamendu honek kategorizazioari gainjarritako baldintzatzailetzat jarduten du, eta errespetatu egin beharko ditu antolamendu-kategorien ondoriozko mugak.

69. artikulua. Paisaia-intereseko eremuak, ibilbideak eta elementuak.

1. Paisaia-interes bereziko eremuak.

Paisaia-interes bereziko eremuak dira baserriaren munduko landa-irudiaren garbitasuna eta harmonia adierazten duten lurrak, interes geomorfologikoa dutenak (gainak, mendiak,...) edo biak batera dituztenak.

2. “Paisaia-interes bereziko eremutzat” proposatzen dira honako paisaia-multzo handien barruan dauden eremu hauek:
 - a. **Oiz mendiko gainak eta isurialdeak:** Astogane – Oiz – Zengotitagane eremua.
 - b. Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak (Atxondoko eta Mendiolako harana, Arrazola, Santiago eta Axpe, auzoekin);
 - c. Zumelegi ibaiaren arroa: Iguria auzoa eta horren ingurua, (Elorri); Gazeta auzoa eta horren ingurua (Elorrio); Miñota auzoa eta horren ingurua (Berriz-Elorrio); Gaztelua-Aresti eremua.
 - d. Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak (Garaiko landa-multzoa, Garain); Andikoa-Sarria eremua (Berriz); Etxano eta horren ingurua.

3. Paisaia-intereseko ibilbideak:

Paisaia-intereseko ibilbideek aukera ematen dute konserbazio-egoera oneko paisaiak behatzeko nahiz interpretatzeko, Egitamuaren eremu geografikoaren barruan, baita horien ondoko eremuak behatzeko eta interpretatzeko ere, horien barruan paisaia-intereseko elementuak daudenean.

4. Paisaia-intereseko elementuak:

1. Erliebeko elementu aipagarriak diren eta gizartean kualifikaturik dauden paisaia-elementuak.
2. Instituzionalizaturiko behatokiak eta talaiak, edo instituzionalizatu egin daitezkeenak.
3. Paisaia-intereseko elementu edo multzo kulturalak, aintzat hartuta euren balioa (baselizak, landagune batzuk, isolaturiko baserriak, historiaurreko elementuak eta horien inguruak), paisaia-intereseko eremuetako edota ibilbideetako integrazioa eta panoramika interesgarrien eskaintza.

70. artikulua.Paisaiari lotutako Ibai Sistema.

1. LZPn ezarritakoaren arabera, eremu honek udalerriz gaindiko interesa dauka nekazaritzaren, hidrologiaren, paisaiaren eta kulturaren aldetik, eta Ibaizabal, Solozabal, Zumelegi eta Mañariaren ibaien haranen hondoan zehar kokaturik dago.
2. LZPk honako hauek identifikatzen ditu proposamen hau osatzen duten elementutzat:
 - a. Ibaia eta horren ertzak: baliorik handieneko elementua, igarobidearen gunea osatzen duena.
 - b. Ingurumen-ereseokoak diren hiri-inguruko landazabalak: balio estrategiko handiko landazabaleko eremuak eta, neurri batean, ureztagarriak dira; hiri-jarraipena apurtzeko eta haran-hondoko paisaiannahiz ingurumen-balioa kontserbatzeko eginkizuna dute.
 - c. Paisaiari loturiko ibai-igarobidea: Paisaiari loturiko balio handiko ibai-eremu honetan, LZPk "Paisaiari loturiko Ibai Sistema" deritzonaren proposamen integrala onartzen du, bertan esku hartze ahalik eta txikiena egitearen apustua egiten du; horrela, biztanleek inguru horretaz gozatzeko aukera ematen duen "Paisaiari loturiko Ibai Ibilbidea" eskaini nahi da, eta udal-planeamenduei gomendioa egiten zaie, paisaiaren irisgarritasunerako elementutzat duen balioa sustatzeko ekintzak garatzeko, aldi berean paisaiaren balio ekologikoa eta naturala kontserbatzen baitu. "Paisaiari loturiko Ibai Ibilbide" hau, tarte batzuetan, bat etor daiteke Aukerako Mugikortasun Sarearekin; tarte horietan eginkizun bikoitza dauka, paisaiaren irisgarritasuna eta Aukerako Mugikortasun Eredua eratzeko elementutzat.

71. artikulua.Paisaiaren irisgarritasuna antolatzeke irizpideak.

1. Paisaiaren irisgarritasunaren antolamenduak errespetatu egin behar ditu Natura eta Landa Ingurua Antolatzeke Kategorien eraginezko mugak.
2. Paisaiaren irisgarritasuneko sistema integratuko elementuen proposamena, LZPk egindakoa, eraginpeko udalerrien udal-planeamenduak garatu ahal du, esku hartze ahalik eta txikienaren eta Natura nahiz Landa Inguruko balio naturalak kontserbatzearen irizpidea mantenduz; hala eta guztiz ere, sustatu egingo da halako eremuen irisgarritasuna eta behaketa, batez ere Egitamu Berezien edo Paisaiaren Ordenantzen bitartez.
3. Paisaiaren irisgarritasuna modu integratuan antolatu beharko dute inplikaturiko udalek, jarraitasuna bermatuz. Lehentasuna emango zaio proposamenen antolamendu xehatua inplikaturiko udal guztiek batera egiteari.
4. Hain zuzen ere, paisaiari loturiko ibai-sistemaren araubideak honako irizpide hauek bete beharko ditu:
 - a) Ibaia eta horren ertzak:
 - Errespetatu egingo da EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Lurraldearekiko Egitamu Sektorialean ezarritakoa, "Gainazaleko Uren Babesa" kategoriari dagokionez, baita legeria sektorial aplikagarrian ezarritakoa ere; horrek guztiak euren babesa eta kontserbazioa bermatuko du, titulu honetako bigarren ataleko III. kapituluaren ezarritakoaren arabera.
 - Ur-ipurtatsari buruzko 118/2006 Foru Dekretua errespetatuko da, ibaiaren bidea habitatzat duen eta desagertzeko arriskuan dagoen espeziea.

- Europako Araudi Komunitarioan xedatutakoa errespetatuko da (92/42/EEE Zuzentaraua edo habitatei buruzkoa) Natura 2000 Sareko GKL-tzat (Garrantzi Komunitarioko Lekuak) jotzen direlako, Araudi honetako 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Ingurumen-intereseko hiri-inguruko landazabalak: matrizearen eraginezko arauketak errespetatzeaz gain, landazabalak gainjarrita dituzten antolamendu-kategorietan (gehienetan “Balio estrategiko handiko nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa”), halako landazabaletan murriztu egiten dira erabilera eta jarduera batzuk, paisaia naturalaren eta landazabalen kontserbazioa segurtatzeko. Horrenbestez, honako irizpide hauek bete beharko dira, besteak beste:
- Ez da eremu askeko sistema orokorrik ezarriko, ezta aisialdirako edo jolasaldirako bestelako instalaziorik ere, paisaiaren behaketa hobetzeko jarduketak bereziak egin ezean.
 - Ez da egingo paisaian eragina duten oinarritzko baliabideen ustiapenari loturiko eraikinik.
 - Azpiegitura berrien sorkuntzak arretaz errespetatu beharko ditu oraingo nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen lursailak, horiek bermatu egiten baitute nekazaritza-jardueraren eta, beraz, landazabaleko paisaiaren mantentamendua.
 - Eremu hauetan ez da egingo erabilgarritasun publikoa eta gizarte-interesa duen eraikinik.
- c) Paisaiari loturiko ibai-igarobidea: paisaiari loturiko ibai-igarobideak honako irizpide hauek errespetatuko ditu:
- Batez ere, lehendik dauden bideetan euskarrituko da.
 - Ez ditu apurtuko lehendik dauden lursailak, nekazaritza-ustiapenetan nahasterik ez sortzeko.
 - Ez du nahasterik eragin behar ibaiaren habitat naturalean eta hor bizi diren espeziengan.
 - Ibaiertzeko landarediak ez du eraginik izango, eta nahikoa bakarleku kontserbatuko da, orain ez dagoen tarteetan birlandatze-jarduketak egite aldera.
5. Oro har, paisaiaren irisgarritasuneko sistema integratuan, esku hartzeko araubideak bete egingo ditu esku hartze ahalik eta txikienaren, suspertzearen eta kontserbazioaren printzipioak, eta gain, Egitamu Berezietan edo Paisaiaren Ordenantzetan horri buruz ezarritakora egokituko da; besteak beste, honako printzipio hauek errespetatu beharko dira:
- a) Paisaia-kontzeptua eta Paisaiaren Europako Kontseiluan (Europako Kontseilua, 2000) nahiz Europako Lurralde Estrategian ezarritako ekintzak garatzea, baita EAEko Paisaia Berezien Katalogoaren Aurreproiektuan ezarritako irizpideak ere.
- b) Ekipamenduen eta azpiegituren paisaia-eragina eta integrazioa murriztea, zedarrietan zein talaietan, guneen inguruan eta errepideen ikusmen-arroetan arreta berezia jarrita.
- c) Oraingo azpiegitura irrati-elektrokoak eta telekomunikazio-azpiegiturak antolatzea eta lantzea, horiek murrizteko eta ingurumen-balioetara egokitzeko.
- d) Sareko azpiegitura lineak lurperatu beharra ezartzea, baldin eta ondo justifikatzen ez bada, ingurumen-ebaluazio egokiaren bidez, aireko instalazioaren eragina lurpekoa baino txikiagoa dela.

- e) Tentsio handiko energia elektrikoa garraiatzeko lineen trazatua eta instalazioa ekiditea.
- f) Paisaian eragina duten gainko jarduera, azpiegitura eta ekipamendu guztiak arautzea, paintailak, ikusmen-kutsadura eta paisaia-eragin kaltegarriak ekiditeko.
- g) Hiri-aurrealdeak eta horien inguruak antolatzeke neurri bereziak ezartzea, bertako irudi eta zedarrri garrantzitsuenen ingurumen-balioak ez eraldatzeko, narriatzeko edo pobretzeko, ikuspegi nagusiei eta adierazgarrienei arreta berezia jarrita.
- h) Elementuak edo jarduketak guneen inguruan integratzeko aukera ematen duten jarduketako irizpideak eta arauak garatzea.
- i) Guneetako hiri-inguruko egituraren paisaia-tratamendua egitea, espazio horien birkualifikazio formala egiteko.
- j) Antolamendu-neurri bereziak ezartzea, landa-inguruko eraikin isolatuetarako eta lehendik daudenak kontserbatzeko, paisaia-integratioari eta eraikuntza-tipologia tradizionala mantentzeari loturiko irizpideetan oinarrituz.
- k) Landa-paisaia tradizionaleko elementuak kontserbatzea eta baloratzzea, paisaia-interes bereziko eremu guztietan; horretarako, lurraren ustiapenaren eta jabearen arteko hitzarmena eta akordioa sustatuko dira.
- l) Landa-ondare arkitektonikoa eta paisaia-intereseko landa-bideak baloratzeko ekimenak sustatzea.
- m) Paisaiaren irisgarritasuna eta interpretazioa orokorrean sustatzea, beharrezko murriztapen guztiak ezarriz.
- n) Landa-bideen sarea suspertzeko ekimenak integratzzea, paisaia-intereseko ibilbideen diseinuan.

HIRUGARREN TITULUA: EGOITZA EZARKUNTZEN SISTEMA**I. KAPITULUA: EGOITZA EZARKUNTZEN EREDUA. KALKULUA****1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK*****72. artikulua.Egoitza Ezarkuntzen eredia.***

LZP honek proposaturiko ezarkuntza-eredua antolatzen duten irizpideak honako hauek dira:

- a) Hiri-morfologia nahiz eraikuntza-tipologia egokiak eta lurzoruaren hiri-erabileren maila zein intentsitate egokiak aukeratzeko eta hedatzeko prozesuak aurreikustea.
- b) Lurzoruaren densitateak eta hiri-erabilerak egokitzea, honako hau lortzeko: lurralde-oreka, oraingo nahiz proposaturiko azpiegituren zerbitzu egokia, garrantzitsuenen eraginaren murriztapena eta balio naturaleko eremuen errespetua.
- c) Hirietan eraikitako eremua suspertzea, erabilera egokiak ezartzea eta zerbitzuen zuzkidura nahiz iragazkortasuna ahalbidetzea, etxebizitzaren eta ekipamenduen eskaintza sortzeko, narriaturiko eremuak suspertzeko eta hirien oroimen historikoa berreskuratzeko; horrela, biztanleen bizi-kalitatea nabarmen hobetu ahal izango da.

73. artikulua.Egoitza Ezarkuntzen Sistemaren osaketa eta zehaztapenak.

1. Ezarkuntzen Sistema, Lurraldearen Zatik Planaren ondoretarako, Durangoko Eskualde Egituran dauden eta horren jarduketaren eremua osatzen duten udalerrietako biztanleguneei eratzeko, giza ezarkuntzaren euskarri fisikoari dagokionez; hiri-oinarriko produkzio-jarduerak dituzten lurzoruak ere sistema horren barrukotzat hartzen dira.
2. Dokumentazio grafikoan, Informazio Planoak izenarekin eta, beraz, antolamendu loteslearen izaera barik, zehaztuta dagoen datan indarreko planeamenduaren egoera islatu egiten da, izan ere, LZPen asmoaren arabera, etorkizuneko udal-planeamenduetan egingo diren berriztapen edo aldaketak LZP honen irizpideetara egokitu behar dira pixkanaka.
3. LZPk ez du ezartzen lurzoruaren jabetzara aplikatzeko moduko hirigintza-araubiderik, eta beraz, bertako xedapenek ez dute lurzoruaren sailkapen jakinik eragingo, horretarako eskumena udal-planeamenduak baitauka.
4. Aurreko zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, udal-planeamenduak lurzoru urbanizaezintzat sailkatu eta, beraz, ez dira ezarkuntza-sistemaren barruan sartuko LZPk ezarritako okupazio-mugetatik kanpoko lurzoru guztiak; ezta, muga horien barruan egon arren, udal-planeamenduak erabakita okupatu barik uzten direnak eta oraingo planeamenduen berriztapenak sailkapenetik kentzea erabakitzen dituen ere.
5. Egitamuk Ezarkuntzen Sistemari lotutako lurzoruaren mugaketa udal-planeamenduak soilik zehaztu ahal izango du, Egitamuk ezarritako murriztapenekin eta baldintzekin.
6. Honako LZP honen irizpideak betetzen badituzte, Ezarkuntzen Sistemari loturiko lurzoruari integratu ahal izango dira udal-planeamenduak hiri-lurzorutzat edo urbanizagarritzat sailkatzen dituenak, baita horren ikuskapenak eta aldaketak ere.

7. Ezarkuntzen Sistemaren informazio grafikoa 6. zenbakiko Antolamendu Planoan ("Lurralde Eredua") jasota dago.

74. artikulua. Egoitza-eredu iraunkorra lortzeko helburu orokorrak.

Proposatutako Egoitza-eredua ezartzeko, LZPk funtsezkoa deritzo hurrengo helburu orokor hauek zehazteari:

- 1. Lurralde-egitura indartzea, hazkundearen banaketa orekatua eginez, hori kasuan kasuko lurraldearen harrera-gaitasunera egokituta.**

LZPk lurzoruaren neurri gabeko kontsumoa mugatzea proposatzen du, kontuan hartuta Eskualde Egiturako lurraldeak harrera-gaitasun urria duela:

- Kuantifikazioa lurralde-ikuspegi zabalago batetik egin behar da eta udal-muga zorrotzak gainditu, izan ere, sarri askotan, lurralde-dimentsio egokia kontuan hartzen ez bada, hainbat aukera edo arazo ezin daitezke sumatu.

- 2. "Lurzoru" baliabidearen neurri gabeko kontsumoa mugatzea.**

LZPk lurzoruaren kontsumoa geldiaraztea proposatzen du, azken urteotan egon den joerari buelta emateko. Oraingo etxebizitzaren parkeak duen indarra kontuan hartzea da LZPen estrategiaren xedea, eta eraikita dagoen ondarea optimizatzearen alde egiten du. Xede horretarako, lurzoru berrien okupazioaren aurrean, lehentasunezko bi esku hartze proposatzen ditu: hutsik dauden etxebizitzak mugitzea eta oraingo eraikuntzak birgaitzea, gaur egun, lurraldeak duen harrera-gaitasun urria dela eta. Bestalde, indarreko planeamenduaren optimizazioa bultzatu beharra dago, gehienbat, sailkatuta eta hutsik dagoen lurzoria erabiliz, dena den, salbuetsita gera daiteke planeamendu orokorraren eredu berriak hala erabakitzen badu, 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasunaren irizpideen arabera berriztapenean birdentsifikazio-irizpideak erabiliz.

Lurzoru berria kontsumitu behar izanez gero, LZP honetan zehazturiko okupazioaren muga-eremuen barrua erabili beharko da. Hala eta guztiz ere, udal bakoitzaren Eredua Eskualde Egituraren garapen bikainerako beharrezkotzat hartzen dituen lurzoruak baino ez dira okupatuko, iraunkortasun-irizpideekin bat etorrira; Gutxienekoen Eredua erabiltzea gomendatzen da, eta mugaturiko eremua beti okupatzeko modukoa dela dioen ideia baztertuta; izan ere, aldiz, proposatzen den udal-planeamenduak mugaturik dagoen eremu honen barruko azalera ahalik eta txikiena eraldatzen saiatu behar du.

- 3. Beharrezkoa den egoitza-lurzoruaren erabilgarritasuna bermatzea Eskualde Egiturako udalerrri guztietan, Eredua eta Eskaintzaren kuantifikazioak desberdinduz, azken hori, aipatu Eredua betearazpena bermatzeko tresnatzat ulerturik.**

- Udalerrri guztietako egoitza-lurzoruaren eredu kuantifikatzeari dagokionez, LZPk balio finko osatutako metodologia ezarri du, edo, berriztapenaren unean, udalerrriaren errealitatera moldatzen direnez, hala nola, familien batez besteko tamaina eta biztanle kopura.

- Hartutako gehieneko eta gutxieneko hanpatze-koefizienteen ondorioz, LZPk etxebizitzaren balio-urkila proposatzen du, udalerriari garrantzizko malgutasunez hornitu eta, urkilaren barruan, euren eredu erabakitze aldera, Eskaintzaren kuantifikazioaren ordean, LZPen eredu-etxebizitzak eraiki ditzaten, etxebizitza kopuruaren gehikuntza nabarmena ekarriko lukeena.
4. Natura- edo landa-baliabideen eta gune historikoen gaineko hiri-hazkundearen eragina minimizatzea.
- Egoitza-kuantifikazioa lurraldearen arazoizko harrera-gaitasunera eta udalerriaren hiri-egituraren inplikazioetara egokituko da.
 - Beharrezkoa da bigarren bizitegirako bereizigabeko etxebizitza-erakuntza geldiaraztea landa-guneetako lurzoru urbanizaezinetan.
 - Ahalegindu behar da landa-guneetako ezaugarri morfologikoak kontserbatzen, landa-izaera bultzatzen saiatuz.
 - Etxebizitza-eskaerak nolabaiteko erantzun-maila izan behar du ondarea birgaitzeari dagokionez, hirigunetatik kanpo zein hiriguneeen barruan. Eta birgaitu eta birgaitzeko programek lehentasuna izan beharko dute garapen berrien programen aurrean.

5. Eredu mistoa sustatzea, espazioan integraturiko jarduera ekonomikoarekin eta egoitzarekin.

Honako LZP honek zonalde eta hiri-eremuen arabera espezializazio funtzional kaltegarria saihestea proposatzen du, eta egoitza-erabilerekin bateragarriak diren ekonomi jarduera-erabilera espazioan integratzeko asmoa du. Udalerriek proposatutako bizitegi-erabilera orokorreko lurzoru berri guztiek eremuko egoitza-azalera eraikiaren %10eko erreserba eduki behar dute, jarduera ekonomikoetarako; horien artean, industria-erabilera bateragarria ez ezik, honako hauek ere egon daitezke: merkataritzako hirugarren sektoreko erabilera, bulegoa, zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk, laga beharreko lurzoruak edozein izan arren, eta zenbait erabilera, adibidez, hezkuntzako, osasuneko, gizarte-zerbitzuko, kiroleko nahiz kulturako eta antzeko beste batzuk.

6. Biztanle kopuruaren beherakada saihesti eta lurralde-oreka mantentzea. Hiri-sistema indartzea. Eskualde Egituraren hazkunde demografikoa.

LZPk bermatu egin behar du Eskualde Egiturako udalerriri bakoitzean beharrezko lurzorua dagoela, biztanleek etxebizitza lortzeko beharrezkoak endogenoak betetzeko; horrela, Egitamua indarraldian biztanleak beste leku batzuetara joatea ekidin nahi da.

Xede horretarako, Udalek bertako biztanleriak behar dituen etxebizitzak egin behar ditu, aintzat hartuta hango biztanleria-segmentu guztien lorpen-gaitasuna, eta beraz, Babes Ofizialeko Araubidea erabilia, lurzoruari buruzko arautegi berriaren xedapen eta zehaztapen gehiago duena.

Biztanle kopuruaren mantentzea bermatzeko, aintzat hartu behar da familien batez besteko tamaina apurka-apurka murrizteko joera, hurrengo urteetarako aurreikusten dena.

LAAk zehazturiko Ereduak proposaturiko Lurralde Oreko Estrategiari erantzunez, Eskualde Egiturako udalerriren batean, biztanle kopurua mantentzeaz gain, hazkunde hautakorra ere aurreikusi da, beste

eskualde-egitura batzuetatik iritsitako biztanleei harrera egiteko (batez ere, Bilbo Metropolitarretik heldutakoei).

7. Natura- eta landa-inguruko balioak kontserbatzea, hobetzea eta sustatzea.

Baliabide naturalez eta ingurumena babesteaz arduratzen den administrazioarekin LZPk duen konpromisoaren eraginez, ingurumen baliorik urrienerako lurzorua erabiltzea proposatu du; baita ezarri behar diren irizpideak ere, non lurzoruaren hiri-erabilera berriek okupatu behar ez dituzten lurzoruak zehazten diren; lurzoru horien artean, hiru birgeratze-aldietariko edozeinetan (25, 100 eta 500 urtekoak) urak hartzeko modukoak diren eremuak sartzen dira, balio estrategiko eta edafologiko handia baitute, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak egindako uholde-arriskuaren kartografia berriarekin bat etorrira.

Natura- eta landa-ingurua babesteko, mugatu egin da horien gaineko eragina, eta okupazioaren muga-eremuak ezarri dira; eremu horietatik kanpo ezin daiteke lurzoruaren hiri-garapen berririk egon.

Okupaziorako ezartzen diren muga-eremuek ez dute kolonizaziora behartzen, LZPre indarraldian. Udal-planeamenduak zehaztuko du okupatzeko moduko azalera, beharizanak justifikatuta, LZPk proposaturikoaren arabera.

Udal Egitamuek hazkunde berriko lurzoruen behin betiko mugaketak aintzat hartu behar dute aktiboan dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak, euren mantentze eta hobekuntza xede nagusitzat dutenak. Ildo horretan, okupazioaren muga-eremuetan egiten den esku hartzea egiten dela, udal-planeamenduaren derrigorrezko ingurumen-eraginari buruzko azterlan barruan, oraingo nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenen gaineko eraginei buruzko azterlan espezifiko gehitu beharko da, eta aplikatu daitezkeen aukerak eta neurri zuzentzaileak zehazteko.

8. Mugikortasun iraunkorra: garraio publikoari eta mugikortasuneko aukerako moduei loturiko irisgarritasuna.

LZPk hiri trinkoaren eta erabilerak nahastearen printzipioak aplikatzea erabaki du; izan ere, jarduera eta ezarkuntzak (barreiatutako hiri) sakabanatzeko oraingo joerak zuzentzen saiatu da, horiek mugikortasun iraunkorreko ereduaren garapena ahalbidetzen duen ezarkuntza-eredua lortzea ekiditen baitute.

Hiriko jardueren eta erabileren barreiadura, bestalde, baliabide nahiz denboraren kostu gero eta handiagoan oinarrituz euskarritzen da, eta horrek etorkizunean izango duen jarraipena, berriz, baliabide horiek mugatzearen arabera da.

Gaur egun, Amorebieta, lurreta, Durango eta Abadiño udalerriek eraturiko konurbazioa hiri barreiatutzat egituraturik dago. Jarduera ekonomikoak (ibilgailuen bideriaren eta horren eraginezko irisgarritasunaren babesean sortutakoak, hiriaren berezko jarraipenari lotu barik) uharte iristezinak dira orain, bertara ibilgailu pribatuen soilik heldu ahal delako; izan ere, bideak eurak benetako hesiak dira aukerako beste edozein irisgarritasun motatarako, eta gain, mugatu egiten dute plataforma soileko garraio publikoa sortzeko aukera, ibilgailu pribatuaren erabilera ordeztu ahal izateko.

LZP honek, hiri-erabilera berriak edukitzeko moduko lurzorua aukeratzeko orduan, aintzat hartzen du eremu horiek hiriaren gainko zatiarekin duten artikulazioa, baita aukerako garraiobideekiko iragazkortasuna ere (oinezkoak nahiz bizikletak, edo plataforma soileko garraio publikoa), horiek biztanlerik gehienek esku baitaude. Beraz, LZPk beharrezko azpiegitura guztiak garatu nahi ditu, halako garraio mota sustatzeko, ibilgailu pribatuaren kaltetan, horren erabilera ez baita beharrezkoa hiriguneen barruko eta horietatik ondoko industrialdeetarako lekualdatzeetan.

Gain, beharrezkoa da garraio publikoa sustatzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, Eskualde Egiturako mugikortasun-arazoari erantzuna emateko elementu osagarritzat.

9. Haran-hondoan hiri-jarraipenaren eraketa mugatzea: Ingurumen Balioko Hiri-inguruko Landazabalak.

Durangoko Eskualde Egiturako ingurumen- eta paisaia-intereseak diren balio estrategiko handiko landazabalei loturiko eremuak (neurri handian ureztagarriak) mugatzen dira. Eremuok hiri-jarraipena apurtu eta eraikitako fatxada bakarraren eraketa ekiditen dute, haran osoan zehar eta, batez ere, N-634 errepidearen inguruan.

Irizpidetzat, honako hauen arteko bizikidetzat zaintzea ezartzen da: alde batetik, haran-hondoko hirigintza trinkoa (lurzoruaren hiri-erabilerak eta azpiegiturak baliabide urria lortzeko lehian), eta bestetik, baserrian oinarrituriko nekazaritza-jarduera eta lurralde antropizatu hau sortzearen oroimen historikoa.

2. ATALA. EGOITZA EZARKUNTZEN LURRALDE EREDUAREN KALKULUA

75. artikulua. Egoitza Ezarkuntzen Lurralde Eredua

1. LZPk aurreikusitako etorkizuneko Lurralde Eredurako egokia den egoitza-kualifikazioaren proposamena egin du.
2. LZPk Eskualde Egiturako egoitza-beharrizanak kalkulatzeko metodoa garatu du; horrela, lurraldeko etxebizitza-beharrizan endogenoari, oraingo biztanle kopurua murrizketa sahiesteko beharrizanen kalkulua gehitzen zaio, baita familia berrien hazkundeari loturiko beharrizanak ere, aintzat hartuta Familien Batez Besteko Tamaina murrizteko eta pertsona nahiz guraso bakarreko familiak sortzeko joera gero eta handiagoa dagoela. Xede horretarako, udalerrien Planeamenduaren berriztapena egiterakoan, LZPk adierazitako kuantifikazioa egokitzeko aukera izango dute.
3. LAAk sustaturiko Oreka Estrategiari erantzunez, LZP honetan ezarritako Lurralde Ereduek Kanpoko Berroreka faktore bat jasotzen du bere kuantifikazioan, beste eskualde egitura batzuetako biztanleak hartze aldera, gehienbat, Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egituratik eta alboko Deba Beheko Eskualde Egituratik etorritakoak, Durangoko Eskualde Egiturari hazkunde demografikoa dakarkiona.

3. ATALA. 16 URTEKO ALDIRAKO EREDUAREN ESPARRU-PROPOSAMENA

76. artikulua. 16 urteko aldirako Esparru Proposamena.

LZPk aurreikusitako Ereduen arabera, 16 urteko berrizantarako kalkulua egin da, LZP guztien erreferentziako esparrua dena, bai eta, 8 urteko aldikora egindako egokitzapena ere.

77. artikulua. Egoitza Ezarkuntzen Lurralde Ereduen Kalkulua.

1. Kalkuluko metodoa egoitza-beharrizanei loturiko osagai hauen batuketan oinarritzen da:
 - Ereduen Hazkunde Hautakorra (A), izaera jakina eta loteslea duena.

- Barruko Berroreka (B), izaera jakina eta loteslea duena.
- Beharrizan Endogenoak (C), biztanleengan eta 2008ko familien batez besteko tamainan oinarrituz egindako kalkulua, eta 0,03ko familien batez besteko tamainaren urteko murriztapena loteslea da.
- Bigarren Egoitza (D), izaera jakina eta loteslea duena.

78. artikulua. Ereduearen Hazkunde Hautakorra. A osagaia.

1. Adierazitako aldagaien ebaluazioarekin eta azterketarekin bat etorritik, baita Bilbo Metropolitarrerako LZPren biztanleria-barreiadurako estrategien ondoriozko inplikazioekin bat etorritik ere, eta LAAk gaiari buruz ezarritakoaren arabera, Durangoko Eskualde Egiturari 600 etxebizitza esleitu zaizkio.
2. Durangoko Eskualde Egituraren Ereduan ezarritakoaren arabera, mugakidea den Deba Beheko Eskualde Egituratik iritsitakoentzat beste 60 etxebizitza egin daitezke.
3. Hazkunde hautakor edo kanpoko berroreka hori loteslea da eta adierazitako osagai exogenoa osatzen du; etxebizitza kopuruan adierazten da, IV. Eranskinean ("Ereduko etxebizitzaren kuantifikazioa, 16 urteko aldirako Esparru Proposamenean") jasotako taularen osagaitzat.

79. artikulua. Barruko Berroreka. B osagaia.

1. B osagaia Eskualde Egiturako etxebizitza-beharrizanaren barruko berrerekari dagokiona da. Barruko berroreka gertatuko litzateke udal-mugarrean lurzoru nahikorik ez duten udalerrietako etxebizitza-eskariak birkokatzean, beharrizanaren gaineko hanpatze-koefizienteen erabilpenetik ondorioztaturiko gehieneko eta gutxienezko eskaintzak proposatzeko. Teorian, eskari horri aurre egiteko gai diren lurzoru-soberakina duten udalerrietan ez da ezintasun hori gertatuko.
2. Durangoko Eskualde Egituraren kasuan, lurzoru erabilgarriari eta horien ezaugarri naturalei buruz egindako ikerketek adierazitakoaren arabera, esan daitezke Eskualdearen barruko udalerririk bakoitzak harrera-gaitasun nahikoa duela bere beharrizanei erantzuna emateko, eta Barruko Berrorekaren B osagaiari balio nulua edo zeroren bestekoa ematen zaio. Hala eta guztiz ere, baliteke salbuespenezko kasu batzuetan nekez iristea gehieneko eskaintzara.

80. artikulua. Beharrizan Endogenoak. C osagaia.

1. C osagaiak Eskualde Egitura osatzen duten udalerrien beharrizan endogenoak islatzen ditu, eta etxebizitza-beharrizanaren hazkundeak zehazten du; hazkunde hori, berriz, hurrengo urteotan familien batez besteko tamainak (FBT) izango duen murriztapenerako joeraren eraginezkoa da. Horrenbestez, LZP honen hipotesia mantendu arren (Planaren indarraldian beharrezko joera duten udalerrien biztanle kopuruaren galera saihesteara), edo biztanle kopura murriztu egiten bada ere, etxebizitza-eskaria gero eta handiagoa izango da.

2. C osagaiaren 16 urteko aldirako kalkulua egiteko, Estatistikako Institutu Nazionalak emandako 2008. urteari buruzko datuak hartu dira iturritzat, Plana idazteko unean, erabiltzeko moduko azken informazioa baitzen, eta 0,48ko familien batez besteko tamainaren murriztapena zen aldi horretan.
3. C osagaiaren erantzunak honako formula hau aplikatuta lortu dira.

$$C = B/(FBT-0.48) - B/FBT$$

Formula horretan, B eta FBT biztanleria eta familien batez besteko tamaina dira, 2008ean.

4. Honako LZP honek denbora-une jakin baterako kalkuluak egin eta 16 urteko aldirako biztanleen beharizanak aztertzen ditu, Planaren denbora-epemuga dena. Hala ere, azpimarratu behar da hazkunde endogenoa metodologian soilik loteslea dela, izan ere, Planeamenduaren berriztapena egiterakoan, udal-planeamendua arduratuko da kalkulu zehatza egiteaz, datu eguneratuak edukita.

Dena den, etorkizunerako proiektioari dagokionez, 0,03ko Familien Batez Besteko Tamainaren urteko murriztapenaren hipotesia loteslea izango da, beraz, murrizketa osoa izango da udal-planeamenduak kalkulatuak aurreikuspeneko epealdia edo epemuga aipatu koefizienteaz biderkatzearen emaitza.

5. C osagaiaren beharizan endogenoa IV. Eranskinean jasotako taulako ("Ereduko etxebizitzaren kuantifikazioa, 16 urteko aldirako Esparru Proposamenean") etxebizitza kopuruan adierazten da.

81. artikulua. Bigarren Egoitza. D osagaia.

1. Eskualde Egiturako guneen hiri-izaera indartu nahi duen Lurralde Ereduaren arabera, bigarren egoitza edukitzeko eskaintza berezia planteatzea ez da bidezkoa, eta egin beharrekoa, izan ere, hiriguneetan ostatuak aukera indartzea eta landa-turismoa garatzea da, lehendik dauden eraikinetan.
2. Bigarren etxebizitzaren eskaria, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailaren iritzien arabera, nulua da, Durangoko Eskualde Egitura ez baita egoitzako turismo-helburutzat hartzen.

82. artikulua. 16 urteko esparru-proposameneko Ereduko Etxebizitzaren kuantifikazioa.

1. A, B, C eta D osagaien batuketan, izatez ere, LZPko Ereduan ezarritako etxebizitza kopuru garbiaren kuantifikazioa da. A, B eta D osagaiak lotesleak izan arren, ondoriozko zenbatekoa, osteraz, C osagaiaren kalkulua berriro kalkulatu behar delako nahitaez, xede horretarako ezarri den metodologia loteslea erabiliz.
2. Udal-planeamenduak ziurtatu behar du Ezarkuntzen Lurralde Ereduan xedatutakoa aplikatuz ondorioztaturiko etxebizitza-zenbatekoaren existentzia, lehentasunez, azaldu diren estrategiak erabiliz. Beste batzuen artean, honako hauek ikusten dira: eraikitako ondarea optimizatzea, hutsik dagoen etxebizitzak mugitu eta oraingo eraikuntza birgaituz, edo indarreko Planeamenduan hutsik dagoen eta berriztapenaren ereduak sailkapenetik kanpo atera ez duen lurzorua birdentsifikatzeko jarduketak posibleak. Hori guztia 2/2006 Legean ezarritako gutxienezko eraikigarritasun-irizpideen arabera.

3. LZPren indarraldian aurreikusitako etxebizitza kopuru garbiaren zenbatekoa IV. Eranskineko taulan (“Ereduko etxebizitzaren kuantifikazioa, 16 urteko aldirako Esparru Proposamenean”) jasota dago, osagaien izaera artikulua honen 1. puntuari adierazitakoa delarik.

4. ATALA. 8 URTEKO ALDIRAKO EREDUA

83. artikulua. 8 urteko aldirako eredua.

1. Planeamendu Orokorra berrikustatzen duen udalerrri bakoitzak, egin ere, bere eredu-etxebizitzak kalkulatu beharko ditu egitامuan ezarritako aldirako, LZP honetan jasotakoa oinarritzat harturik.
2. LZPk eskaintzen dizkigun Esparru Proposameneko tauletan, 8 urteko aldira egokitzeko aukera ematen duen metodoa dago. Aldi horretarako etxebizitza kopurua kalkulatzeko, Esparru Proposamenearen kasuan bezala, hurrengo osagai hauen baturan ikusiko dugu:
 - Ereduaren Hazkunde Hautakorra (A), izaera jakina eta loteslea duena.
 - Barruko Berrorrea (B), izaera jakina eta loteslea duena.
 - Beharizan Endogenoak (C) Udal Planeamendura egokitzeko modukoa, (0,03ko familien batez besteko tamainaren urteko murriztapena loteslea da).
 - Bigarren Egoitza (D), izaera jakina eta loteslea duena.
3. Hazkunde endogenoa (C) kalkulatzeko, Familien Batez Besteko Tamainaren eboluzioa hartu behar da oinarritzat, horrenbestez, modu loteslean, urtean 0,03ko etengabeko beherakadaren hipotesia planteatzen da. Planeamenduaren berrikuspenera egiten duten udalerriek berrikuspeneraren urteko biztanle kopura eta familien batez besteko tamainaren eboluzioa hartuko dira abiapuntutzat, eta 8 urteko aldirako murriztapena 0,24koa da.

8 urteko osagaia honako formula hau aplikatuta lortzen da:

$$C = B / (FBT - 0.24) - B / FBT$$

Formula horretan, B eta FBT biztanleria eta familien batez besteko tamaina dira, planeamenduaren berrikuspeneraren urtean.

$$C = P / (TMF - 0.24) - P / TMF$$

4. 8 urteko aldirako aurreikusitako etxebizitzaren zenbatekoa V. eranskineko “8 urteko aldirako Eredu-etxebizitzaren behin behineko kuantifikazioa” taulan adierazten dira. A, B eta D osagaiak lotesleak dira, alabaina, C osagaia berriro kalkulatu beharra dago, aurretiko paragrafoan azaldutako metodologia loteslea oinarritzat hartuta.

84. artikulua. Ereduaren Hazkunde Hautakorra. A osagaia.

1. Osagai hau loteslea da eta balio zehaztuta eta iraunkorra dauka; balio hori, 8 urteko aldirako, LZPren 16 urteko aldirako ezarritako lurralde-orekako osagaitzat ezarritako etxebizitza-zenbakiaren erdia da.

- Hazkunde hautakor edo kanpoko berrorera hori loteslea da eta adierazitako osagai exogenoa osatzen du; V. Eranskinetako taulan ("8 urteko aldirako Eredu-etxebizitzaren behin behineko kuantifikazioa"). jasota dago, etxebizitza kopuruari dagokionez.

85. artikulua. Barruko Berrorera. B osagaia.

79. artikuluan adierazitakoaren arabera, B osagaia 0 da udalerrri guztietan.

86. artikulua. Beharrian Endogenoa. C osagaia.

Hazkunde endogenoa (C) kalkulatzeko, Familien Batez Besteko Tamainaren eboluzioa hartu behar da oinarritzat, horrenbestez, modu loteslean, urtean 0,03ko etengabeko beherakadaren hipotesia planteatzen da. Bere planeamendua ikuskatzen duen udalerrri bakoitzak ikuskapena egiteko urteko biztanle kopuruan eta FBTn oinarrituko da, eta biztanle kopuru horren galera sahiestu egiten dela joko du; eta Familien Batez Besteko Tamainaren urteko murriztapena 0,03koa da, beraz, murrizketa osoa izango da udal-planeamenduak kalkulatuak aurreikuspeneko epealdia edo epemuga aipatu koefizienteaz biderkatzearen emaitza..

1. Planeamenduaren berrikuspena egiten duten udalerriek C osagaiaren kalkulua egingo du, hurrengo formula hau aplikaturik:

$$C = B / (FBT - 0.03 \times n) - B / FBT$$

Formula horretan B eta FBT biztanleria eta familien batez besteko tamaina dira, berrikuspenaren urtean, eta n, Udal Planeamenduaren aplikatze-aldiaren urte kopura.

2. LZPk ez ditu lotesletzat hartzen Eranskinetako taulan adierazitako C osagaitzat hartutako zenbatekoak, baina bai hori kalkulatzeko metodoa, eta FBTk urte baterako izango duen murriztapenak 0,03ko balio iraunkorra izango du. Adierazitako formula aplikatzeko, aintzat hartu behar da, planeamendu orokorreko tresnak tramitatu baino lehen, informazio erabilgarria benetako datuetara (halakorik egonez gero) egokitu behar dela, eta beraz, emaitzak berriro kalkulatu dira.

87. artikulua. Bigarren Egoitza. D osagaia.

1. Bigarren Egoitza Lurralde Ereduaren arabera da, horrenbestez, zenbatekoa, kanpoko osagaiarekin eta barruko Berrorerekin gertatzen den bezala, izaera jakina eta loteslea du.
2. Bigarren egoitzaren eskaria, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailaren iritzien arabera, nulua da, Durangoko LZP ez baita egoitzako turismo-helburutzat hartzen.

88. artikulua. 8 urteko aldirako Eredu-etxebizitzaren kuantifikazioa

1. 8 urteko udal aplikazioan etxebizitza kopurua, izan ere, 8 urtera kalkulaturiko A, B, C eta D osagaiak batzearen ondoriozkoa izango da.
2. A, B eta D osagaiak zehaztuak eta lotesleak dira, eta C osagaia berriro kalkulatu beharko da udalerrri bakoitzaren planeamendu orokorra ikuskatzen denean, 86. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.
3. Udal Planeamenduak lehentasunen oinarritzko ordena zehaztu eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu, bidezko eremuetarako; Udal Planeamenduari dagokion aldirako Eredu-etxebizitzaren zenbatekoaren erabilgarritasuna eta betearaztea lortu ahal izateko.
4. 8 urteko aldirako aurreikusitako etxebizitza kopuru garbiaren zenbatekoa "8 urteko aldirako Eredu-etxebizitzaren behin behineko kuantifikazioa" V. eranskineko taulan adierazten da.

II. KAPITULUA: ESKAINTZAREN MUGAK

1. ATALA. LZP-REN ESPARRU-PROPOSAMENA

89. artikulua.LZPren Esparru Proposamena.

1. LZPren planteamendu metodologikoaren arabera, hanpatze-koefizienteak, gehienekoa eta gutxienekoa, aplikagarriak dira ereduaren oinarrituz kalkulaturiko etxebizitza kopuru garbia kalkulatu ondoren, hori egoitza-lurzoruaren eskaintzara egokitzeko unean. Helburua ez da aurreikusitako etxebizitza kopurua handitzea, lurzoruaren aurreikuspen nahiko lasaiak egitea baizik, behar diren etxebizitza guztiak eraiki ahal izateko, hiri-garapeneko prozesuak zurrunik izan daitezkeen arren.
2. 16 urteko aldirako garapena planteatuta, honako hanpatze-koefiziente hauek aplikatu dira:
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioa, antolamendurik gabeko garapenik ez sortzeko, lurzoruaren gehiegizko kalifikazioaren ondorioz.
Horrek ezin du gainditu hamasei urteko aldirako etxebizitza kopuru garbia, kopuru hori 2ko koefizientearekin biderkatuta, zeharka eskatuta EAeko Lurralde Antolamenduko Batzordearen legezko txostenetan.
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioa, kalifikaturiko lurzoruaren urritasuna ekiditeko, planeamenduak gutxieneko bat bermatu beharko baitu.
Hamasei urteko aldirako etxebizitza kopuru garbia bete beharko du, hori 1,25eko koefizientearekin biderkatuta, LZPk proposatutakoa.
3. Udalek, duten garapen-ereduaren arabera, muga horien barruko kopuru handiagoa edo txikiagoa aukeratuko dute, udal-planeamenduaren aurreikuspenak kuantifikatzeko.
4. Edonola ere, gogoraziko dugu harrera-gaitasuna muga-eremu berrien gaitasunaren beraren emaitza dela, horrez gain, hutsik dagoen etxebizitza mugitzearen eta oraingo eraikuntza birgaitzearen emaitza dira, bai eta, indarrean dagoen Planeamendua birdentsifikatzeko eta berrikuspenaren ereduak sailkapenetik atera ez dituen jarduketara posibleen emaitza ere, gutxienez, 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasun-irizpideen arabera.

5. Durangon, lurzoru urbanizagarriak eta barruko berrikuntzako hiri-lurzoruak erreferentziatzat hartuta (planeamenduan orain ezarrita dauden lurzoruak), hazkunde berrietarako lurzoruei gehitu beharreko etxebizitzaren hazkunderako ikuskapenik egin ezean, gerta daiteke 16 urteko aldirako eskaintzaren gehieneko muga aplikagarria ez izatea (ereduaren zenbatespenak 2ko koefizientearekin biderkatzearen eraginez ondorioztaturiko eskaintza); hala ere, bermatu egiten da ereduaren aurreikuspenei 1,25eko gutxienez (16 urteko aldirako) gorakoa den hanpatze-koefizientea aplikatzearen ondoriozko eskaintza.

Udalerrian merkatuko balizko zurruntasunak ekiditeko lasaiera, horrenbestez, Eskualde Egiturako gainko udalerrietan baino txikiagoa da, ereduko etxebizitza kopuru garbia gauzatzeko orduan, eta beti dago bermatuta ereduaren araberako beharrezko etxebizitza kopurua, 1,25eko gutxienezko koefizientearekin hanpatuta.
6. Hala ere, udalerrri horretan gutxienezko hanpatze-koefizientea aplikatzea aholkatzen da, gutxienez, 1,5 eta 16 urteko bitartekoa, gainerako udalerrietarako orokorki adierazitako gutxienezko baina handiagoa, Durango udalerrria eskualde-buru gisa indartze aldera.
7. 16 urteko aldirako etxebizitza-eskaintzatik ondorioztatutako taula Eskualde Egituran VI. ERANSKINEAN jasota dago ("Etxebizitza-eskaintzaren mugak, 16 urteko aldirako Esparru Proposamenaren").

2. ATALA. UDAL APLIKAZIOA

90. artikulua. 8 urteko aldirako eskaintzaren mugak aplikatzea

1. Esparru Proposamenaren eskaintzaren mugak Udal Planeamenduari aplikatu ahal izateko, esparru hori Planeamenduko benetako aldira egokitu behar da.
2. 8 urteko aldirako gehieneko eta gutxienezko balioak aintzat hartuta, udalerrri bakoitzak (bitarte horien barruan) bere hazkunde-eredua erabakitzeko, honako hauek dira:
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren benetako balioak ezin du gainditu eredu-etxebizitza kopurua, hori 3ko koefizientearekin hanpatuta.
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gutxienezko balioak bete egin behar ditu eredu-etxebizitza kopurua, hori 1,5eko koefizientearekin hanpatuta.
3. Arestian adierazi bezala, Durangoko udalerrrian gutxienezko hanpatze-koefizientea aplikatzea aholkatzen da, gutxienez, 2 eta 8 urteko bitartekoa, gainerako udalerrrietarako orokorki adierazitako gutxienezko baina handiagoa.
4. "8 urteko aldirako behin behineko etxebizitza-eskaintzaren mugak", VII. eranskineko taula da aipatu faktoreak lau osagaien baturara aplikatzearen emaitza, zeinetan C, aldakorra den bakarra, oraingo uneari dagokion.

III. KAPITULUA: EGOITZA EZARKUNTZEN LURRALDE EREDUAREN KUDEAKETA

1. ATALA. ERAIKITAKO ETA URBANIZATURIKO ONDAREAREN OPTIMIZAZIOA, ETXEBIZITZAREN IKUSPEGITIK

91. artikulua. *Egoitza Ezarkuntzen Lurralde Ereduen Kudeaketa.*

1. Garatu beharreko etxebizitzak ereduari ezarritakoaren arabera dira, eta ez eskaintakoak, horien eginkizuna itotzerik ez egotea baita.
2. LZPk lurzoru berriaren kontsumoa geldiarazi nahi du, azken urteotako joera iraulita. Horretarako, antzemandako beharriak, alde batetik eta lehentasunez, eraikitako ondarearen optimizazioarekin bete behar dira, hutsik dagoen etxebizitza mugitzearen eta oraingo eraikuntza birgaitzearen bidez, bai eta, indarrean dagoen Planeamendua birdentsifikatzeko eta berrikuspenaren ereduak sailkapenetik atera ez dituen jarduketara posibleen bidez ere, gutxienez, 2/2006 Legean ezarritako gutxienezko eraikigarritasun-irizpideen arabera eta, beste aldetik, lurzoru berriaren gehiketarekin LZP honetan zehaztutako okupazioaren muga-eremuen barruan, beharrezkoa izango balitz oraindik ere.

92. artikulua. *Eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa.*

1. Honako dokumentu honen helburua izan ere, finkaturiko hiri-lurzoruen eta eraikitako ondarearen gaineko esku hartze aktiboari lehentasuna ematea da, oraingo egoitzako higiezinaren parkea suspertzeko eta, horrela, horren baldintzak nahiz onurak eraikuntza berriko etxebizitzak dituztenekin berdintzeko; hori eginez, egoitza-eremua handitu eta, hortaz, lurzoruaren kontsumitzeko beharriak txikiagoak dago.
2. Eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa, bestalde, lehentasunezko jarduketara-ildo hauetan gauzatuko dira:
 - Hutsik dagoen eta errentako etxebizitzan esku hartzeko mekanismoak artikulatzea.
 - Etxebizitza birgaitzea, lehendik dagoen eraikina kontserbatzea eta hobetzea.
 - Tipologiak aldatzea eta oraingo eskarien arabera diren modulu espazialekara egokitzea.

93. artikulua. *Hutsik dagoen eta errentako etxebizitzan esku hartzeko mekanismoak artikulatzea.*

1. Hutsik dagoen etxebizitzan esku hartzearen eraginezko etxebizitza okupagarrien gaitasuna berez ez da eskaintza eraginkorra eta erabilgarria; izan ere, esku hartzeko mekanismoak behar ditu, etxebizitza hori etxebizitza-merkatuan sartzeko eta eskaintza bideragarria izateko.
2. Hutsik dagoen etxebizitzari dagokionez, kontuan hartzekoa da dagoen arautegia, honako hauek hartzen ditu: 2003ko apirilaren 22ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena, "Etxebizitza Hutsaren Programa" lagatzeko baldintzei eta esleipen-prozedurei buruzkoa eta 2004ko azaroaren 26ko Agindua, aurrekoa aldatzen duena.

3. Alokairua sustatu eta norberaren etxebizitza publikoko ondarea kudeatzeko irizpideari dagokionez, bidezko da, jabetzaren edo alokairuaren araubideen tipologiei dagokienez, udal-planeamenduak biztanleen beharriaz buruzko azterlana egin eta dagokion eran jokatzea.
4. Adierazi beharra dago LZPk bere gain hartzen dituela Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 3an onartutako Etxebizitza Bideratzeko 2006-2009 aldirako Planean jasotako irizpideak, Lurzoruari buruzko Legean arautzen ez diren alderdiak jasotzen dituen, eta errentako etxebizitza babestuen parkea etengabe areagotuz joateko planteamendua egin du, dela errentako etxebizitza babestuen sustapena indartuz, dela etxebizitza erabiliak errenta babestuan alokatzera bideratutako neurriak sustatuz.

94. artikulua.Etxebizitzak birgaitzea eta oraingo eraikina kontserbatzea eta hobetzea.

1. Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak urbanizaturiko eta eraikitako ondarea kontserbatzeko nahiz hobetzeko jasotzen dituen estrategien barruan, Durangoko Eskualde Egituran hiru Birgaitze Eremu proposatzen dira, dokumentazio grafikoan jaso direnak: Durangoko Hirigune Historikoa, Elorrioko Hirigune Historikoa eta Berrizeko Errotatxo auzoa, lehenengo biak Birgaitze Integratuko Eremutzat hartzen dira eta azkena, aldiz, Narriaturiko Eremutzat.
2. LZP honen dokumentazio grafikoan eta idatzian jasota dauden eremu horiek ez ezik, udal-planeamenduak beste eremu batzuk ere mugatu ahal izango ditu, horiek ere birgaitzeko.

95. artikulua.Eraikuntza-tipologien eraldaketa.

1. Familien batez besteko tamaina nabarmen urritu da azken urteotan, eta argi dago hurrengo urteotan beheranzko joera horrek aurrera jarraituko duela. Egoera hori ikusita, esan daiteke tamaina txikiagoko etxebizitza kopuru handiagoa beharko dela, eta, horri erantzuna emateko, lehendik dauden etxebizitzak eta etxebizitza berriak beharko dira.
2. Eraikinen behealdeak etxebizitzatzat erabiltzeari dagokionez, bereziki, kale nagusietako eta finkaturiko hiriguneetako eraikuntzetan, ez da jarduketa positibotzat hartzen. Izan ere, eredu mistoaren arabera (jarduera ekonomikoa eta egoitza-espazioan integratzen dituen eredu), ez da komeni jarduera ekonomikoa hiriguneen kanpoaldera eramatea; izan ere, azken horren ehuneko egokia bermatu behar da, merkataritza-erabileretarako ez ezik, hirugarren sektoreko gainerako jarduera ekonomiko guztietarako, zerbitzuetarako edo etxebizitzarekin bateragarria den industrietarako ere, bai eta, zuzkidura publikoetarako eta pribatu etarako ere.

2. ATALA. PLANEAMENDUAREN GAITASUNAREN OPTIMIZAZIOA

96. artikulua.Udal-planeamenduaren Gaitasunaren Optimizazioa.

1. Berriro aztertu behar da indarreko planeamenduren gaitasunaren optimizazioa, LZPn eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritako estrategiaren arabera, eta lehentasuna emango zaio lehendik urbanizaturiko eremuak erabiltzeari, lurzoru berriak kolonizatu baino lehen.
2. EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean sartzean eta bertako Bigarren Xedapen Iragankorra aplikatzean, plan orokorretan eta behin betiko onetsita dauden arau subsidiarioetan aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasunek legean ezarritako gehieneko eta gutxieneko mugak betetzen ez badituzte, automatikoki muga horietara egokituak geratuko dira, legeak hala aginduta, baldin eta aipaturiko legea indarrean sartzeko egunean antolamendu-eremuaren antolamendua behin betiko onetsita ez badago. Horrenbestez, oraingo planeamenduaren gaitasuna apur bat handitu egin liteke, ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna eta dagokion birdentsifikazioa aplikatuta. Dentsitatea, behintzat, LZPn ezarritako gutxieneko dentsitate-tarteari egokituko zaio.
3. Udal bakoitzak ingurura egokitu behar du 2/2006 Legean mugaturiko gehieneko eraikigarritasuna, udalerraren nortasuna mantentzeko.
4. Udal Planeamenduaren ikuskapenak bere eredia berretsi edo berrikusteko aukera du, bai eta, indarreko Planeamenduaren eremuak desklasifikatu edo deskalifikatzeko aukera ere.
5. Udal Planeamenduak, 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasunak eta ezarritako dentsitate-tarteetarako zehaztu den gutxieneko dentsitatea aplikatutakoan, Planeamenduaren Gaitasunaren Optimizazioa sustatuko du. Alabaina, LZP honetatik baimendu den gutxieneko eraikigarritasunaren inguruko kezka adierazi nahi da, izan ere, baliteke, bolumenari dagokionez, ezarkuntzaren inguruarekiko ezegokia izatea, hortaz, nahi ez diren inpaktuak saihesteko ahaleginak egin behar dira.

3. ATALA. OKUPAZIOAREN MUGA EREMUAK

97. artikulua. Okupazioaren muga-eremuak.

1. Okupazioaren muga-eremuak, hirigintza-garapen berriei dagokienez, Lurralde Ereduaren Planoan adierazitako lurralde-eremuak dira; horietan, udal-planeamenduko agiriek hurrengo 16 urteotarako proposaturiko hazkundera egin daitezke, eta horietatik kanpo ezin da hirigintza-aldaketarik egin.
2. Okupazioaren muga-eremuak, izan ere, hurrengo urteotako hazkundera mugatzeko erabiltzen diren azalerak dira. Eremu horien ezaugarriak ondoren adierazita daude:
 - Ez dira egokitzen ezarritako eskaintzaren gehieneko mugetara, eta udalei aukerako okupazioak egiteko aukera ematen diete, adierazitako eremuen barruan; hau da, lurzoru berriak aukeratzean nolabaiteko lasaiera dago eta, hortaz, berez ezin dira oso-osorik okupatu.
 - Beharrezkoa izanez gero, sistema orokorren sareko zuzkidura publikoak edukitzeko gaitasuna dute, hain zuzen ere, eremu askeak, taldekoekipamenduak edo, bestela, babesturiko egoitza-zuzkidura.
 - Eremuak ezarri ondoren, okupazioari aukerak emateko, gerta daiteke, eraikitako eta urbanizaturiko ondarean egindako jarduketan ondorioz (Eskualde Egituran lurzoru-kontsumoa mugatzeko), eremu horiek okupatu behar ez izatea.

- Baldin eta okupazioaren muga-eremuetan azalerarik okupatzen ez bada, edo zati bakar batean bada ere, Udal Planeamenduak dagokion planoko inguru fisikoaren kategoriak ezarriko dizkio okupatu gabeko azalerari.
 - Kokatzea finkaturiko eremuen edo garatu beharrekoen ondokoak planteatu dira, LZP idazten denean indarren dagoen udal-planeamenduan ezarritakoaren arabera; saihestu egingo dira isolatuta dauden eta oraingo ereduarekiko loturarik ez duten hirigintzak.
 - Baldin eta okupazioaren muga-eremuetan azalerarik okupatzen ez bada, edo zati bakar batean bada ere, okupatu gabeko azalera Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen IV. tituluaren I. kapituluko II. atalean aurreikusitako udalen lurzoru-erreserbak sortzen lagundu dezake.
3. Beste alde batetik, 6. zenbakiko Antolamendu Planoan (“Lurralde Eremua”) adierazitako eremuak, lan- eskala aldatzean, egokitu eta hobeto zehaztu ahal dira, eremuaren errealitate fisikoa kontuan hartuta. Egokitze horren eraginez, aldaketa txikiak egin daitezke LZPko grafikoetan adierazitako azalera, horiek honako honetara egokitzeko: lerrokaduretara, oraingo eraikinetara, lurraldearen topografiara, interes naturala edo eraikia duten elementuen zaintzara, bide-egituraren egokitzapenera, etab.

Dena den, adierazi beharra dago, gaur egun, euskarri digital arloko tresnek egokitzapen horietan laguntzen dutela, aipatu lan-eskalari dagokionez, askoz ere zehatzagoak direlako.

4. Okupazioaren egokitasun-irizpide hauek erabili dira, okupazioaren muga-eremuak zehazteko orduan:
- %15etik beherako maldak dituzten lurzoruak, azalera handiagoa eta batez besteko malda txikiagoa duten eremuen barruko azalera txikiak direnean izan ezik.
 - Uholde-orbanen eraginpean ez dauden lurzoruak edozein birgeratze-alditan, 10, 100 eta 500 urtekoak, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak egindako uholde-arriskuaren kartografiarekin bat etorrita.
 - Babes Bereziko Lurzoru eta Gainazaleko Uren Babes kategorietan sartuta ez dauden lurzoruak.
 - Egoitzen hirigintza-garapenen kasuan, Egoitza Ezarkuntzetarako “okupazioaren muga-eremuak” bezala grafiatu dagoen azalera okupa daiteke soilik,

5. EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordearen legezko txostenari erantsitako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzaren txostenarekin bat datozen alderdi hauek adierazten dira:

Udal-planeamenduek, salbuespen gisa, duden hirigintza-garapenetako guneetarako proposamenak egin ahal izango dituzte PZP honetako okupazioaren muga-eremuetatik kanpo. Garapenerako gune berri horiek ondorengo baldintzatzaile hauek bete beharko dituzte:

- Proposatutako mugaketak interes publiko eta sozialeko jarduerari buruzko justifikazio zorrotza eta LZP honek diseinatutako Lurralde Ereduarekin lotura izan beharko ditu, eta, hirigintza-zama gisa, sektore horien betearaztean sortu daitezkeen kalteak direla eta, eragin ditzakeen lurralde-inpaktuei eta euren neurri zuzentzaileei buruzko azterlana ere aurkeztu beharko du.
- Proposatutako mugaketa finkaturiko eremuen ondokoa izango da, eta oraingo guneak erabiliko ditu soilik, horiekin espazio-jarraipenaren, espazio-integrazioaren eta azpiegituren inguruko erlazioak erabakiko ditu.

- Lurzoru berriek ez dute ezarritako egoitza kopurua handitzerik eragingo, ezta LZP honek proposatutako gehieneko okupazio-azalera ere.
- Planeamendu-eremu horien mugaketak beteko ditu artikuluko honetako 4. puntuan jasotako egokitasun-irizpideak, gehieneko malda onargarriari edo uholde-arriskupeko lurzoru eta, natura- edo paisaia-balioak direla eta, babespeko lurzoru salbuetsiei buruzkoak, aldi berean, euren irisgarritasuna bermatuta izanik.

IV. KAPITULUA: EGOITZA EREDUAREN EZAUGARRIAK

1. ATALA. DENTSITATEAK ETA TIPOLOGIAK

98. artikulua. Dentsitate-tarteak

1. Aintzat hartu behar dira EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak baldintzaturiko gutxieneko eraikigarritasunak: 0,4 m²/m², irizpide orokortzat; 0,3 m²/m², %15etik gorako malda duten lurzoruetan; 0,25 m²/m² babes motaren baten mendeko etxebizitzarako lurzoru-erreserbarik egin behar ez duten udalerrien kasuan (Durangoko Eskualde Egituran, Garai, Izurtza, Mañaria eta Atxondo).
2. Egoitza-erabilera orokorreko lurzoru guztiek, gutxienez, egoitzarako eraikitako azaleraren %10eko erreserba izango dute, jarduera ekonomikoak garatzeko; horien artean, industria-erabilera bateragarria ez ezik, beste batzuk ere egon daitezke, esate baterako, merkataritzako erabilera tertziarioa, bulego-erabilera eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk (adibidez, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola, kultura eta antzeko beste zenbait).
3. "Okupazioaren muga-eremua" gisa identifikaturiko mugaketa bakoitzari, dentsitateen (A eta B) urkila esleitzen zaio; hori gehieneko eta gutxieneko baten artekoa da, horrela, bitarte horretan Planeamenduak egokiena aukeratuko du, eta atal honetan etxebizitza bakoitzeko batez besteko eraikitako azalera bat gomendatzen du, udal-planeamenduak hautatzen duen dentsitatearen arabera.

Honako LZP honen lurralde-ereduak dentsitate-tarte ertain eta altuen aldeko apustu osoa egiten du. Dagozkien eraikigarritasunak hartzen den batez besteko etxebizitza-azalera dentsitatei aplikatzearen emaitza dira, horrenbestez, eraikigarritasunak inguruarekin erlazionaturik egotea da LZP honen irizpidea, udalerrien fisionomia karakteristikoaren kontserbazioarekin eta oraingo guneen proposamen berrien integrazioarekin bateragarriak izan daitezen.

- A tartearen barruan (Dentsitate Ertaina), hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako tarte sartzan da, hektarea bakoitzeko 50 etxebizitzako gehieneko mugaraino. Okupazioaren muga-eremuei sarritan esleitzen zaie, dentsitaterik egokiena baita Eskualde Egiturako udalerririk gehienentzat, euren morfologia eta hiri-tipologiak kontuan hartuta.
 - a. Tarte horren goiko muga (hektarea bakoitzeko 50 etxebizitza), eremuari loturiko etxebizitza-azalera eraikia ez litzatake 100 m²-tik gorakoa izan beharko.

- b. Gainerako tartean, eremuaren egoitza-azalera eraiki osoak ez luke gainditu beharko aurretiko parametroa aplikatzearen emaitza, hau da, 100 m² azalera eraikia eta hektarea bakoitzeko 50 etxebizitza.
 - c. Eskualde Egituran, egoitzako azalera eraikia %10ean handituko da, etxebizitzarekin edota ekipamendu pribatuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kokatzeko.
- B tartean (Dentsitate Altua), hektarea bakoitzeko 50 etxebizitzatik gorako tartea sartzen da, hektareako 75 etxebizitzako mugarekin; halako dentsitateak dituen hiri-egitura finkatu bati jarraipena emanaz dauden okupazioaren muga-eremuei esleitzen zaie, edo aintzat hartzen dira aukera-arrazoiak, neurri batean okupaturik dauden lurzoruetan edo lurzoru gutxi dagoenean.
 - a. Tarte horren goiko muga (hektareako 75 etxebizitza), eremuari loturiko etxebizitza bakoitzeko eraikitako batez besteko azalera ez litzateke 90 m²-tik gorakoa izan beharko.
 - b. Gainerako tartean, eremuaren egoitza-azalera eraiki osoak ez luke gainditu beharko aurretiko parametroa aplikatzearen emaitza, hau da, 100 m² azalera eraikia eta hektarea bakoitzeko 50 etxebizitza.
 - c. Eskualde Egituran, egoitzako azalera eraikia %10ean handituko da, etxebizitzarekin edota ekipamendu pribatuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kokatzeko.
 - d. Amorebieta-Etxano eta Durangok dituzten hirigintza-ezaugarriak direla eta, hektareako 75 etxebizitza baino gehiago izan daitezke, eta 120 etxebizitzako mugara iritsi daiteke, hortaz, eraikigarritasunak ez luke gainditu beharko batez besteko 90 m²-ko etxebizitza-azalera dentsitateei aplikatzeagatik ondorioztatutakoa, horri %10 gehitzen zaio jarduera ekonomikoen edo/eta ekipamendu pribatuen kokapenerako.

99. artikulua.Egoitza-tipologiak.

1. Egoitza-tipologia bi irizpideren arabera aukeratuko da: Eskualde Egiturako eraikuntza-jarraibide tradizionalak errespetatzea eta trinkoa den nahiz lurzoru gutxi kontsumitzen duen garapen-eredua sustatzea.
2. Tipologia ahalik eta gehien egokitu behar da aplikaturiko eraikuntza-dentsitatera, eta, irizpide orokortzat, honako hauek gomendatzen dira:
 - Dentsitate Ertaineko zonan (A tartea): taldekoetxebizitzako tipologiaren erabilera, eta hori, oro har, 3-4 solairuko altuerekin garatu ahal da. Tipologia inguruan integratzen saiatu behar da.
 - Dentsitate Altuko zonetan (B tartea): dentsitate horretarako egokiak diren taldekoetxebizitzako tipologiaren erabilera; eraikuntza motak, tartearen dentsitate ertainaren kasuan, 5 solairuko altuera izan dezake, eta ingurura egokituta egongo da beti.

Amorebieta-Etxano eta Durangon hektareako 75 eta 120 etxebizitzaren bitarteko tartean eraikigarritasunaren solairu kopurua inguruko eraikinen kopurura egokitu beharko da.

2. ATALA. BABES PUBLIKOKO, BABESEKO ETA TASATURIKO ETXEBITZAK DURANGOKO ESKUALDE EGITURAN

100. artikulua. Babes publikoko araubideren baten mendean dauden etxebizitzak erreserba.

1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako biztanle kopuruaren gaintik, udalerriek babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzak garatzeko lurzoru-erreserbak ezarri behar dituzte: 3.000 biztanletik gorako udalerriak, baita hiri-lurzoruko 2.000 biztaletik gorako gune jarraituak dituzten udalerriak ere.
2. Durangoko Eskualde Egituran honako udalerrri hauek daude lehenengo kasuan: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio eta Iurreta, 3.000 biztanletik gorako udalerriak baitira. Aldiz, Garai, Izurtza, Mañaria eta Atxondo 3.000 biztanletik beherako udalerriak dira, eta ez dute 2.000 biztanletik gorako lurzoru-gune jarraiturik.
3. Zaldibar, ordea, bigarren kasuan dago, izan ere, 3.000 biztanletik gorako udalerrria ez bada ere, 2.000 biztanle baino gehiago ditu eta biztanlerik gehienak hiri-lurzoruan bizi dira, horrez gain, aipatu 2/2006 Legea garatzeko Premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuan jasotakoaren arabera, etxebizitza babestuaren estandarra aplikatzera behartuta dauden udalerrien zerrendan dago.
4. 20.000 biztanle edo gehiagoko udalerrietan zuzkidura-ostatueterako erreserbei dagokienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoa beteko da. Gaur egun Durangoko Eskualde Egituran Durango da 20.000 biztanleko muga gainditzen duen udalerririk bakarra.
5. Udaleko hirigintza-planeamenduak zehaztu egin behar du babes publikoko araubideren baten mendekoak diren etxebizitzarako lurzoru kalifikatuen erreserba; horri dagokienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 80. artikuluan adierazitako estandarrak eta zenbatekoa beteko dira:
 - Finkatu gabeko hiri-lurzoruan, horren betearazpena gehienbat egoitza-erabilerako jarduketa integratuen bidez egin nahi denean, egitamu orokorren eta egitamu berezien hirigintza-antolamenduak babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzarako kalifikatu beharko ditu, gutxienez, egoitza-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren hazkundearen %40 (lehendik gauzatutakoari dagokionez) gauzatzeko behar diren lurak. Ehuneko horretatik %20 araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko izango da, eta gainko %20 tasaturiko araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako.
 - Gehienbat egoitza-erabilera duen lurzoru urbanizagarrian, egitamu orokorren eta egitamu berezien hirigintza-antolamenduak babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzarako kalifikatu beharko ditu, gutxienez, egoitza-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren hazkundearen %75 (lehendik gauzatutakoari dagokionez) gauzatzeko behar diren lurak. Ehuneko horretatik %55 araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko izango da, eta gainkoa, %75era heldu arte, tasaturiko araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako.
 - Bi kasuetan, tasaturiko araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako onarturiko hirigintza-eraikigarritasuna ordeztu egin daiteke udalerriko etxebizitza tasatuekin, lege horretan ezarritakoaren arabera.

6. Lurzoru berezia edukitzea funtsezko faktorea da etxebizitzaren arloko jarduketak garatu ahal izateko. Horrela, udalek, udal-planeamenduaren bidez, garapeneko planeamendua egiteko nahiz onesteko eta lurzoruaren programazioa egiteko epeak finkatu behar dituzte, babeseko etxebizitzaren (babes publikoa edo pribatua duten etxebizitzak) eskariari erantzuna emateko.

101. artikulua. 3.000 biztanletik beherako udalerrriak.

1. 2/2006 Legeko 27.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, batez besteko hirigintza-eraikigarritasunaren %10eko lagapena lursail eraikigarrian gauzatu beharko da. Legeak babeseko etxebizitzarako lurzoru-erreserba egitera behartzen ez dituen udalerriek, baldin eta eremuan, sektorean edo egoitza-erabilera nagusia duen betearazpen unitatean helburu horretarako lurzoru-erreserbarik jasota ez badute, babes publikoko etxebizitzara bideratu beharko dituzte modu horretan lorturiko lursailak.
2. Indarreko legeriaren aplikazioaren eraginpean ez dauden udalerrri hauetan, komenigarria izango litzateke alokairu-araubideko etxebizitzaren parkea edukitzea, hori gehienetan salerosketakoa baino malguagoa baita. Helburua, izan ere, udalerriko lurzoru-ondarea sortzea da, baita Sustapen Publikoko Etxebizitza parkea egonkor mantentzea ere (hori aske ez bihurtzeko); halaber, azalera-eskubidea erabili eta, orokorrean, alokairua sustatu nahi da, bai lehendik dagoen etxebizitzan eta bai eraikiko den etxebizitzan, gazte-sektoreentzako egoitza-malgutasun handiagoa lortu ahal izateko. Udalerrri horietan, familia berriak eratzeko lurzoru-eskariak asistematikoak izaten dira, eta antolaturiko eskarian oinarrituz ebazten dira; garatzeko moduko jarduketak, berriz, inplikaturiko administrazioen arteko hitzarmenaren bidez artikulatu ahal dira.

3. ATALA: ZEHAZTAPENAK ETA IRIZPIDEAK

102. artikulua. Egoitza-ezarkuntzetarako gordetako lurzoruaren gaineko aplikazio-irizpideak

Egoitza Ezarkuntzetarako lurzorian lurralde-eredua ezartzeko, oro har, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Udal-planeamenduak aurreikusitako hirigintza-garapen berriek ez dituzte gaudituko okupazioaren mugak, LZP honen "Lurralde Eredua" planoan adierazitakoak, eta proposaturiko dentsitatea errespetatuko dute.
- Garapen-eremu bakoitzeko dentsitatea (hektarea bakoitzeko etxebizitza kopurua) egoitza-sektoreko azalerari berari buruzkoa da, eta okupazioaren muga-eremuek Sistema Orokorrak jasotzeko gaitasuna dutela jotzen da; kasu horretan, dentsitatea lurzoru-azalerari aplikatzen zaio, sistema orokorra baztertu ondoren.
- Egoitza-dentsitate ertaineko edo altuko egoitza-okupazioaren muga-eremu guztietan, dentsitatea hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzakoa denean, eremuaren egoitza-eraikigarritasuna %10ean handituko da, jarduera ekonomikoak kokatzeko; horien artean, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, hirugarren sektoreko beste batzuk ere egon daitezke, esate baterako, merkataritza-erabilera, bulegoa eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk (adibidez, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, kirola, kultura eta antzeko beste batzuk).

103. artikulua. Hiriko hazkunde- eta eraldaketa-prozesuak antolatzeko irizpideak

Hiriko hazkunde- eta eraldaketa-prozesuak antolatzeko oinarritzko irizpide hauek ematen dira, udal-planeamenduak aintzat hartzeko:

- Ekipamendu berriak jartzeko esku hartzeak garatzea, dentsitate handiko eremuetan, hutsik dauden lurzoruen eta higiezin publikoen presentzia aprobetxatuz.
- Ingurumen-hobekuntzako eta gizarteratzeko ekintzak konbinatzea, kanpoaldeko auzoetan. Horretarako, benetako taldekoeremuak sortu eta ekipamendu publikoak kudeatzeko sistemak ezarri behar dira (kultura- eta jolas-zentroak, kirol-eremuak, zaharretxeak, gaztelekuak, etab.), gizarte-kohesioa sustatzeko.
- Hutsik edo zaharkituriko jarduerekin (industria ezegokiak, etab.) okupaturik dauden eremuak aprobetxatzea, horiek jarduera-eremu berriak sortzeko kokaleku egokia dutenean, bertan zuzkidurak, zerbitzuak eta ekipamenduak instalatzeko, eta, horrela, egoitza-erabileraren gehiegizko monotoniaren (logela-auzoak) ondorio negatiboak konpentsatzeko. Halaber, garrantzizkoa da merkataritza-jarduerak (komunikazio-adar nagusiei loturiko kokalekuetan isolatzeko joera) hirian merkataritza-zentrotzat integratzea, bai hirigunean eta bai kanpoaldeko auzoetan.
- Lurraldea erabiltzeko eredu iraunkorrak aplikatzea; hain zuzen ere, ez da sortu behar, bai hurren dagoelako edo bai dentsitate baxua duelako, taldeko garraioaren zerbitzua jaso ezin duen egoitzalekurik. Horri dagokionez, dentsitate handiek itotzea eta asetzea sortzen duten bezala, egoitza-dentsitate baxuegiek zama ekonomikoak eta ingurumenekoak sortzen dituzte, epe ertainean jasagarriak ez direnak eta lurzoru-kontsumo handia dutenak (baliabide oso urria eskualdean). Hau da, "lurzoruaren kontsumoko ekonomia" deritzon irizpidea aplikatu behar da.
- Familien aldaketari egokituriko etxebizitza-tipologiak ikertzea eta garatzea; izan ere, pertsona nahiz guraso bakarreko familia gero eta gehiago egongo da, eta etxeen batez besteko tamaina gero eta txikiagoa izango da.
- Era berean, egoitza-erabilerarako edo gogaikarria ez den industria txikirako sailkatzen diren lurzoruak lehendik dagoen guneari jarraipena emanez kokatuko dira; horrela, perimetro mailako lotura ahalik eta handiena egongo da, baita bide-sarearekiko lotura zuzena ere; gain, guneko hiri-egituraren garapen integratua egingo da. Sektore, unitate edo industrialde berriek zuzeneko lotura ahalik eta handiena izango dute lehendik dauden hiri-egiturekin, baldintza topografiko bereziak daudenean izan ezik.
- Ahal den neurrian, saihestu egingo dira sortuko diren eta lehendik edo aurreikusita dauden hiri-egitura berrien arteko hutsuneak edo jarraitasunik ezak, baldin eta eraikinik gabeko espazioak zuzkidura-sistema orokorretarako edo eremu askeen nahiz zona berde publikoen sistema orokorrerako erabiltzen ez badira.
- LZPren lurralde-ereduan proposaturiko ezarkuntza-sistemarekin koherentzia egongo da; bertan ezarritakoaren arabera, ezarkuntza barreiatu berriak sortu beharrean, gune tradizionalak indartu behar dira, eta hazkunde berrien antolamenduak koherentzia espaziala izan behar du lehendik dauden hiri-egiturekin.

- Lehenasuna emango zaie, betiere, ingurumen-eragina ahalik eta gehien murrizten duten hirigintza-soluzioei eta LZPk babesturiko lurzoruen mugaketak ezarritako baldintzatzaileei.

LAUGARREN TITULUA: JARDUERA EKONOMIKOKO EZARKUNTZEN SISTEMA**I. KAPITULUA: JARDUERA EKONOMIKOAREN EREDUA****104. artikulua. *Jarduera Ekonomikoaren Eredua.***

Jarraian, honako LZP honek proposatutako jarduera ekonomikoko ezarkuntzen eredua zehazten duten irizpideok adierazten dira:

1. Lehen sektorea:

- a) Funtzio anitzeko sektore ekonomikotzat hartuko da, eta arreta jarriko zaio honako funtzio hauen bikoiztasunaren berezko konplexutasunari: alde batetik funtzio ekonomikoak, eta bestetik, lurralde, ingurumen, gizarte eta paisaia mailako funtzioak.
- b) Europa, nazio eta autonomia mailako landa-sektoreari buruzko estrategiekin koherentzian, nekazaritza-jardueren garapen iraunkorrerako eredua sustatuko da, jarduera horiek ingurumenean integratzeko eta euren ingurumenean sortzen dituzten zuzeneko nahiz zeharreko eragin ezkorrak murrizteko; hain zuzen ere, hauxe bermatzen duten nekazaritza-jardun onak sustatuko dira: ustiapenen erabilerak harrera-gaitasuna jasotzea, kudeaketa-irizpidetzat; horri dagokionez, aldatu egingo dira laborantza-sistemei, insumo kimikoen kontsumoari, lurzoruetan zein uretan ongarriak botatzeari eta hondakinei loturiko parametro guztiak.
 - Biodibertsitatea eta paisaien aniztasuna, nortasuna zein kalitatea kontserbatzeko irizpideetan oinarrituz, nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-erabileren antolamendua garatuko da; horrek inguru fisikoarekin duen erlazioa, izan ere, funtsezko elementuetariko bat izango da aniztasun biologikoa eta paisaiaren aniztasuna kontserbatzeko, baita Euskadiko nekazaritza-nortasuna hurrengo belaunaldietara heltzeko ere.
 - Geldiarazi egin behar dira nekazaritza-ustiapenak biztanlerik gabe gelditzeko prozesuak, baita landa-paisaia gero eta bakunagoa izateko eta zuhaitzez beteta egoteko prozesuak ere, EAEko nekazaritza-eremuetan horixe gertatzen ari baita.
- c) Nekazaritza-jarduerak landa-eremuetako egitura sozioekonomikoaren zatitzat sustatuko dira; beraz, ekonomiaren adar bat osatuko dute eta horrek eginkizun jakina izan behar du landa-eremuen garapenean, nekazaritza-jarduerak suspertzeko (kontuan hartuta ustiapenen tipologia-aniztasuna), bi norabide hauetan:
 - Ustiapen profesionalizatuen lehiakortasuna hobetzea, merkatuko eskarrietara hobeto egokituta, kalitatea hobetzeko eta produkzioak bereizteko neurrien bitartez; horretarako, honako hau identifikatzeko aukera ematen duten tresnak erabiliko dira: i) zonako produktuen jatorria eta ezaugarriak, eta ii) nekazaritza ekologikoa eta integratua, baita gazteak nekazaritza-ustiapenetan sartzeko politikien nagusitasuna ere, ustiapenetan ezinbesteko belaunaldi-txanda egoteko; horretarako, nekazarien trebakuntza hobetzeko eta merkatuen abagunearen barruko aldatetarako prestatzeko jarduketak egingo dira; gain, txakoliaren laborantza eta negutegiko produkzioak sustatuko dira, etorkizunean errentagarriagoak izango direlako eta aukera handiagoak eskainiko dituztelako.

- Arduraldi partzialeko lana egiten duten nekazariak kudeaturiko baserriei lehentasunezko arreta berezia jartzea, nekazaritza-jarduera kontserbatzeko; hain zuzen ere, honako hau sustatuko da:
 - i) nekazaritza-produkzioen eta merkatuen arteko lotura; ii) abere-azienda txikien kontserbazioa, landa-paisaia eta jardueren nolabaiteko aniztasuna kontserbatzeko, landa-ustiapenetan; iii) arduraldi partzialeko lana egiten duten ekoizleen arteko lankidetzak, arduraldia murrizteko eta gutxieneko irabaziak bermatzeko; eta iv) tokiko azoken eta merkatuen antolamendua, profesionalizaturik ez dauden baserrien produkzio txikiak merkaturatzeko.
 - d) Baso-sektorean lankidetzak bultzatuko da, masen ustiapenaren ingurumen- eta ikusmen-ondorioak murrizteko; horretarako: i) baso-jarduera iraunkorrak eta hostozabalen bidezko oihaneztatzeak sustatuko dira, lurraldeko inguruaren dibertsitatea eta kalitatea handitzeko; eta ii) basoko lanak denen artean egingo dira, bai inausketak eta bai basoko gainko tratamenduak, baita mozketak ere.
 - e) Kanpokoak diren basoko enpresak eta teknikariak erakartzeko pizgarriak emango dira, landaketen produktibitatea handitzeko eta horien erabilera ona bultzatzeko.
 - f) Baso-ikerketak sustatuko da, besteak beste, honako helburu hauekin: zura eraldatzeko eta erabilera berriak, biomasaren aprobetxamendurako (pelletaren elaborazioa eta biomasaren bidezko energia-kogenerazioa).
2. Bigarren sektorea:
- a) I+G politika: produktuak, produkzio-prozesuak, materialak, instalazioak eta ingurumena berritzearen aldeko apustu iraunkorra.
 - b) Nazioarteko hedapena, toki enpresekin aliantzak eginez, eskualde desberdinetan negozioko zentroak eratuz eta kanpoko merkatu jakinetan parte hartzeko ekimenak sustatuz.
 - c) Lankidetzak: arlo desberdinetako enpresen arteko lankidetzak sustatuko da: merkaturatzea, teknologia, ikerketa, makroproiektuen garapena, etab.
 - d) Heziketa: enpresa-kudeaketako eskolak eta eskola teknikoak nahiz lanbide-heziketakoak sustatuko dira.
3. Hirugarren sektorea eta merkataritza:
- a) Inbertsio publikoa handitzea, merkataritza-jarduera suspertzeko, hiri-azpiegiturak egokituz eta espezializazio sektoriala nahiz enpresa-lankidetzak bultzatuz, enpresa-eraginkortasuna handitzeko.
 - b) Berrikuntza sustatzea, merkataritzak sektorea modernatzeko aktiboak eta metodologiak integratu ahal izateko; halaber, merkataritza banaketaren I+G zentroa sortzea.
 - c) Lehiakortasuna hobetzea, inbertsio pribatuaren bitartez, merkataritza-enpresen eraldaketa sustatzeko eta informazioaren teknologia berrien garapena bultzatzeko.
 - d) Interes orokorra aintzat hartzen duen hirigintza- eta merkataritza-eredua sustatzea, bai eta, hiri-merkataritza, udalerrien bizitasuna eta komertzio ertain eta txikien formatuak bultzatzen dituen ere.
 - e) Merkataritza eta turismoaren arteko erlazioa bultzatzea, eta azoka-esparruei zein jarduerari probetxu ateratzea, tokiko edo Eskualde Egituran lehiatzeko abantailak dituzten produktuak komertzializatzeko.

105. artikulua. *Jarduera Ekonomikoaren Ezarkuntza Sistemaren osaketa eta zehaztapenak.*

1. Ezarkuntza Sistema, Lurraldearen Zatiko Planaren ondoretarako, Durangoko Eskualde egituraren barruan dauden eta horren jarduketa-eremua osatzen duten udalerrietako biztanleguneei eratzten dute, giza ezarkuntzaren euskarri fisikoari dagokionez; halaber, hiri-oinarriko produkzio-jarduerak dituzten lurzoruak ere sistema horren barrukoak dira.
2. Dokumentazio grafikoan, Informazio Planoak izenarekin eta, beraz, antolamendu lotesleko izaera barik, indarreko planeamenduaren egoeraren zehaztapena egiten da egun zehatz batean. LZPk nahi du planeamendu orokorren berrikuspenak eta euren aldaketak LZP honen irizpidetara egokitzea.
3. LZPk ez du lurzoruaren jabetzari aplikatzeko moduko hirigintza-araudirik ezartzen, eta beraz, bertako xedapenek ez dute lurzoruaren sailkapen jakina eragiten, Udal Planeamenduak baitauka horretarako eskumena.
4. Aurreko zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, Udal Planeamenduak lurzoru urbanizaezintzat sailkatuko ditu eta, horrenbestez, LZP honen okupazioaren mugetatik salbuetsitakoez gain, oraingo planeamenduen berrikuspenean desklasifikatzen diren lurzoru guztiak ez dira ezarkuntza-sistemaren barruan egongo, baita, muga horien barruan egon arren, udal-planeamenduak erabakita okupazio barik gelditzen direnak ere.
5. Egitamu honek Ezarkuntza Sistemari sartutako lurzoruaren mugaketa Udal Planeamenduak zehaztu ahal du, Egitamuan ezarritako murriztapenekin eta baldintzekin.
6. Baldin eta honako LZPen irizpideak betetzen badituzte, Ezarkuntza Sistemari loturiko lurzorian sartu ahal dira Udal Planeamenduak, horren ikuskapenek eta aldaketek hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat sailkatu dituzten lurzoruak.
7. Ezarkuntza Sistemari buruzko informazio grafikoa 6. Antolamendu Planoan ("Lurralde Eredua") jasota dago.

106. artikulua. *Jarduera Ekonomikoaren Eredua lortzeko lurralde-helburuak.*

1. Lurralde-egitura indartzea, hazkundearen banaketa orekatua eginez, hori kasuan kasuko lurraldearen harrera-gaitasunera egokituta.

LZPk lurzoruaren neurri gabeko kontsumoa mugatzea proposatzen du, kontuan hartuta Eskualde Egiturako lurraldeak harrera-gaitasun urria duela:

- b. Oraingo eraikinen ahalmena balioztatzea eta eraikitako ondare hori optimizatzea, lehentasunezko esku hartze modutzat, hiri-erabilerak garatzeko lurzoru berrien okupazioa bigarren mailan utzita.
- c. Indarreko planeamenduaren benetako gaitasuna optimizatzea, lurzorurik gehien kontsumitzen duten eraikuntzako tipologiak eta intentsitateak ikuskatuz, eta hori guztia ingurura egokitzeko ahalegina eginez.

2. Erabileren eredu mistoa sustatzea: jarduera ekonomikoaren eta egoitzaren erabilerak, espazioan integratuta.

LZPk hiriko eremuen eta zonen arabera espezializazio funtzional kaltegarria ekidin nahi du; gain, egoitza-erabilerekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoko erabilerak espazioan integratu nahi ditu. Udalerriek egoitza-erabilera orokorrarekin proposatzen dituzten lurzoru berriek, gutxienez, eremuko irabazizko egoitza-eraikigarritasunaren %10eko erreserba eduki behar dute jarduera ekonomikoetarako. Jarduera ekonomiko horien artean, honako hauek daude: industria-erabilera bateragarria, merkataritzako erabilera tertziarioa, bulegoak eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk (adibidez, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola nahiz kultura eta antzeko beste batzuk).

3. Biztanle kopuru galera sahiestea eta lurralde-oreka mantentzea. Eskualde Egiturako hirien sistema indartzea.

LZPk bermatu egin behar du Eskualde Egiturako udalerrri bakoitzean beharrezko lurzorua dagoela, biztanleek etxebizitza lortzeko beharizan endogenoak betetzeko; horrela, Egitamua indarraldian biztanleak beste leku batzuetara joatea ekidin nahi da.

Udal bakoitzak, nahitaez, bertako biztanleriak behar dituen etxebizitza guztiak bermatu behar ditu, kontuan hartuta biztanleria-sektore desberdinen ahalmen ekonomikoa, eta indarreko Babes Ofizialeko Araubidea erabiliz.

LAAk zehazturiko Ereduak proposaturiko Lurralde Oreka Estrategiari erantzunez, Eskualde Egiturako udalerriren batean, biztanle kopurua mantentzeaz gain, hazkunde hautakorra ere aurreikusi da, beste eskualde-egitura batzuetatik iritsitako biztanleei harrera egiteko (batez ere, Bilbo Metropolitarretik heldutakoei).

4. Natura- eta landa-inguruko balioak kontserbatzea, hobetzea eta sustatzea.

LZPen helburu nagusienetarikoa bat, izan ere, baliabide naturalak zentzuz administratzea eta ingurumena babestea da: eta ingurumen-baliorik urrienen lurzoruak erabiltzea proposatu du; garapen berriek okupatu behar ez diren lurzoruak zehazteko irizpideak ezarri ditu, lurzoru horien artean, hiru birgeratze-aldietariko (10, 100 eta 500 urtekoak) edozeinetan uholde-arriskupeko eremuak sartzen dira, balio estrategiko eta edafologiko handia baitute; Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzaren kartografia berriarekin bat etorrira, baita Gainazaleko Uren Babeseko edo Babes Berezikoko kategoriaren baten barruko lurzoruak ere.

Okupazioaren muga-eremuak ezarri dira, gehieneko eremutzat hartzen direnak; eremu horietatik kanpo ezin daiteke jarduera ekonomikoen garapen berririk egon. Ezartzen diren okupazioaren muga-eremuek ez dute horren kolonizazioa eragiten LZPen indarraldian. Azalera okupagarria Udal Planeamenduak zehaztuko du, beharizanen arabera erabiliko dena, eranskinetan finkatutako eskaintzaren mugen barruan eta LZP honek proposatutako terminoetan. Lurzoru horiek agiri honetako dagokion arautegian ezarritako kategorizazioa nahiz zehaztapenak kontserbatuko dituzte, harik eta udal-planeamenduak horretarako erabiltzen ez dituen arte.

Udal Egitamuek hazkunde berriko lurzoruen behin betiko mugaketak aintzat hartu behar dute aktiboan dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak, euren mantentze eta hobekuntza xede nagusitzat dutenak. Ildo horretan, okupazioaren muga-eremuetan egiten den esku hartzea egiten dela, udal-planeamenduaren derrigorrezko ingurumen-eraginari buruzko azterlan barruan, oraingo nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenen gaineko eraginei buruzko azterlan espezifikoak gehitu beharko da, eta aplikatu daitezkeen aukerak eta neurri zuzentzaileak zehazteko.

5. Mugikortasun iraunkorra: garraio publikoari eta mugikortasuneko aukerako moduei loturiko irisgarritasuna.

LZPk hiri trinkoaren eta erabilerak nahastearen printzipioak aplikatzea erabaki du; izan ere, jarduera eta ezarkuntzak (barreiatutako hiri) sakabanatzeko oraingo joerak zuzentzen saiatu da, horiek mugikortasun iraunkorreko ereduaren garapena ahalbidetzen duen ezarkuntza-eredua lortzea ekiditen baitute.

Hiriko jardueren eta erabileren barreiatzea, bestalde, baliabideen nahiz denboraren kostu gero eta handiagoan oinarrituz euskarritzen da, eta horrek etorkizunean izango duen jarraipena, berriz, baliabide horiek mugatzearen araberakoa da.

Gaur egun, Amorebieta, Iurreta, Durango eta Abadiño udalerriek eraturiko konurbazioa hiri barreiatutzat egituraturik dago. Jarduera ekonomikoak (ibilgailuen bideriaren eta horren eraginezko irisgarritasunaren babesean sortutakoak, hiriaren berezko jarraipenari lotu barik) uharte iristezinak dira orain, bertara ibilgailu pribatuen soilik heldu ahal delako; izan ere, bideak eurak benetako hesiak dira aukerako beste edozein irisgarritasun motatarako, eta gain, mugatu egiten dute plataforma soileko garraio publikoa sortzeko aukera, ibilgailu pribatuaren erabilera ordeztu ahal izateko.

LZP honek, hiri-erabilera berriak edukitzeko moduko lurzorua aukeratzeko orduan, aintzat hartzen du eremu horiek hiriaren gainko zatiarekin duten artikulazioa, baita aukerako garraiobideekiko iragazkortasuna ere (oinetakoak nahiz bizikletak, edo plataforma soileko garraio publikoa), horiek biztanlerik gehienek esku baitaude. Beraz, LZPk beharrezko azpiegitura guztiak garatu nahi ditu, halako garraio mota sustatzeko, ibilgailu pribatuaren kaltetan, horren erabilera sahiatu beharko litzatekeelako hiriguneen barruko eta horietatik ondoko industrialdeetarako lekualdatzeetan.

Gain, beharrezkoa da garraio publikoa sustatzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, Eskualde Egiturako mugikortasun-arazoari erantzuna emateko elementu osagarritzat.

6. Haran-hondoan hiri-jarraipenaren eraketa mugatzea: Ingurumen Balioko Hiri-inguruko Landazabalak.

Durangoko Eskualde Egiturako ingurumen- eta paisaia-intereseak diren balio estrategiko handiko landazabalei loturiko eremuak (neurri handian ureztagarriak) mugatzen dira. Eremuok hiri-jarraipena apurtu eta eraikitako fatxada bakarraren eraketa ekiditen dute, haran osoan zehar eta, batez ere, N-634 errepidearen inguruan.

Irizpidetzat, honako hauen arteko bizikidetzaren zaintza ezartzen da: alde batetik, haran-hondoko hirigintza trinkoa (lurzoruaren hiri-erabilerak eta azpiegiturak baliabide urria lortzeko lehian), eta bestetik, baserrian oinarritutako nekazaritza-jarduera eta lurralde antropizatu hau sortzearen oroimen historikoa.

II. KAPITULUA: JARDUERA EKONOMIKOAREN EREDUAREN KALKULUA

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

107. artikulua. Jarduera Ekonomikoaren Ereduen kalkulua-oinarriak

1. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-beharrizanera hurbiltzeko, LZPk garaturiko kalkuluko metodoaren helburua jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa lortzea da, LZPk Eskualde Egiturako aurreikusitako hazkunde-ereduarekin koherentzian.
2. Kalkuluko metodo horrek Eskualde Egituran azken urteotan jarduera ekonomikoetara bideraturiko lurzoru-kontsumoaren joera eta kuantifikazioa hartzen du erreferentziatzat. Joera aldatzen duen irizpidea, izan ere, erabilera mistoen garapen-proposamena jasotzea da (hau da, erabilera tertziarioa eta egoitzakoa batera).

108. artikulua. *Jarduera Ekonomikoaren Ereduaren Oinarriak.*

1. LZP honek garatu nahi duen Jarduera Ekonomikoaren Ereduan, honako hau bereizten da: alde batetik, hiriguneetatik bereizitako zonei loturiko industria-erabilerako (erabilera horiek eta egoitza-erabilerak bateraezinak izatearen ondorioz) lurzoruen garapena; bestetik, erabilera mistoen garapena (hirugarren sekoreko erabilera bateragarriak, egoitza-erabilerei lotutakoak eta hiri-inguruetan kokaturik daudenak).
2. Egoitza-erabilerekin bateragarriak ez diren jarduera ekonomikoen okupazioaren muga-eremuei dagokienez, jarduera industrialetan edo trafiko astunarekin eta salgaien trafikoekin lotuta dauden jarduera logistikoetan erabili beharko dira. Halako esku hartzeek Eskualde Egitura osoko beharriaz ematen diete erantzuna.
3. Hiri-inguruetakako edo horiekin mugakideak diren eremuetako esku hartzeek, Jarduera Ekonomikoaren Ereduan, hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabilerak edukiko dituzte, baita enpresa-parkeak ere, horiek egoitza-eremuetan integratuta, zonen, logela-eremuen eta jarduera ekonomikoetarako eremuen (hiriguneetatik isolatuta) arabera espezializazio funtzional kaltegarria saihesteko, hori kaltegarria baita ingurumenerako eta funtzioen iraunkortasunerako.
4. Ez da kuantifikaziorik ezartzen suspertze-eragiketarako, horiek orain jarduera ekonomikoen erabilerekin okupaturik edo kalifikaturik baitaude, eta kuantifikazio hori udal-planeamenduak mugatuko du.

2. ATALA. JARDUERA EKONOMIKOAREN EREDUAREN KALKULUA**109. artikulua. *16 urteko aldirako Esparru Eredua.***

1. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskariaren kuantifikazioa 16 urteko aldirako 160 Hektarea dira, urtean 10 hektareako batez besteko kopuruarekin 1990 eta 2002. urteen bitartean, Jarduera Ekonomikoetarako Lurraldearekiko Egitamu Sektorialaren arabera.
 - Industria-lurzoruko beharriaz handienak Abadiño eta Amorebieta-Etxano udalerrietan daude.
 - Durangon, Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon hirugarren sektoreko erabileretarako lurzoru dago, erabilera mistoen barruan (egoitza eta jarduera ekonomikoa).
2. Jarduera Ekonomikoaren lurzoru-kontsumoaren beharriaz, bestalde, lurzoru-kontsumoaren jarraibide horren aldaketa kalkulatu osatzen dira, eta aldaketa hori, berriz, oraingo produkzio-ereduak Eskualde Egiturako industria-sektorearen bilakaera naturalaren tertziarizaziorantz izandako bilakaeraren ondoriozkoa da.
3. Egitamua indarraldian hirugarren sektoreko garrantzia nabarmentzen duen eredu ekonomikoa, lurzoru-kontsumo urriagoko tipologiaren garapena eta Lurralde Historikoan inoiz egindako industria-lurzoruko eragiketa publikorik handiena (Boroako industrialdea, azalera handiarekin): hori guztia aintzat hartuta, jarduera ekonomikorako lurzoruaren 155,74 hektarea gordin bermatzen duen esparru-proposamena egiteko aukera ematen du. Enpleguak kontsumitutako lurzoru-azalari dagokionez, erabilera industrialetan kontsumitzen dena hirugarren sektoreko erabileretan kontsumitutakoa baino askoz handiagoa denez, LZPen ereduak proposatutako 155,74 hektareak (lurzoru industrialeko 149,08 hektarea eta hirugarren sektoreko 6,66) 160 hektarea baino askoz handiagoko lurzoru-azalera gordinaren baliokide izango liriteke, enplegu-harreraz hizketan, eta 160 hektarea horiek dira, hain zuzen, Jarduera Ekonomikoen eta Merkataritzako Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sortze Publikorako LZPk aurreikusteko moduko eskarizat hartzen dituenak.

4. Udal-planeamenduak bermatu egin behar du lurzoru-kantitate hori dagoela, azaldutako estrategiak erabiliz, eta, estrategija horien artean, eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa sartzen da.
5. VIII. ERANSKINEAN (Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Esparru-Eredua 16 urteko aldirako Ereduaren kuantifikazioa”), LZPren 16 urteko aldirako esparru-eredua dago jasota, jarduera ekonomikoko erabilerak edukiko dituen lurzoruari dagokionez. Udalerrri bakoitzari esleituriko jarduera ekonomikorako lurzoru-kantitatearen banaketa, bestalde, planeamenduan hutsik dagoen lurzorua egotearen eta udalerrriaren harrera-gaitasunaren baldintzapean dago.

110. artikulua. 8 urteko aldirako Jarduera Ekonomikoaren Eredua

1. Planeamendu Orokorra berrikusten duen udalerrri bakoitzak jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskariaren zenbatekoaren kalkulua Planeamendu berak adierazitako epean egiteko aukera du, 16 urteko aldirako esparru-ereduan LZPk zehaztutakoa oinarritzat hartuta.
2. LZPk 8 urteko aldirako Jarduera Ekonomikoaren ereduaren ekarpena egin du, kuantitatiboki, 16 urteko aldirako esparru-ereduaren erdiaren baliokide dena udalerrri bakoitzean.
3. Esparru Proposamena udal Planeamenduari aplikatu ahal izateko, esparru hori Planeamenduaren benetako aldira egokitu behar da, hau da, zortzi urteko aldira; kasu honetan, 16 urteko aldiko azaleraren erdia hartu da aintzat.
4. Udal Planeamenduak lehentasunen oinarritzko ordena finkatu eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu, egokitzat hartzen dituen eredu-erako, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azaleraren erabilgarritasuna lortzeko, aurreikuspen-aldirako Ereduaren arabera.
5. IX. ERANSKINEAN (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Ereduaren kuantifikazioa zortzi urteko aldirako”), zortzi urteko aldirako ereduaren kuantifikazioa jasotzen da, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azalera adieraziz, eta horren betearaztea 8 urteko aldirako bermatu beharra dago, Esparru Ereduaren aplikazio gisa.

3. ATALA. LURZORU ESKAINTZARAKO MUGAK

111. artikulua. 16 urteko aldirako Esparru Eskaintza.

1. Hanpatze-koefizientea aplikagarria da erduan oinarrituz kalkulaturiko etxebizitza kopuru garbia kalkulatu ondoren, hori egoitza-lurzoruaren eskaintzara egokitzeko unean. Helburua ez da aurreikusitako etxebizitza kopurua handitzea, lurzoruaren aurreikuspen nahiko lasaiak egitea baizik, behar diren etxebizitza guztiak eraiki ahal izateko, hiri-garapeneko prozesuak zurrinak izan daitezkeen arren.
2. 16 urteko aldiko garapena planteatuz, honako hanpatze-koefiziente hauek aplikatu dira:
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioak, antolaketa-rik gabeko hirigintza-garapenik ez sortzeko (lurzoruaren gehiegizko kalifikazioaren ondorioz), bete egin behar du Ereduaren hamasei urteko aldirako kuantifikazioa, hori 2ko koefizientearekin biderkatuta.
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gutxienezko balioak, kalifikaturiko lurzoruaren urritasuna ekiditeko (planeamenduak gutxienez bermatu beharreko lurzorua), bete egin behar du Ereduaren hamasei urteko aldirako kuantifikazioa, hori 1,25eko koefizientearekin biderkatuz.

3. Ondoriozko laukiak X. ERANSKINEAN (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Esparru-eskaintza. 16 urteko aldirako eskaintzaren gehieneko muga”) jasota daude, baita XII. ERANSKINEAN ere (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Esparru-eskaintza. 16 urteko aldirako eskaintzaren gutxieneko muga”).

112. artikulua. 8 urteko aldirako Eskaintzaren mugak aplikatzea

1. Esparru Proposamena Udal Planeamenduari aplikatu ahal izateko, esparrua Planeamenduaren aurreikuspen-aldiari egokitu behar zaio.
2. 8 urteko aldirako aplikazioa da, udal-planeamenduetan erabili ohi den aldia, hain justu.
3. Gehieneko eta gutxieneko balioak aintzat hartuta, udalerrri bakoitzak (bitarte horien barruan) bere muga aukeratzeko, koefizienteak honako hauek izango dira 8 urteko aldirako:
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioak ez du gaindituko zortzi urteko aldirako kuantifikazioa, 3ko koefizientearekin biderkatuta.
 - Udalerrri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioak ez du gaindituko zortzi urteko aldirako kuantifikazioa, 1,25eko koefizientearekin biderkatuta.
3. Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren 8 urteko aldirako gehieneko eta gutxieneko eskaintzaren mugak kalkulatzearen eraginezko laukiak XII. ERANSKINEAN jasota daude (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. 8 urteko aldirako eskaintzaren gehieneko muga”). baita XIII. ERANSKINEAN ere (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. 8 urteko aldirako eskaintzaren gutxieneko muga”).
4. Udal-planeamenduan eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko mugak lortu ezin direnean (planeamenduaren gaitasun hutsa gaindituta dagoelako), planeamenduak jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa, izan ere, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriaren azalera baino ez da izango, XI. ERANSKINEAN jasotakoa (“Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Esparru-eskaintza. 16 urteko aldirako sortu beharreko lurzoruaren gehieneko muga”), eta hori okupazioaren mugatzat grafiaturiko mugaketa baino txikiagoa da.

4. ATALA. TERTZIARIZAZIOA

113. artikulua. Hirugarren sektorean aurreikusitako lurzoruak

1. LZPk proposatu du, aukeratutako okupazioaren muga-eremuen barruan, Matienan (Abadiño) Zientzia Parkea instalatzea, Durango udalerrriaren ondoan, jarduera industrialaren osagarri gisa, ikerketa eta teknologia arloan enpresen zerbitzurako jardungo duten hainbat eraikinekin, bai eta, prestakuntza edo/eta heziketako zentroak ere eta abar. 16 urteko aldirako gehieneko eta gutxieneko eskaintza-mugak 9,80 eta 6,12 hektarea dira, hurrenez hurren.
2. Okupazioaren muga-eremuak hiri-eremuan proposatu dira, erabilera mistokoak eta egoitza-eremuarekin nahasirik Amorebieta-Etxano udalerrian. Jarduera ekonomietarako lurzoru horiek etxebizitzarekin bateragarri den erabilera industrial eta enpresakoa eduki ditzakete, bai eta, hirugarren sektoreko beste batzuk ere,

hala nola, txikizkako merkataritzakoak eta bulegoak, edo zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk, besteak beste, laguntzakoak, osasunekoak, dibertimenduzkoak, soziokulturalak edo beste antzeko batzuk. 16 urteko aldirako gehieneko eta gutxieneko eskaintza-mugak 3,52 eta 2,20 hektarea dira, hurrenez hurren. Okupazioaren erabilera mistoko muga-eremu horiek dokumentazio grafikoan azaltzen dira, eta planeamendu orokorraren tresnetan mugaketak aplika dakizkieke, egoitza-erabilerako eta jarduera ekonomikoetako eremu diferentziatu gisa, betiere jarduera ekonomikoen gehieneko eta gutxieneko eskaintzarekin bat datorren proportzioan, edo bestela, mugaketa espezifikorik gabeko eremuak osatu ditzakete, non bi erabilerak modu mistoan onartzen diren. Bestalde, hirugarren sektoreko azalera eraikia izango da, egoitza-erabilerako zehaztutakoarekin koherente den eraikigarritasuna eskaintzaren mugetatik aukeratutako lurzoru-azalerari aplikatzearen emaitza.

5. ATALA. SUSTAPEN PUBLIKOKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA

114. artikulua. *Sustapen Publikoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua.*

LZPk proposatu du Elorrion, Pulla aldean, aukeratutako okupazioaren muga-eremuen barruan, sustapen publikoko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azalera bat. Gaur egun lurzoru industrialen ondoan eta saihebidetik hurbil dauden lurak dira, hortaz, ibilgailu astunek sarbide erreza izango lukete. Mugaketan sartuta dago balizko arkeologia-gune bat Iburguen dorretxean bertan, beraz, babestu beharrekoa da, indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita. Mugaketaren eremua bertan dauden bizitegietatik bereizita dagoenez, etxebizitzaren inguruko eremu askeen kokapena zuzkitu beharra dago. 16 urteko aldirako gehieneko eta gutxieneko eskaintza-mugak 18,03 eta 9,60 hektarea dira, hurrenez hurren.

III. KAPITULUA: EREDU EKONOMIKOAREN KUDEAKETA

115. artikulua. *Xedapen orokorrak.*

1. Azpimarratzeko da, hasiera batean, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azala, udal-planifikazioak bermatu beharrekoa, ereduaren beharrezanetan kuantifikatzen dena dela. Aldiz, eskaintzaren esparrua beharrezan betetzen dituen bitarteko bat da, eta merkatuaren aldi baterako zurruntasunak eragindako itotzeak saihestea du eginkizuntzat.
2. LZPk lurzoruaren kontsumoa mugatzea proposatzen du, azken urteotako joera iraulita. Detektaturiko beharrezan, horretarako, gehienbat eraikitako nahiz urbanizaturiko ondarea eta indarreko planeamenduaren gaitasuna optimizatuz bete behar dira; gero, lurzoru berria sartu behar da, LZPn zehazturiko okupazioaren muga-eremuen barruko lurzoria sartuta, beharrezkoa izanez gero.

116. artikulua. *Jarduera ekonomikoaren eremuak suspertzea.*

1. Oraingo industria-paisaia egokitzeko eta horren irudia hobetzeko, Lurraldearen Zatikoko Planaren iritziz, funtsezkoa da oraingo industrialde batzuetan esku hartzeak egitea, halako proposamenak udal-

planeamenduetan handitzearen kalterik gabe, funtzioak, egitura edo bizigarritasuna egokitzeko, aintzat hartuta hirigintzan dauden gabeziak edo horietariko batzuetan neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera; horretarako, "Suspertze Eremuak" zehazten dira, Araudi honetako 93.1 artikuluan araututakoak.

117. artikulua. Planeamenduaren gaitasuna.

1. Indarreko planeamenduaren gaitasuna LZPn eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritako estrategiaren arabera aztertu behar da, eta lehentasuna emango zaio lehendik garatuta dauden eremuak erabiltzeari, lurzoru berriak kolonizatu baino lehen.
2. Lurzoruaren kuantifikazioa, bestalde, harrera-gaitasunean eta hazkunde-gaitasunean oinarritzen da; gaitasun hori indarreko planeamenduek ematen dute eta planeamenduok LZPk aurkezten ditu, data jakinari buruzko informaziotzat; planeamendu horiek ikuskatu edo aldatu egin daitezke.
3. Planeamenduaren gaitasuna aldagarria da, denboran zeharreko betearazpenaren eta planeamenduan egin daitezkeen aldaketaren arabera.

118. artikulua. Okupazioaren muga-eremuak.

1. Okupazioaren muga-eremuak, hirigintza-garapen berriei dagokienez, Okupazioaren Planoan ("Lurralde Eredua") adierazitako lurralde-eremuak dira; horietan, udal-planeamenduko agiriekin hurrengo 16 urteotarako proposaturiko hazkundeak egin daitezke, eta horietatik kanpo ezin da hirigintza-aldaketarik egin.
2. Okupazioaren muga-eremuak, izan ere, hurrengo urteotako hazkunde mugatzeko erabiltzen diren azalerak dira. Eremu horien ezaugarriak ondoren adierazita daude:
 - Ez dira egokitzen ezarritako eskaintzaren gehieneko mugetara, eta udalei aukerako okupazioak egiteko aukera ematen diete, adierazitako eremuen barruan; hau da, lurzoru berriak aukeratzean nolabaiteko lasaiera dago eta, hortaz, berez ezin dira oso-osorik okupatu.
 - Sistema orokorren sareko zuzkidura publikoa edukitzeko gaitasuna dute, hain zuzen ere, eremu askeak edo, bestela, taldekoekipamenduak.
 - Eremuak ezarri ondoren, okupazioari aukerak emateko, gerta daiteke, eraikitako eta urbanizaturiko ondarean egindako jarduketaren ondorioz (Eskualde Egituran lurzoru-konsumoa mugatzeko), eremu horiek okupatu behar ez izatea.
 - Okupazioaren muga-eremuak okupatzen ez badira edo horien zati bat soilik okupatuz gero, okupatu gabeko gainko azalera osoan dagokion planoan adierazitako kategoriak ezarriko ditu udal-planeamenduak.
 - Egiten den lurzoru-hautapenak, ahal dela behintzat, jarraipena izango du finkaturiko eremuekin edo garatzeko aurreikusita daudenekin, LZP egitean indarrean zegoen udal-planeamenduan ezarritakoaren arabera, eta saihestu egingo dira isolaturik dauden eta oraingo ereduarekin loturarik ez duten hirigintzak.

- Baldin eta okupazioaren muga-eremuetan azalerarik okupatzen ez bada, edo zati bakar batean bada ere, okupatu gabeko azalera Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen IV. tituluaren I. kapituluko II. atalean aurreikusitako udalen lurzoru-erreserbak sortzen lagundu dezake.

3. Beste alde batetik, 6. zenbakiko Antolamendu Planoan (“Lurralde Eremua”) adierazitako eremuak, lan- eskala handitzean (udal-planeamenduak egiten duena), egokitu eta hobeto zehaztu ahal dira, eremuaren errealitate fisikoa kontuan hartuta. Egokitze horren eraginez, aldaketa txikiak egin daitezke LZPko grafikoetan adierazitako azalera, horiek honako honetara egokitzeko: lerrokaduretara, oraingo eraikinetara, lurraldearen topografiara, interes naturala edo eraikia duten elementuen zaintzara, bide-egituraren egokitzapenera, etab.

Dena den, adierazi beharra dago, gaur egun, euskarri digital arloko tresnek egokitzapen horietan laguntzen dutela, aipatu lan- eskalari dagokionez, askoz ere zehatzagoak direlako.

4. Okupazioaren egokitasun-irizpide hauek erabili dira, okupazioaren muga-eremuak zehazteko orduan:
 - %15etik beherako maldak dituzten lurzoruak, azalera handiagoa eta batez besteko malda txikiagoa duten eremuen barruko azalera txikiak direnean izan ezik.
 - Uholde-orbanen eraginpean ez dauden lurzoruak edozein birgeratze-alditan, 10, 100 eta 500 urtekoak, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak egindako uholde-arriskuaren kartografiarekin bat etorrita.

Orbanak aldatzeko aukera dagoenez, gerora gertatutako edozein aldaketa erantsitaz jo eta oraingoen ordezkotzat izango litzateke eta, hala balego, uholde-arriskupeko eremu berriek eragindako okupazioaren muga-eremuen hirigintza-garapenak bertan behera utziko lirateke.

Era berean, duten balio edafologikoa dela eta, planeamenduak okupazioaren muga-eremuak zehazterakoan, 500 urteko birgeratze-aldiko uholde-orbanaren eraginpeko lurzoruak salbuetsita geratzen dira, eta Balio Estrategiko Handiko kategoriara gehitu egiten dira.

LZPk hartutako irizpide horiek udal-planeamenduko okupazioaren eremuak berrikusi edo aldatzean aplikatuko dira, gaur egun indarrean daudenak.

- Babes Bereziko Lurzoru eta Gainazaleko Uren Babes kategorietan sartuta ez dauden lurzoruak.

6. EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordearen legezko txostenari erantsitako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzaren txostenarekin bat datozen alderdi hauek adierazten dira:

Udal-planeamenduek, salbuespen gisa, duden hirigintza-garapenetako guneetarako proposamenak egin ahal izango dituzte PZP honetako okupazioaren muga-eremuetatik kanpo. Garapenerako gune berri horiek ondorengo baldintzatzaile hauek bete beharko dituzte:

- Proposatutako mugaketak interes publiko eta sozialeko jarduerari buruzko justifikazio zorrotza eta LZP honek diseinatutako Lurralde Ereduarekin lotura izan beharko ditu, eta, hirigintza-zama gisa, sektore horien betearaztean sortu daitezkeen kalteak direla eta, eragin ditzakeen lurralde-inpaktuei eta euren neurri zuzentzailei buruzko azterlana ere aurkeztu beharko du

- Proposatutako mugaketa finkaturiko eremuen ondokoa izango da, eta oraingo guneak erabiliko ditu soilik, horiekin espazio-jarraipenaren, espazio-integrazioaren eta azpiegituren inguruko erlazioak erabakiko ditu.
 - Lurzoru berriek ez dute ezarritako egoitza kopurua handitzerik eragingo, ezta LZP honek proposatutako gehieneko okupazio-azalera ere.
 - Planeamendu-eremu horien mugaketak beteko ditu artikuluko honetako 4. puntuari jasotako egokitasun-irizpideak, gehieneko malda onargarriari edo uholde-arriskupeko lurzoru eta, natura- edo paisaia-balioak direla eta, babespeko lurzoru salbuetsiei buruzkoak, aldi berean, euren irisgarritasuna bermatuta izanik.
5. Azkenik, adierazi behar da, "jarduera ekonomikoak erabiltzeko okupazioaren muga-eremuak, erabilera mistokoak" gisa grafiaturiko azalera LZPk aurreikusitako eskaintzaren mugaren barruan beharrezkoa den azalera dela okupagarria soilik "X eta XI. ERANSKINETAN jasotakoa ("Jarduera ekonomikoetarako lurzoria. Esparru-eskaintza. 16 urteko aldirako gehieneko eta gutxieneko mugak").

IV. KAPITULUA: EREDU EKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK

119. artikulua. *Jarduera ekonomikoaren erabilerari loturiko tipologiak.*

1. LZPk, funtsezko irizpidetzat, orokorrean hartzen ditu hirigintza-prestakuntzadun lurzoria behar duten eragile ekonomikoen multzo osorako sortutako balizko lurzoru-eskariak; lurzoru hori jarduera ekonomikoak garatzeko euskarria da, eta jarduera horiek, berriz, produkzioak edo hirugarren sektoreko barrukoak izan daitezke.
2. LZPk proposatutako okupazioaren muga-eremuetan jarduera ekonomikoen erabilera espezifikoaren proposamena egiten da, industriaguneetan egoitza-erabilerekin bateragarriak diren zerbitzuen ezarpena saihestea oinarri harturik. Udal-planeamenduen ereduak onetsirik daudela ikusita, berrikuspena egitean, egoitza-erabilerekin bateragarriak diren erabilerak, lehentasunez, egoitza-erabilera orokorreko gune edo ezarkuntzetan kokatzea erabakiko da, horrenbestez, industriari eta logistikari lotutakoak egoitza-guneetarako sarbidea duten eremuetan kokatuko dira, bai eta, kanpoko garraio-azpiegiturretara iristeko aukera izango dute ere, dituzten ezaugarriak eta ibilgailu astunekiko menpekotasuna direla kausa, egoitza-erabilerekin bateragarriak ez diren ondorioak jasaten dituzte.
3. Horrenbestez, proposaturiko Jarduera Ekonomikoaren Eredua lortzeko, LZPk jarduera ekonomikoaren erabileren xehapen hau ezartzen du, eta erabilera horiek, berriz, udal-planeamenduak horrexetarako kalifikatzen dituen lurzoru berrietan onartzen dira:
 - a) **Industriakoa**: honen barruan, ondasunak sortzeko jarduerak sartzen dira; horien helburua industria-produktuak lortzea, konpontzea, lantzea, eraldatzea edo berriro erabiltzea da, baita hondakinak edo azpiproduktuak aprobetxatzea, suspertzea nahiz ezabatzea ere; halaber, handizkako pilaketa, zaintza eta banaketa ere erabilera honen barruan sartzen da, bai sortutako ondasunei eta bai produkzio-prozesua egiteko behar diren lehengaiei dagokienez.

Honako hauek bereizten dira:

- Produkzioakoa: erabilera honen barruan, ondasunak sortzeko edota pilatzeko jarduerak sartzen dira; horiek espazio bereziak behar dituzte, egoitza-erabileretatik urrun, gogaikarriak baitira etxebizitzetarako. Logistika-erabilerarekin bateragarritzat jotzen da.

- Maila teknologiko handiko produkzioak: I+G deritzon oinarrituriko ondasunak sortzeko jarduerak; hiri-inguruetatik hurbil kokatu ahal dira, eta batzuetan, jardueraren kalterik ezaren arabera, bateragarriak izan daitezke egoitza-erabilerekin.
- b) **Logistikoa**: sortutako ondasunen eta produkzio-prozesurako behar diren lehengaien (merkantzien garraioari estu lotuta) handikako nahiz txikizkako zaintza, zatikatzea eta banaketa. Erabilera hau bateragarria da Industriako Produkzio-erabilerarekin.
Merkantzien trafikoaren eta zaintzaren mende daudenez, lurzoru-azalera handiekin eta garraio-egitura osagarrien zuzeneko loturekin (gaitasun handiko egiturazko trenbide- edo bide-sarea) erlazionatuta egoten dira.
- c) **Enpresa-parkea**: gehienbat teknologia berrietan oinarrituriko jarduerak dira, eta euren helburuen artean, aipagarriak dira informazioa erabiltzea, datuak kalkulatzeko edo prozesatzeko, softwarea nahiz sistema informatikoak garatzea, eta, oro har, ikerketa- nahiz garapen-jarduerak egitea. Egoitza-lurzoruen ondoan edo erabilera mistoko lurzoruetan kokaturik egoten dira. Honako hauek bereizten dira:
 - Parke teknologikoak: gehienbat, teknologia aurreratuei loturiko jarduerak garatu, I+G erako hazkundea zein sorkuntza sustatu eta balio erantsi altuko zerbitzuak eskaintzen dituzte.
 - Enpresa-parkeak: industria-zerbitzu teknikoak eta beste enpresei zerbitzuak emateko enpresa-jarduerak garatzen dituzte.
- d) **Zientzia Parkea**: ikerketa zientifikoei eta teknologia berriei, bereziki, loturiko jarduerak, prestakuntzarekin eta irakaskuntzarekin erlazionaturik egon daitezkeenak, aldi batera, informazioa, kalkulua edo datu-prozesaketa, softwarearen eta sistema informatikoen garapena eta, oro har, ikerketa-garapen- eta berrikuntza-jarduerak kudeatzen dituenak. Egoitza-lurzoruen edo erabilera mistoko lurzoruen ondoan kokatuko da.
- e) **Erakustoki-enpresa (tertzarioa-erakusketa)**: halako eremuetan, erakusketa- eta salmenta-azalera handiei loturiko merkataritza-erabilerak behar dituzten produkzio-jarduerak egoten dira; gehienetan, bateragarriak dira egoitza-erabilerekin, eta beraz, horiekin integratu beharko lirateke.
- f) **Tertzarioa**: halako eremuetan dauden zerbitzuen artean, aipatzekoak dira administratiboak, teknikoak, finantzakoak, merkataritza-zerbitzuak, higieniko pertsonalak, osasunekoak, etab., eta horiek bateragarriak dira egoitza-erabilerekin eta horietan integraturik daude.
- g) **Merkataritza**: eremu hauetan, merkantziak jendeari zuzenean hornitzeari loturiko jardueretarako hirugarren sektoreko zerbitzuak daude. Batez ere, hiriguneetan kokatuko dira, horiek suspertu ahal izateko.
- h) **Mistoa**: jarduera ekonomikoetarako lurzoru hauetan, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilerak ez ezik, beste batzuk ere garatu ahal dira; esate baterako, enpresa-parkea edo zientzia-parkea eta hirugarren sektoreko beste batzuk, adibidez, laguntzako zuzkidurak, osasunekoak, jolasekoak, soziokulturalak eta antzeko beste batzuk.
- i) **Hiltegia eta erabilera osagarriak**: Aurreikusita dago Berriz udalerriko jarduera ekonomikoetarako muga-eremuaren barruan Erralde sozietateren hiltegiko instalazioak kokatzea, bai eta, natura- eta landa-ikerketarako beste gune bat.

120. artikulua. *Jarduera ekonomikoetarako lurzoruan aplikatzeko irizpideak.*

1. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruan lurralde-eredua ezarri ahal izateko, orokorrean, honako irizpide hauek aplikatzen dira:
 - a) Jarduera ekonomikoaren ezarkuntza berriak, hiriguneetatik kanpokoak, aukerako garraiobideekin (oinezkoak eta bizikletak) artikulatu behar dira, eta gain, bidaiariek garraio publikoko zerbitzuak eduki behar dituzte.
 - b) Hiriguneetatik kanpoko eremuak produkzio- eta logistika-jardueratarako erreserbatuko dira gehienbat, hiri-egiturarekin bateragarritasun txikikoak baitira, horrenbestez, merkataritza-gune handiekiko eta bulegoetarako eraikinekiko osagarritasuna saihestuko da. Horiek, batez ere, hiriguneen barnean kokatuko dira, tamaina txikiagoko esku hartze-eskalekin eta bertako hirigintza-ingurura egokituagoak.
 - c) Ez da ezarriko hirugarren sektoreko kanpo-eremurik hiri-lurzoruetan, komenigarria baita espazio-plataforma horiek profil industrialagoa duten instalazioetarako erreserbatzea, izan ere, hiri-egiturarekiko bateragarritasun txikia agertzen dute eta salgaien trafiko astunarekiko lotura funtzional handiagoa dute, horrez gain, irisgarritasuna garraio publikoaren bitartez bermatu behar da.
 - d) Jarduera ekonomikoetarako eremu berriei dagokienez, gaikako hondakin-bilketarako guneak bultzatuko dira, hirikoekiko asimilagarriak diren hondakinak botatzeko edukiontziak instalatzeko.
 - e) Udal-planeamenduak, jarduera ekonomikoa duten lurzoru berrietan, energia sortzeko zentro txikien instalazioa ahalbidetuko du, hondakinen tratamenduaren edo energia berriztagarrien bidez, beharrezko lurzoru-erreserba guztiak eginda, baldin eta jarduera nagusiaren mendeko bigarren mailako jarduera bada.
 - f) Oro har, ingurumen-neurri zuzentzaile zorrotzak aplikatu eta urbanizazioaren kalitatea zaindu egingo da.
 - g) Egoitza dentsitate ertaineko edo altuko okupazioaren muga-eremu guztietan, hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako dentsitatea edukiz gero, eremu eraikigarritasun osoaren %10 erreserbatuko da jarduera ekonomikoak kokatzeko; horien artean, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, enpresa-parkea ere egon daiteke, baita hirugarren sektoreko batzuk ere, esate baterako, txikizkako merkataritza, bulegoak eta zuzkidura pribatuko beste batzuk (adibidez, laguntzako zuzkidurak, osasunekoak, jolasekoak, soziokulturalak edo antzeko beste batzuk).

BOSGARREN TITULUA: MUGIKORTASUNA LURRALDE EREDUAN**I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK****121. artikulua. Azpiegitura-sistemaren helburua eta zehaztapena, lurralde-eredua egituratzeko oinarrizko baldintzatzat.**

1. Lurraldearen Zatiko Planak proposaturiko lurralde-ereduaren barruan, garraio-azpiegituren arloko ekintza batzuk sartzen dira, Eskualde Egitura ondo artikulatzeko, lurralde-eredua zehazten duten irizpideen arabera.
2. Lurralde-ereduaren garapenaren barruan, proposamen batzuk sartzen dira eta, horiek aurrera eramateko, finkatu edo betearazi egin behar dira (kasuan kasukoa) Lurraldearen Zatiko Planean ezarritako jarduketak, gehienbat garraio-azpiegiturretan eragina dutenak, eta horiek, berriz, Arauotako VI. tituluko zerbitzu-azpiekiturekin osaturik daude.
3. Egitamu honen memorian komunikazio- eta garraio-sarea garatzeko ikuspegi estrategikoa planteatzen da, zeinetan sare osoaren gainean proposatutako jarduketak batera biltzen diren.
4. Titulu honen edukia honako eskema honen arabera egituraturik gelditzen da:
 - a) Aukerako mugikortasuna.
 - Motorduna ez den mugikortasuna.
 - Garraio publikorako plataforma soila.
 - b) Garraio-azpiegiturak.
 - Bide-sarea.
 - Trenbide-sarea.

II. KAPITULUA: AUKERAKO MUGIKORTASUNA**1. ATALA. MOTORDUNA EZ DEN MUGIKORTASUNA****122. artikulua. Bizikleten/oinezkoen eredia. Helburuak eta jarduketa-ildoak.**

1. Garrantzi handikoa eta Egitamu honen helburua da, garraioaren arloan, motordun mugikortasunaren ordeztu sareak sustatzea, egoitza- eta jarduera-eremuetarako sarbidea bermatzeko, oinez eta bizikletaz egindako joan-etorrietan, erosotasun- eta segurtasun-baldintza egokietan.
2. Halako sareen garapenaren barruan, LZPk ezarritako garapen berrietarako zerbitzua ez ezik, finkaturiko eremuetako berehalako ezarkuntza ere sartzen da, batez ere mugikortasunik handiena sortzen dutenei eta orain motordun ibilgailuen bidezko irisgarritasuna soilik dutenei dagokienez.
3. Motorduna ez den Mugikortasun Sarea izango da, Lurraldearen Zatiko Planaren ondoretarako, urbanizaturiko eremu desberdinen arteko (egoitzaguneak, industria-jarduerako eremuak edo ekipamenduak) oinezkoen edota bizikleten zirkulaziorako berariaz erabiltzen dena.
4. Sare hori, funtzionaltasunari dagokionez, alde batetik, banaketa-sarearen eta sare kapilarraren tarteekin osatzen da, eta bestetik, lurraldean sartzeko ibilbideekin, eta horietan erabilerok beste lekualdatze-modu batzuekin batera ahalbidetzen dira.

5. Arlo honetan, Egitamuaaren helburuak honako hauek dira:
 - Bizikleta modu koherentean integratzea, garraioko bideen eta sistemen barruan; izan ere, erabiltzaile bakarreko motordun ibilgailuen ordezkotako egokia eta trukeko elementu interesgarria da.
 - Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna sortzea, hiriguneen inguruetan dauden industria-lurzoruetarako.
 - Hiri-eremuetan oinezkoen zonak implementatzea.
6. Adierazitako helburuen arabera, LZPk honako jarduketa-ildo hauek ezartzen ditu:
 - Motorduna ez den mugikortasuneko sare egituratua ezartzea, oinezkoek eta bizikletek erabiltzeko; Eskualde Egitura osoa zeharkatuko du eta gauza izango da egoitza- eta jarduera-eremuei irisgarritasuna eskaintzeko.
 - Egiturazko hiriko eta hiri-inguruko ibilbideak; egoeraren arabera, bide-ardatzen alde batean edo bietan kokatuko dira, eta euren ezarkuntzak saihestu egingo ditu lekualdatze-modu desberdinen arteko interferentzia kaltegarriak.
 - Kalitate onak, halako mugikortasun motari loturiko hiri-altzarrietan eta zoladuretan.
7. Lekualdatze-modu horietarako, gain, aintzat hartu behar da paisaiaren irisgarritasuna sortzeko aukera; horren xedapenak Bigarren Tituluko (Natura eta Landa Inguruaren Antolamendua) VIII. kapituluaren (Paisaiaren irisgarritasuna) jasota daude; hain zuzen ere, zailtasun handiagoko edo txikiagoko ibilbideak sortuko dira, eta saihestu egingo da oraingo lursailak zatikatzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenetan nahasterik ez eragiteko; halaber, sustatu egingo da bideen eta abelbideen sare handia.

123. artikulua. Eskemaren definizioa eta trazatua.

1. Motorduna ez den Mugikortasun Sarearen azpiegituraren eskema, Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoretarako, hiri-garapeneko eremuetan dauden jarduera-, lan- edo aisialdi-eremu nagusien eta egoitzaren arteko lotura-irizpideen formalizazioa da; trazatua, berriz, azpiegiturak eremuan duen kokalekuari lotuta dago. Eskema, irizpideei eta helburuei dagokienez, loteslea bada ere, zehaztaperen grafikoa ez, horrela izanik, garapen-planeamenduak trazatuaren zehaztaperen xehatua egin beharra dauka, beraz, trazatuak orientabidezko izaera du.
2. Lurraldearen Zatiko Planak Motorduna ez den Mugikortasun Sarearen azpiegitura-proposamena ezartzen du, eta azpiegitura horren eskema, berriz, 4. zenbakiko Antolamendu Planoan ("Aukerako Mugikortasuna") jasota dago.
3. Bestalde, 1. atalean adierazitakoaren kalterik gabe, bide-eskema horren garapen xehatua eta kokaleku espaziala, oinarritzko izaera duela aintzat hartuta, garatu egin daiteke, planeamenduko tresnen bitartez; betiere, errespetatu egingo da ezarritako lotura-irizpidea eta, kasu guztietan, justifikatu egingo da Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko Motorduna ez den Mugikortasun Sarearen zentzua.
4. Oinezkoen eta bizikleten sarearen oinarritzko eskema eta eraketa, 4. Antolamendu Planoan ("Aukerako Mugikortasuna") zehaztutakoa, loteslea da, planeamendu sektorialeko eta udal-planeamenduko tresnekiko, eremuen arteko lotura-irizpideari eta sarea osatzen duten bideen jarraitasunari dagokionez.

124. artikulua. Motorduna ez den Mugikortasun Sareko Jarduketak. Proposamenak.

1. Lurraldearen Zatiko Planak proposaturiko sarea, neurri handian, lehendik dauden trazatuetan edo aurreikusitako garapen berrien eraginezko trazatuetan euskarritzen da, eta horiek, berriz, ezarkuntza berriko lotura-tarte batzuekin osatzen dira. Aurreikusitako trazatuak honako egoera hauetarikoren baten eraginezkoak dira:

- Finkaturiko hiri-lurzoruetan ezartzea, motordun trafikorako debekaturiko tartekak ahalbidetzeko edo bidegorriak ezartzeko moduko dimentsioak dituzten kaleak aprobetxatuz.
 - Garapen berrien gaineko ezarkuntzak egitea, finkaturiko ibilbideen jarraitasuna aurreikustearen eraginpeko proiektuetan bidegorriak jasota.
 - Landa-inguruan ezartzea. Lehendik dauden bideak erabili eta, horietan, inguruaren ezaugarrien arabera egoitzapena egingo da.
2. Motorduna ez den Mugikortasun Sarea ezartzeko (Lurraldearen Zatiko Planean ezarritakoa), honako hau aurreikusi beharko da:
- Hiria suspertzeko eta garapen berriko proiektuetan sarea ezartzeko eremu berezien erreserba, baita bide-azpiegitura berrien erreserba ere.
 - Oinezkoen eta bizikleten erabilera motordun zirkulazioarekin bateratzeko neurriak, ezarritako erabilera-araubidea aintzat hartuta eta XIV. eranskineko laukian finkaturiko tipologia-ezaugarrien arabera egokia denean.
 - Bizikletaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea sustatzeko neurriak.
3. Egiturazko hiriko eta hiri-inguruko ibilbideak lortzeko, lekualdatze-modu desberdinen interferentziarik gabe:
- Oinezkoen eta bizikleten sarerako hesi-elementuen sorrera eragin dezaketen jarduketetan, beharrezko jarduketa osagarri guztiak aurreikusiko dira, sarearen jarraipena mantentzeko, kasuan kasuko ibilbidearen funtzionaltasuna nabarmen zigortzen ez duen trazatuaren arabera.
4. Kalitateak egokitzeko, bai zoladuretan eta bai hiriko altzarietan nahiz halako mugikortasunari loturiko zerbitzuetan.
- Ekipamenduetan, zerbitzu-zonetan, plazetan, merkataritzako gunetan nahiz aisialdikoetan, enpresa-parkeetan eta, oro har, trafikoak erakartzeko lekuetan, bizikletetarako soilik diren aparkalekuak instalatzea.
 - Motorduna ez den Mugikortasun Sarea formalizatzea, sarea jasoko duten eremuetara (finkaturiko hiri-eremua, garapen berria edo landa-garapena) ondoen egokitzen diren tipologiak eta materialak erabiliz.
 - Diseinuari dagokionez, komenigarria da bizikleten ibilbideen diseinuari buruzko gidaliburuan adierazitakoari kasu egitea; Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak argitaratu du, "Bizikleta garraiobidetzat" izenburuarekin.
5. Bizikleta garraiobide gisa erabiltzeko:
- Enpresetan aldagelak eta dutxak jartzeko sustapen-neurriak.
6. LZP honetan jaso gabeko oinezkoen eta bizikleten ibilbideen planifikazioa, bai hiri-eremuetan eta bai landa-inguruan, egitura osatzeko irizpidean oinarrituz, udalerrri desberdinen eskumenekoa izango da.

2. ATALA. TALDEKO GARRAIOA. INTERMODALITATEA

125. artikulua. Taldeko garraioaren eredia. Helburuak eta jarduketa-ildoak.

1. LZP honek, errepideko ibilgailu pribatuen trafikoa murrizteko, garraiorako ordezkotzat moduak planteatzen ditu, eta horiek egin beharreko lekualdatze mota desberdinen arabera dira.
2. Oraingo trenbide-sareak, lehengo trazatuarekin, bere gain hartzen du Eskualde Egiturako gune nagusien arteko komunikazioa, baita Eskualde Egituraren eta ondoko eremuen arteko komunikazioa ere.

3. Arlo honetan, Egitamuaaren helburuak honako hauek dira:
 - Taldeko garraioaren irisgarritasun handiagoa eta errazagoa, Eskualde Egiturako eremu desberdinetatik, batez ere hirigune desberdinen artean kokaturiko lurzoruetara, Eskualde Egituraren barrualdetik.
 - Eskualde Egiturako taldeko garraioko zerbitzuak hobetzea, bai barrualderako eta bai ondoko eremuekiko loturarako.
 - Trenbideko garraioa sustatzea, ingurumen-eragin urriagoa duelako, Eusko Jaurlaritzak 2002an onetsitako Garraio Iraunkorraren Egitamu Gidarian ezarritakoaren arabera.
4. Adierazitako helburuen arabera, LZPk honako jarduketa-ildo hauek ezartzen ditu:
 - Garraio publikoko plataforma jarraitua sortzea, Eskualde Egitura osoan, egoitzako eta jarduerako lurzoruen multzorako irisgarritasun egokia sustatzeko.
 - Bidaiarien garraio publikoa, gehienbat trenbidekoa, Durango-Amorebietaren eta Eskualde Egiturako kanpoaldearen artean, lurraldearen gainko eremutik birbanatzea, autobusaren bidezko garraioa erabiliz.
 - Trenbidearen eta taldeko garraioaren arteko koordinazioa bultzatzea, horretarako planteaturiko plataforma soilaren bitartez.
 - Ibilgailu pribatuaren erabilera moteltzea, garraio publikoaren bidaiari berriak horren erabiltzaileen multzotik erakarri behar baitira.

126. artikulua. *Garraio publikoko plataformaren trazatuaren zehaztapena.*

1. Garraio publikoaren plataforma soila eskema eran zehaztuta dago Lurraldearen Zatiko Plan honetan, grafiaturiko trazatua loteslea izan gabe, eta horren zehaztapen xehatua garapeneko planeamenduak egin behar du.
2. Lurraldearen Zatiko Planak 4. zenbakiko Antolamendu Planoan (“Aukerako Mugikortasuna”) ezarri du garraio publikoaren plataforma soila.
3. Garraio publikoaren plataforma soilaren eskema loteslea da dagozkion sektore- eta udal- planeamenduei eta Memoriaren 9.4.3. atalean azaldutako helburu eta irizpideei dagokienez, eta pasagune gatazkatuak zeharkatzeari buruzko uneko ebazpena azterketa sakonagoaren menpe dago, era berean, trazatuaren tarreetara sekzioen egokitzapena egin beharra dago, ahalik eta egokiena.

127. artikulua. *Intermodalitateko gunearen zehaztapena.*

1. “Intermodalitateko Gune” izaera du, Lurraldearen Zatiko Plan honen eraginetarako, trenbide-garraibidearen eta bestelako mugikortasun-bideen arteko loturarako eta koordinaziorako elementuak.
2. “Intermodalitateko gunearen” mugaketa, antolamendua eta esku hartze araubidea, izan ere, planeamendu orokorreko edo bereziko (udalerrikoak edo udalerriz gaindikoak) tresnen bitartez ezarritakoak izango dira.
3. Honako Lurraldearen Zatiko Plan honetan “Intermodalitateko Gune” dira bidaiarien garraio-sarearen nodoak, konektatuta dauden garraibideen arabera, bi motatakoak dira: “tren-bus” aldagunea, Durango eta Amorebieta-Etxanorako proposatutakoa, alde batetik, eta, bestetik, “tren-ibilgailu” aldagunea, Traña-Matiena tarterako proposatutakoa, horiek ezartzeko honako irizpide hauek dira beharrezkoak:
 - Garraio publikoaren plataforma soila eta beste eremuetatik datozen autobus-lineak elkarrekin konektatzea edo, aurretiko puntuan ezarritako tipologiari jarraiki, ibilgailu pribatuen fluxuekin, lekualdatze eroso eta eraginkorra ahalbidetuz.

- Egokia eta tren-geltokira erantsitakoa den aparkalekua jasotzea, konexioko ibilgailu-motara egokitua.
 - Oinezkoen irisgarritasuna erraztea eta altzari mailako elementu nahiz espazio egokiak edukitzea, zirkulatzeko eta itxaroteko.
 - Motorduna ez den Mugikortasun Sarea “intermodalitateko gunearekin” lotzea, eta beharrezko baliabideak ahalbidetzea, txirindulariari truke egokia eskaintzeko.
4. “Intermodalitateko gunean” ez ezik, garraio publikoa geratzeko lekuetan ere ikuskatu egin beharko dira oinezkoen irisgarritasun-baldintzak, eta, behar izanez gero, ezaugarrien arabera, beharrezko elementuak zuzkituko dira bizikletarako intermodalitatea errazteko.

128. artikulua. Taldeko garraioari loturiko jarduketak. Proposamenak.

1. Garraio publikoaren plataforma soila sortzeko:
 - Autobus-errea jarriko da eta hori, gero, tranbia ibiltzeko ere egokia izan daiteke, Boroa eta Elorrio artean.
2. Eskualde Egiturako taldeko garraioko zerbitzuak hobetzeko, bai barrurako eta bai ondoko eremuekiko loturarako:
 - Aldaguneak Durango eta Amorebieta-Etxanon, oraingo geltokien lurperatzea aprobetxatuz, trenbide-eta autobus-garraio publikoak koordinatu eta elkarren osagarri izateko, dela plataforma soilean zirkulatzeko dutenak, dela beste eremuetatik datozenak.
3. Taldeko garraioko modu desberdinen arteko koordinazioa sustatzeko:
 - Trenbidearen zerbitzurik ez duten eremuekiko lotura sustatzea, baita hiriguneetatik horien arteko jarduera-lurzoru-erako irisgarritasuna bultzatzea ere.
 - Funtzioak eta ordutegiak koordinatzea, trenbide-sareko eta autobus-erreiaren bidezko zerbitzu berrien artean.
 - Garraioaren kudeaketa integratua sustatzea eta hori Bilbo Metopolitarraren inguru osoarekin koordinatzea.
4. Ibilgailu pribatua erabiltzeko joera moteltzeko:
 - Disuasio-aparkalekuak instalatzea tren-geltokien inguruetan, eraginpeko zonaldeko ibilgailu pribatuen joan-etorriak onargarri gerta daitezela, era berean, garraioaren eta autopistarako sarbideen kudeaketa egokia egin behar da, eta intermodalitatea sustatze aldera, bus espres-zerbitzuak edo ibilgailu pribatuen okupazio-indize handiagoa bultzatu behar dira.
 - Garraio publikoaren ardura duen administrazioaren eta udalerrien artean erabaki beharreko neurriak.

III. KAPITULUA: GARRAIO AZPIEGITURAK

3. ATALA. BIDE SAREA

129. artikulua. Bide-eredua.

1. Aurreikusitako garapenen eraginezko mugikortasun-hazkundeari aurre egiteko, kapitulu honetan jasotako gaitzko planteamenduak ez ezik, LZPren ereduak aintzat hartzen du azpiegituren espezializazio jakina, bide-sare osoaren ahalmena optimizatzeko eta igarotze-trafikoen interferentzia ahalik eta gehien

murrizteko, barruko erlazioko trafikoei dagokienez; gain, kontuan hartuko da hiri-espazioekiko eta lurzoru finkatuen nahiz okupagarrien barruko ibilbideekiko erlazio egokia.

2. Horrenbestez, planteatzen den ereduaren helburu orokorrak honako hauek izango dira:
 - Hiriguneetatik eta industria-jardueratik guztiz independentea den bide-egitura osatzea; horrek gaitasuna izango du igarotze-trafikoak eta Eskualde Egitura inguruko eremurik dinamikoenekin (Bilbo Metropolitarra, Dega Garaia eta Behea) lotzeko trafikoak euskarritzeko.
 - Industria-jarduerako igarobide nagusietan garaturiko lurzoruak egituratzea.
 - Ahal den neurrian, igarotze-mugimenduen eta Eskualde Egituraren barruko mugimenduen arteko interferentziak ekiditea.
3. Egitamu honen helburua, gain, hiriguneetako zeharbideak ezabatzearen eraginez askaturiko espazioen hiri-bideria bihurtzea da. Horren azken helburua, apurka-apurkako eraldaketa horren arabera hiri-errealitate berriak eskatu ahala, motordun trafikoa mugatzea edo ezabatzea da, zentralitaterik handieneko zonetan.
4. Adierazitako helburuak aintzat hartuta, LZPk honako jarduketara-ildo hauek ezartzen ditu:
 - Funtzionaltasun maila egokia duen jarraipena sustatzea, A-8 autobidearen eta Deba Garaiko lotura berriaren artean.
 - Eskualde Egituraren barruko eremuetatik A-8 autobiderako sarbidea erraztea, Lebarion bertarako sarbide berria eginez.
 - Elkarren ondoko industrialdeen arteko barne-bideriak lotzea.
 - Boroako industria-lurzoru berrien bide-sarearekiko lotura hobetzea, Araba eta estatuarekin duen erlazioarekin, N-240 errepidearen bitartez.
 - Durangoko saihebidetara oso-osorik ixtea hegoaldeko, N-634 bidearen derrigorrezko igarotzea deskargatzeko, lurreta eta Matiena artean.
 - N-634 bidearen zeharbidea, lurreta udalerrian, bide horren bi aldeetan dauden guneen arteko hiri-jarraipena ahalbidetzeko.
 - Oraingo N-636 errepidearen birmoldaketa, Lebario-Apatamonasterio-Kanpazar lotura berria egin ondoren, horrek zeharkaturiko guneen arteko komunikazio-bide batean, eta horrek bide-tipologia egokia izango du bera osatzen duten tarteetarako.
5. Gain, lurraldea osatzen duten elementu baliotsuak zaintzeko, LZPren Memorian irizpide eta jarraibide orokorrak ezartzen dira, gainko politika sektorialak garatzeko eta horiek aurreikusi diren azpiegitura berriekin bateragarriak izateko.

130. artikulua. Bide-sareen sailkapena.

1. Eskualde Egituraren ikuspegitik, bai barruko erlazioei eta bai kanpoko eremuekiko erlazioei dagokienez, eta lurralde-antolamendua egiteko, bide-sarea ikuspegi morfologikotik hierarkizatzeko proposamen orokorra egiten da, lurraldearen artikulazioa eta horren barruko errepideen izaera nahiz funtzionaltasuna bermatzeko. Sailkapen horri gainjarritako tipologia-ezaugarriek modu loteslean baldintzatzen dituzte bide-azpiegituren arloko ekintzen garapena nahiz betearazpena (lurraldearekiko planeamendu sektorialak eta udal-planeamenduek proposaturiko ekintzak).
2. Honako bide-sare hauek bereizten dira:
 - Egitura-sarea. Lurralde Historikoari sartzeko eta igortzeko mugimenduetarako igarobide egokiak ematen dizkieten autobideen, autobien eta errepideen sareak osatzen du, baita igarobide horien eta Eskualde Egiturako erreferentziako guneen arteko lotura sustatzen dutenen sareak ere.
 - Banaketa-sarea. Honako bide hauek osatzen dute:

- Hiri-eremuetan, euren gaitasuna eta zentralitatea aintzat hartuta ardatz nagusiak diren hiri-bideak; horiek egokiak dira lekualdatze-modu desberdinak erabiltzeko, eta, gain, garraio publikoko linea nagusien euskarriak dira.
 - Hiri-eremuetatik kanpo, Eskualde Egiturako udalerrien eta horien nahiz inguru hurbilekoen arteko erlazio-multzoa osatzen duten errepideak; hiri-garapeneko eremu desberdinen arteko lotura ahalbidetzen dute.
 - Sare kapilarra. Lurraldeko irisgarritasunik handiena ematen duten bideek osatzen dute:
 - Hiri-eremuetan, sare kapilarra osatzen duten kaleen berezko luzera (hirigunetik kanpo), izan ere, LZP honetan azaldutako sareetarikoren baten barruko errepide bat da.
 - Hiri-eremuetatik kanpo, sare kapilarra toki-irisgarritasuneko errepideek osatzen dute; errepide horiek Eskualde Egiturako landagune guztietara eta beste sare batzuen zerbitzurik ez duten eremuetara hedatzen da.
3. Hierarkizazio horretan oinarrituz, Lurraldearen Zatiko Planaren ereduak, Durangoko Eskualde Egituraren eremuan, bertako eremu desberdinen ezaugarrietarako egokia den irisgarritasuna lortu nahi du, baita bide-sare desberdinen arteko ezinbesteko bereizketa ere, horien funtzionaltasunaren arabera. Planteaturiko helburuak eta horien justifikazioa Memoriaren agirian zehaztuta daude.
 4. Lurraldearen Zatiko Planak Bide Sareko azpiegitura-proposamena ezartzen du, eta azpiegitura horren eskema 3. Antolamendu Planoan (“Errepide eta Trenbide Sarea”) adierazita dago.
 5. Funtzionaltasuna, tipologia, lurraldearekiko erlazioa eta garraio-jarioekiko nahiz motordunak ez diren lekualdatze-moduekiko erlazioa, Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko sare osoan, XIV. eranskinean adierazita dago.

131. artikulua. Eskemaren definizioa eta oinarrizko eraketa.

1. Bide-sareko azpiegituraren eskema grafikoa, honako Lurraldearen Zatiko Plan honen eraginetarako, bideen ardatz jakin baten edo errepide-sare baten esparru desberdinen arteko loturarako irizpideen eran definitzen da eta trazatua arestian adierazi den eskema horrek espazioan duen kokapen zehatza da. Eskema, irizpideei eta helburuei dagokienez, loteslea bada ere, zehaztaper grafikoa ez, eta trazatua udal-planeamenduak edo dagokion garapen-planeamenduak egin ditzaketen zehaztaper zehatuaren eta aldarazpenen menpe dago, beraz, trazatuak orientabidezko izaera du.
2. Lurraldearen Zatiko Planak bide-sareko azpiegituraren proposamena ezartzen du eta eskema 3. Antolamendu Planoan (“Errepide eta Trenbide Sarea”) adierazita dago.
3. Bestalde, 1. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, bide-eskema horren garapen zehatua eta kokatze espaziala, oinarrizko izaera duela aintzat hartuta, garatu egin daiteke, aipaturiko planeamendu-tresnen bidez, betiere ezarritako lotura-irizpidea errespetatuz eta Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko Bide Sarearen sailkapena bete egiten dela bermatuz. Nolanahi ere, sarea gauzatzeko behar den eremuaren mugaketa egiteko, saihestu egingo da Babes Bereziko Lurzorua, Araudi honetako II. tituluaren zehaztutakoaren arabera, Inguru Fisikoaren antolamenduari dagokionez.
4. Lurraldearen Zatiko Planak, ezarritako sareen sailkapenarekin bat eginez, bideen oinarrizko eraketa ezartzen du, bideak ondoren adierazitakoaren arabera tipifikatuz:
 - Egitura-sarea.
 - Autobideak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauak adierazitako ereduaren arabera (8/1999 FAko 3.3 art.).
 - Autobiak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauak adierazitako ereduaren arabera (8/1999 FAko 3.4 art.).

- Automobilen erabilera soilerako ez den galtzada bakarreko bidea, mugakideetarako irisgarritasun mugatuarekin eta maila bereko bidegurutzeekin (glorietak edo lehentasunekoak), Bizkaiko Errepideen Foru Arauan errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera (8/1999 FAko 3.7 art.).
 - Banaketa-sarea (hiri-eremuak).
 - Zeharbidea / hiri-tartea, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2/1993 FAko 55-59. art.ak).
 - Hiri-bidea, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2/1993 FAko 60 art.).
 - Banaketa-sarea (hiritik kanpoko eremuak).
 - Automobilen erabilera soilerako ez den galtzada bakarreko bidea, mugakideetarako irisgarritasun mugatuarekin eta maila bereko bidegurutzeekin (glorietak edo lehentasunekoak), Bizkaiko Errepideen Foru Arauan errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera (8/1999 FAko 3.7 art.).
 - Sare kapilarra (hiri-eremuak).
 - Zeharbidea / hiri-tartea, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2/1993 FAko 55-59. art.ak).
 - Hiri-bidea, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2/1993 FAko 60 art.).
 - Sare kapilarra (hiritik kanpoko eremuak).
 - Automobilen erabilera soilerako ez den galtzada bakarreko bidea, mugakideetarako irisgarritasun mugatuarekin eta maila bereko bidegurutzeekin (glorietak edo lehentasunekoak), Bizkaiko Errepideen Foru Arauan errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera (8/1999 FAko 3.7 art.).
5. Ezarritako bide-tipifikazioa Araudi honetako XIV. eranskinean jasotako bide guztietara hedatzen da.
6. Bide Sarearen azpiegitura-eskema, 3. Antolamendu Planoan grafiatutakoa ("Errepide eta Trenbide Sarea"), eta tipologia guztietarako ezarritako oinarritzko eraketa lotesleak dira, planeamendu sektorialeko eta udal-planeamendu orokorreko nahiz garapen-planeamenduko tresnei dagokienez.

132. artikulua. Bide-sareko jarduketa motak. Proposamenak.

1. Lurraldearen Zatiko Planak proposamen orokorrak eta horien ondoriozko ekintzak (Bide Sarean) jasotzen ditu, jarduketa-mota jakin batzuetan oinarrituz:
- Bide-azpiegitura berrien ezarkuntza. Halako jarduketetan, azpiegitura berriak egiten dira, (A-8 autopistari lotutako bide-tarteak, konexioak edo aparkalekuak), oraingo sareak funtzionaltasun hobea edukitzeko, bai aurreikusitako trafiko-jarioek behar dituzten prestazioen eraginez, bai hirigune desberdinen arteko elkarreraginik ez egoteko. Egindako proposamenek garapen handiagoko edo txikiagoko sektore-proiektuak biltzen dituzte, eta salbuespen bakarra Boroa aldeko A-8 eta N-240 arteko konexio zuzenaren gaineko proposamena da, iradokizun gisa egina, aztertutakoan ateratzen den proposamena planean sartzeko.
 - Oraingo azpiegiturak hobetzea. Horrelako jarduketek lehendik dauden azpiegituren gainean jokatzeko dakarte eurekin. Egindako proposamenek aurreikuspenak eta garapen handiagoko edo txikiagoko sektore-proiektuak biltzen dituzte.
 - Perimetroko hiri-bide berrien ezarkuntza. Halako jarduketetan helburua hiriguneetan ordezko ibilbideak sortzea da, bertako zona batzuetan motordun trafikoa murrizteko edo ezabatzeke. Jarduketa-mota hauek hartzen dira aintzat:

- Udalen hirigintza-planifikazioaren barruan, eta hortxe zehaztu den bide-eskemaren erremate gisa, sartu egin da, lotesle izanik, Durangoko hego-saihesbidea oso-osorik ixtea, Montorreta eta BI-623 artean.
 - Ikerketa-eremuen zehaztapenaren bidez, aukerako ibilbideek oraingo zeharbide problematikoak ordeztuko dituzte, ildo horretan, hartu dira kontuan BI-623 errepidea, Izurtzan, eta N-634 errepidea, Olakueta-Berrizen, proposamen lotesle gisa, bi kasuetan dagokien azterlana egin behar da behin betiko betearaztea gauzatzeko, LZP honen Memoriaren 9.6. atalean jasotako irizpide mugatzaileekin bat etorrira.
 - Okupazioaren muga-eremuen barnean eremu berri urbanizatuak agertu bide direlako, eta zentralitaterik handieneko bideen trafikoa arintzeko asmoz, kanpoaldeko bideak sortzea proposatzen da Durango eta Zelaieta artean agertu daitezkeen hirigintza-garapenetan, eremu berrien antolamenduetatik ateratakoak.
- Igarotze-trafiko barik utzitako bideen tratamendua. Bide horietan egin beharreko jarduketak eraginpeko tarteen ezaugarrien arabera izango dira:
 - Hiri-inguruko zonetan. Jarduketa ahalik eta gutxien egingo da, sekzioko, mugakideetarako irisgarritasuneko eta halako arazoak konpontzeko. Ez dago jasota bizikletarako edo oinezkorako zerrenda bereziak egitea, eta horien ibilbideek, halako eremuetan, bermaturik izan behar dute jarraitasuna, Aukerako Mugikortasun Sarearen bitartez.
 - Hiri-zonetan. Udal-planeamenduak gerora egingo duen azterka espezifikoari begira, bideari mota horretako eremuen berezko ezaugarriez hornitzea planteatzen da.
 - Bestelako jarduketa-motak. Plan honen memorian, finkaturiko antolamendua edo finkatzearen duten eremuen kasuan eta udal-planeamenduak gerora egingo duen azterka espezifikoari begira, jarduketak planteatzen dira trafiko-dentsitate murriztua duten hiri-tarteetan eta zeharbideetan, bai eta, N-634 errepidearen inguruan agertutako lurzoru industrialetan ere.
2. Proposaturiko jarduketak, adierazitako tipologiaren arabera, XV. eranskinean jasota daude.
 3. Adierazitako helburuen arabera, honako ekintza hauek bidezkoak dira oraingo arazoak konpontzeko eta Durangoko Eskualde Egituraren trukagailu-izaera sustatzako; ekintzak zehaztapen grafikoetan adierazi (errepideen azpiegituretan) eta XVI. eranskinean jasota daude.

IV. KAPITULUA: TRENBIDE SAREA

133. artikulua. Trenbide-eredua. Helburuak.

1. LZPK trenbidea aukeratu du, Eskualde Egiturako gunen nagusien arteko bidaiari-garraio masiborako eta ondoko eremuekiko loturarako.
2. Bidaiariak Eskualde Egituraren barruan garraiatzeko, errei soileko autobus-plataforma bat sortzea dago aurreikusita, eta hori gero tranbiak ere erabili ahal izango du; horrela, irisgarritasun egokia bermatuko da, egoitzako eta jarduerako lurzoru guztietara.
3. Aipatuz gain, Eskualde Egiturako trenbide-sarea, dagokion administrazio sektorialaren esku dauden beste azpiegitura batzuekin geratzen da osorik. Honako hauek dira azpiegitura horiek:
 - a. Abiadura handiko trenerako (AHT) aurreikusitako trazatua, Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituen. Azpiegitura horrek trenbide-ereduan hartzen du parte zeharka, Trenbide Sarearen

- LZPen aurreikuspen loteslearekin bat etorrira, kontzepzioak eta ezarpenak plan honen lurralde-eremua gainditzen baitute.
- b. Euban bidaiarien geltoki intermodala (Euskotren-AHT) instalatzeko aukera, Trenbide Sarearen LZPn egindako iradokizunaren arabera.
 - c. Amorebieta-Etxanon portu lehorra eraikitze aurreikuspena, zabalera metrikoko linearekin erlazionatua, Trenbide Sarearen LZPen aurreikuspen loteslearen arabera.
4. Arlo honetan, Egitamua helburua hau da:
 - Funtzionaltasun eta eraginkortasun handiko trenbide-sarea edukitzeko planteatu diren jarduketak sustatzea, trenbidearen bidezko garraio erabilera finkatu ahal izateko, bai bidaiarientzat eta bai merkantziatarako; horrek, gain, bide-sareko deskarga ahalbidetuko du.
 5. Abiadura handiko trenerako trazatua betearazteari dagokionez, honako betekizun hauek bete beharko dira, nolana ere:
 - a. Udal-planeamenduak aintzat hartu beharko ditu, dagokion planifikazio sektorialean aurreikusitako lurzoruko erreserba-zerrendak, PTP honen dokumentazio grafikoan dagoena.
 - b. Ingurunearen gainean eragindako inpaktuak dagozkion ingurumen-ebaluazioko prozeduren bitartez balioztatuko dira, dagozkion garapen-planeamenduen edo/eta trazatu- eta betearazte-proiektuen gainean egingo direnak.
 - c. Behin azpiegitura horiek egindakoan, trenbide-jabari publikoari lotu ez zaizkion erreserba-zerrendek hirigintza-kalifikazio berria jasotzeko aukera izango dute, kategoriaz aldatuz gero, lurzoru urbanizaezinek Lurraldearen Zatik Plan honek Inguru Fisikorako finkatutako kategorizazioari men egingo diote.

134. artikulua. Definizioa eta oinarrizko irizpideak.

1. Lurraldearen Zatik Plan honek Durangoko Eskualde Egiturako tarte hauetan identifikatzen du Trenbide Azpiegitura:
 - Euskotrenen linea, zabalera metrikoa duena. Lehendik eraikita dago.
 - Abiadura handiko linea, nazioarteko zabalera duena (UIC). Oraindik eraiki gabe dago.
2. Trazatuak 3. Antolamendu Planoan ("Errepide eta Trenbide Sarea") grafiaturik daude.

135. artikulua. Trenbide-sareko jarduketa motak. Proposamenak.

1. Adierazitako helburuen arabera, bidezkotzat hartzen dira zehaztapan grafikoetan adierazitako trenbide-azpiegituretako ekintzak.
2. Zabalera metrikoa duen trenbide-sarean segurtasun- eta zerbitzu-baldintzak hobetzeko, honako jarduketa hauek jasotzen dira:
 - Bilbo-Donostia trenbide-linea bereiztea, Amorebieta-Eibar tartean.
3. Trenbide-azpiegitura hiri-inguruetan hobeto integratzeko, horren irisgarritasuna errazteko eta, horrenbestez, bidaiari gehiago erakartzeko, honako jarduketa hauek daude jasota:
 - Durangoko geltokia lurpean eraikitzea, garraibideen arteko truke askoz ere gehiago ahalbidetzeko eta hiria birgaitu ahal izateko, hobekuntza handiak behar dituzten eremu batzuetan.
 - Bideak berregituratzea eta oraingo geltokiak bateratzea, Amorebietan lurpeko geltokia eginez.
 - Lurpeko ordezko trazatuari buruzko azterlana Berrizen.

SEIGARREN TITULUA: LURRALDE EREDUKO OINARRIZKO AZPIEGITURA SAREAK**I. KAPITULUA: OINARRIZKO AZPIEGITURA SAREAK****136. artikulua. Zerbitzuen azpiegitura-sistemaren helburua eta definizioa, lurralde-eredua egituratzeko oinarrizko baldintzatzat.**

1. Lurraldearen Zatiko Planak proposaturiko ereduaren barruan, zerbitzuko azpiegituren arloko ekintzak sartzan dira, Eskualde Egitura ondo egituratzeko, lurralde-eredua zehazten duten irizpideak aintzat hartuta.
2. Lurralde-ereduaren garapenaren barruan sartzan diren proposamenak garatzeko, finkatu edo betearazi egin behar dira, kasuan kasuko, Lurraldearen Zatiko Planean ezarritako jarduketak; horiek, gehienbat, zerbitzuko azpiegituretan dute eragina, eta Arauotako V. tituluko garraio-azpiegiturekin osaturik daude.
3. Proposamen horiek lurralde-ereduan duten eraginaren arabera sailkatzen dira, eta Esku hartze Estrategikotzat hartzen dira, komunikazio-sare desberdinetan ezarrita egonik, Ekintzetatik (sare bakarrekoak) bereizten direnak.
4. Titulu honen edukia honako eskema honen arabera egituraturik gelditzen da:
 - a) Zerbitzuen oinarrizko azpiegiturak.
 - b) Energia-hornidura eta telekomunikazio-zerbitzuak.
5. Lurraldearen Zatiko Planak honako helburu hauek lortzearen mende jartzen du zerbitzu-azpiegituren planifikazioa, eta helburuok bat datoz Garapen Iraunkorreko EAEko Estrategian planteaturiko Ingurumen Helburuekin:
 - a) Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea.
 - b) Baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
 - c) Natura eta Biodibertsitatea babestea.
 - d) Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
 - e) Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina mugatzea.

II. KAPITULUA: ZERBITZUEN OINARRIZKO AZPIEGITURA SAREAK**137. artikulua. Lurraldearen Zatiko Planak Zerbitzu Azpiegituren arloan egiten dituen proposamenak.**

1. Lurraldearen Zatiko Planak bost esku hartze taldetan edo eremutan xehatzen ditu Zerbitzu Azpiegituren arloko proposamenak:
 - a. Ur-hornidura
 - b. Saneamendua
 - c. Hondakinak eta Kutsaturiko Lurzoruak
 - d. Energia
 - e. Telekomunikazioak

2. Talde bakoitzeko sareen trazatuei eta dokumentazio grafikoan adierazitako elementuen kokalekuari dagokienez, horiek orientagarriak baino ez dira.

138. artikulua. Ur-horniduraren arloko helburuak.

1. Programa nahiz ekintza sektorialekin koordinatzeko (zehaztapan grafikoetan adierazitakoak), ur-horniduraren arloan aukeraturiko lurralde-ereduaren helburuak honako hauek dira:
 - Oraingo azpiegitura-sareak hobeto ezagutzeko inbentarioak eta ikerketak sustatzea, beharrezko inplementazioak errazteko eta, horrela, zerbitzu maila egokiak bermatzeko, biztanleria eta enplegua garatzeko aurreikuspenei eta proposamenei dagokienez.
 - Azpiegitura honen funtzionamendua optimizatzea, iruzurrak ekiditeko, galerak murrizteko eta, batik bat, kontsumo-ohiturak aldatzeko, aurrezpena eta uraren zentzuzko erabilera sustatuz, ondasun urria baita.
 - Eskualde Egituraren ardatza, apurka-apurka, hornidurako sistema metropolitarretan integratzea.
 - Zornotza-Euba, lurreta-Durango eta halako eremuetako sistema orokorrak indartzea, horien inguruetan segurutik egongo diren garapenak aintzat hartuta.
 - Lurraldearen Zatiko Plan honek planteaturiko gainko garapenek behar dituzten inplementazioak aurreikustea.
2. Dokumentazio grafikoan, modu eskematikoan jasota dago hornidura-sarearen trazatua, eta udal-planeamenduek kontuan hartu beharko dute, lurzorua ondo mugatu eta kalifikatu ahal izateko; horrela, hori bat etorriko da azpiegitura garatzeko proiektuekin.

139. artikulua. Saneamenduaren arloko helburuak eta ekintzak.

1. Kasuan kasuko programa eta ekintza sektorialekiko koordinazio egokirako, udaleko hirigintza-planeamenduaren erreferentziako esparrutzat eta zehaztapan grafikoetan adierazita, saneamenduaren arloan aukeraturiko lurralde-ereduaren helburuak honako hauek dira:
 - a) Jarduketak dibertsifikatzea, bai oraingo egoeraren hobekuntza erlatiborantz, bai aurreikusitako garapenen inplementaziorantz.
 - b) Kontrolik gabeko isurketak bilatzea eta zuzentzea, kutsadura barreiatua apurka-apurka erregulatzeko, hurbileko hiri-inguruko eremuetako saneamendu-sistemetan gehiago integratzeko, etab.
 - c) Etorkizuneko efluenteak oraingo sistemetan integratzea, hustubideen eta araztegien gaitasunak eta lasaierak kontrastatuz, bikoizketak edota ordezenak egiteko aukerak aztertuz, arazketa-lerroetako modulazioak ikertuz, etab.
2. Aurreko zenbakian finkaturiko helburuei dagokienez, honako ekintza hauek bidezkoak izango dira:
 - Eskualde Egiturako hondakin-ur guztiak araztea, landaguneetakoak ere barne.

- Banaketako saneamendu-sistemak erabiltzea, bai hustubideetara nahiz araztegiara eramandako ibilguak murrizteko, bai horien funtzionamendua errazteko.
 - Sistema orokorren inbentario egokia egitea, euren gaitasunak eta lasaierak zehatz jakiteko.
 - Ibaizabal ibaiak eta horren ibaiadarrek euren burua arazteko duten jokabidea ikertzea.
 - Zornotza-Euba, lurreta-Durango eta halako eremuetako sistema orokorrak indartzea, horien inguruetan segurutik egingo diren garapenak aintzat hartuta.
 - Lurraldearen Zatiko Plan honek proposaturiko gainko garapenek behar dituzten inplementazioak aurreikustea.
 - Industriako ur-sare bat ezartzea, kontsumitzaile handientzat, arazitako hondakin-uren zati bat zuzenean berrerabilita.
3. Dokumentazio grafikoan modu eskematikoan jasota dago saneamendu-sarearen trazatua, eta udal-planeamenduek hori aintzat hartu beharko dute, lurzorua ondo mugatu eta kalifikatu ahal izateko; horrela, bat etorriko da azpiegitura hori betearazteko proiektuekin.

140. artikulua. *Hondakin solidoak eta kutsaturiko lurzoruak kudeatzearen arloko helburuak eta ekintzak.*

1. Oraingo planifikazio sektorialean oinarrituz, hondakin solidoen tratamenduaren arloko helburuak, lurralde-eredua eta horren eraginezko jarduketak horrekin ondo koordinatzeko, honako hauek dira:
- a) Toki mailako murriztapenaren arloan ahalegin handia egitea, Hiri Hondakin Solidoen per capita sorreraren hazkundera ahalik eta gehien murrizteko.
 - b) Iraunkortasuna lortzeko, metaketen dibertsifikazio eta aurretiazko hautapen ahalik eta handiena ahalbidetzea, baita birziklatzeen errendimendu hobek, industria-jardueretako hondakinen integrazio handiagoa eta abar ere.
 - c) Hondakinen berrerabilera, birziklapena eta energia-aprobetxamendua sustatzea; horretarako, udalerrri guztietan, hondakin mota bakoitzerako edukiontzi desberdinak jarriko dira, eta gain, banaketa eraginkorra eta nahikoa egingo da, udalerrri mailan edo modu mankomunatuan, etxeko hondakinen eta antzekoen bilketa hautakorreko guneak erabiliz (Garbiguneak), hiritarrei hondakinak banantzeko lana errazteko.
 - d) Bilketa hautakorreko espazioak ezartzea, jarduera ekonomikoak dituzten industrialdeetan, hirikoei asimilatze moduko hondakinetarako edukiontziak instalatzeko eremuak sortuta.
 - e) Hondakindegia suspertzea eta lehengoratzea, ixten direnean.
 - f) Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen kontrol handiagoa egitea; izan ere, izaera erdi barreiatua izan arren, eragin larriak sortzen dituzte lurrazaleko eta lurpeko baliabide hidrikoetan.
 - g) Jabearazte-kanpainak sustatzea, biztanleen (gehienbat landaguneetako biztanleen) jokabidea hobetzeko.

2. Halako azpiegiturak adierazten dituzten ikonoak sinbolikoak baino ez dira, eta udal-planeamenduek horien kokaleku zehatza eta behin betikoa adierazi beharko dute, kasuan kasuko betearazpen-proiektuetan ezarritakoaren arabera.
3. Kutsaturiko lurzoruek gure geografiako leku batzuetan sortzen dituzten arazoak kontuan hartuta, udal-planeamenduak aintzat hartu beharko du lurzoruaren kalitatea, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen Inbentarioarekin bat etorrira, Eusko Jaurlaritzaren 165/2008 Dekretuak onetsia, eta problematikari lege honen xedapenak betetzetik aurre egiten: Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko Eusko Legebiltzarraren 1/2005 Legea, industriaguneak suspertzeko ekimenak zehazterakoan, eta aipatu Legean jasotako gainerako inguruabarretan.

III. KAPITULUA: ENERGIA HORNIDURA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK.

141. artikulua. Ordezko energiak.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren helburua, Durangoko Eskualde Egituran, energia aurrezte eta aprobetxatzea da, erabilitako energia-iturriak dibertsifikatuz; horrela, energia-multzo malgua eta zaurgarritasun urriagokoa (hornidura-iturriren baten balizko aldaketei dagokienez) eraibili ahal izango da. Alderdi horretatik, LZPk honako ekintza hauek sustatzen ditu:
 - a) Gas naturalaren erabilera sustatzea, energia-iturritzat.
 - b) Udal-planeamenduek energia sortzeko (hondakinen tratamendua eginez edo energia berriztagarriak erabiliz) zentro txikien instalazioa ahalbidetuko dute, eta lurzoru-erreserba egokiak egingo dituzte horretarako, jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko eremuen barruan eta natura- nahiz paisaia-inguruaren gaineko eraginaren aurretiazko balorazio zehatza egin ondoren, energia sortzeko behar diren elementuek zenbait kasutan halako eragin kaltegarriak sortzen dituztelako. Instalazio horiek jarduera ekonomikorako instalazioei lotuta egongo dira, eta hori jarduera nagusiarekiko bigarren mailako jarduera izango da beti.

142. artikulua. Energia elektrikoa garraiatzearen eta banatzearen arloko helburuak eta ekintzak.

1. Energia elektrikoa garraiatzearen eta banatzearen arloan, lurralde-eredua horren eraginezko sareen eta jarduketan planifikazio sektorialarekin ondo koordinatzeari dagokionez, honako helburu eta ekintza hauek ezartzen dira:
 - a) Aireko linea elektrikoaren eragin kaltegarriak murrizteko egitamera egitea; horrek linea batzuk bateratzeko ahalgarritasuna egingo du, horien trazatuak edota ustiapen-bermeak errepikakorrak direnean; gain, arazo larriak murriztu (atzeramanguneak edo lurperatzeak eginez) eta, halaber, sustatu egingo du azpiegitura biltzen duten igarobideen sorkuntza, gaiak Lurraldearen Zatiko Planaren Memorian duen garapenaren arabera.
 - b) Garraioko eta banaketako linea elektrikoaren oraingo nahiz aurreikusitako baterako sorkuntzen gorabeherak ikuspegi elektroteknikoetatik aztertzen dituen ikerketa bat egitea.

Dokumentazio grafikoan modu eskematikoan adierazita daude tentsio altuko eta ertaineko sare elektrikoaren trazatuak, eta udal-planeamenduek aintzat hartu beharko dituzte, lurzorua ondo mugatzeko eta kalifikatzeko, horrela bat etorriko baitira azpiegitura hori betearazteko proiektuekin.

143. artikulua. Gasa garraiatzearen eta banatzearen arloko helburuak eta ekintzak.

1. Gasa garraiatzearen eta banatzearen arloan, lurralde-eredua horren eraginezko sareen eta jarduketan planifikazio sektorialarekin ondo koordinatzeari dagokionez, eta zehaztapen grafikoetan adierazita, honako helburu eta ekintza hauek ezartzen dira:
 - a) Apurka-apurkako ezarkuntza sustatzea, hiri-eremu eta industria nagusietan, aukera energetikotzat dituen hobariak kontuan hartuta.
 - b) Aurreko letran aipaturiko ezarkuntzarako, hiri-birgaikuntzako edota azpiegitura-berrikuntzako ekintzak aprobetxatzea.
 - c) Zornotza-Euba, lurreta-Durango eta halako eremuetako sistema orokorrak indartzea, horien inguruan segurutik egingo diren garapenak kontuan hartuta; halaber, Lurraldearen Zatiko Planak proposaturiko gainko garapenek behar dituzten inplementazioen aurreikuspena egitea.
2. Dokumentazio grafikoan modu eskematikoan adierazita daude gas-bidearen eta gasa banatzeko sare nagusiaren trazatuak, eta udal-planeamenduek aintzat hartu beharko dituzte, lurzorua ondo mugatzeko eta kalifikatzeko, horrela bat etorriko baitira azpiegitura hori betearazteko proiektuekin.

144. artikulua. Telekomunikazio zerbitzuen arloko helburuak eta ekintzak.

1. Telekomunikazio-zerbitzuen arloan, lurralde-eredua horren eraginezko sareen eta jarduketan planifikazio sektorialarekin ondo koordinatzeari dagokionez, eta zehaztapen grafikoetan adierazitakoaren arabera, honako helburu eta ekintza hauek ezartzen dira:
 - a) Teknologia aurreratuko enbor-azpiegiturak sustatzea, horiek Eskualde Egiturako gunen nagusietara heltzeko.
 - b) Oinarrizko gainko azpiegiturak inplementatzeko edota berritzeko programa osagarriak aprobetxatzea, zerbitzua lortzeko sarearen hiri-ezarkuntzarako.
2. Dokumentazio grafikoan modu eskematikoan adierazita dago sarearen trazatua, eta udal-planeamenduek aintzat hartuko dute, lurzorua ondo mugatzeko eta kalifikatzeko, horrela bat etorriko baitira azpiegitura hori betearazteko helburuekin.

ZAZPIGARREN TITULUA: DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO HIRI KALITATERAKO ETA BIZTANLERIAREN BIZITZA KALITATERAKO LURRALDE EKIMENAK

I. KAPITULUAK: HIRI BERRIKUNTZAKO ESTRATEGIAK

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

145. artikulua. Definizioa

1. Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, "Hiri Berrikuntzako Estrategiak" birmoldatu, suspertu edo birgaitu beharreko eremuetan zehazten eta kokatzen dira, eremu horiek ez narriatzeko edo suspertu ahal izateko.

2. ATALA. SUSPERTZEA, BIRMOLDATZEA ETA BIRGAITZEA

146. artikulua. Suspertzeko eremuak.

1. "Suspertzeko eremuak", Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, Jarduera Ekonomikoen eremu batzuetan esku hartzeko moduak dira; horren helburua oraingo industria-paisaia egokitzea eta horren irudia hobetzea da, Jarduera Ekonomikoa mantenduta, honako hau lortzeko:
 - Okupaturiko lurzoru finkatuak hobetzea.
 - Barruko egitura-ardatz iraunkorrak sortzea, hiri-egitura koordinatua eta autonomoa (barruko komunikazioetan) lortzeko.
 - Zaharkituriko industria-eremuak suspertzea.
 - Industria-kalifikazioko eta okupaziorik gabeko lurzoruak garatzea, horietan tipologia berriak integratzeko; bertako ezaugarri nagusiak honako hauek dira: ingurumen-inguru atsegina edukitzea, eraikitako espazioak erakargarriak izatea eta faktore kualitatiboak kuantitatiboek nagusitzea.
 - Ingurumenaren arloko neurri zuzentzaileak ezartzea, beharrezkoa izanez gero.
2. "Suspertzeko eremuak", Lurraldearen Zatiko Planean ezarri eta 7.1 Antolamendu Planoan ("Hiri-kalitaterako Lurralde Ekimenak. Berrikuntzako Estrategiak") identifikatzen direnak, honako hauek dira:
 - a) Amorebietako Tantorta auzotik hurbil dauden industria-lurzoruak.
 - b) Amorebietako Montorra auzoan dauden industria-lurzoruak.
 - c) Iurretako Mallabiena auzoan dauden industria-lurzoruak.
 - d) Iurretako Arriandi auzoan dauden industria-lurzoruak.
 - e) Iurretako Santa Apoloniatik hurbil dauden industria-lurzoruak.
3. "Suspertzeko eremuen" mugaketa, antolamendua eta esku hartze araubidea, izan ere, udaleko planeamendu orokorreko edo bereziko tresna egokiak eremu bakoitzerako ezarritakoak izango dira, eta hori, betiere, Lurraldearen Zatiko Plan honek proposaturiko-irizpideetara egokituko da.

147. artikulua. Birmoldatzeko eremuak.

1. "Birmoldatzeko eremuak", Lurraldearen Zatik Plan honetan ezarritakoaren ondoretarako, euren oraingo egoera hobetzeko toki mailako hirigintza-jarduketak behar dituzten erabileradun zonak dira; lehentasunezko eremuak dira trafikotik askatuta dauden bideak, hiriguneetan eta susperturiko eremuetan (trenbideak lurperatu ondoren) kokaturik daudenak.
2. LZP honen helburua, izan ere, askaturiko espazioek hiri-bideria edukitzea da, zentralitaterik handieneko zonetan motordun trafikoa mugatzeko edo ezabatzeko, hiri-errealitate berriak (apurka-apurkako eraldaketa horren ondorioz) eskatzen duen neurrian; ahal den neurrian, lehentasuna emango zaie oinezkoiei, bizikletei eta, batik bat, garraio publikoari, eta lurzorua tratamendu berezia egingo da, diseinuari, materialei eta zuhaitzak landatzeari dagokionez.
3. "Birmoldatzeko eremuak", Lurraldearen Zatik Plan honetan ezarri eta 7.1 Antolamendu Planoan ("Hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak") identifikaturikoak, honako hauek dira:

a) Izurtza

- Oraingo BI-623 errepidea, hirigunearen erditik igarotzeko lekuan, igarotze-trafikotik askatu ondoren, suspertu egingo da, oraingo errepidearen bi ertzen arteko jarraipena ahalbidetzeko; horrela, gun txikiko hiri-bizitzaren ardatza izango da.

b) Abadiño

- Apatamonasterioren eta Lebarioren arteko zuzeneko lotura ahalbidetuko duen azpiegitura berriak, gain, N-636 errepiderako trafikoa askatzeko aukera emango du, Durango eta Elorrio artean lerrotzeko diren jarduera-eremu desberdinetan, bai eta, BI-3323 errepidean ere, Matiena eta Zelaieta artean.
- N-636 eta BI-3323 errepideen tratamendua, trafikotik askatu ondoren, egokitu egin beharko da, tarteen arabera, zeharkaturiko ingurura, hiriguneetara eta hiri-ingurukoak edo ia landakoak diren eremuetara; halaber, hirigintza biguna sustatuko da, guneen arteko egitura-ardatz gisa, azken kasu horietan.
- Jarduera ekonomikoko eremuen eta guneen arteko egituratze hori lortzearekin batera, garraio publikoko zerbitzua instalatu behar da, eta, horretarako, hiri-garraioaren erabilera soilerako plataforma bat dago aurreikusita, Durangotik Elorrion, aipatu bideetatik doana.
- LZPk aurreikusten du, ondoz ondoko kanpoaldeko bideak ezartzea Durango eta Zelaieta artean egon daitezkeen hirigintza-garapenetan, ardatz nagusiarekiko duten menpekotasun eksklusiboa saihesteko, alegia, N-636 errepidearena, hirigunea zeharkatzean barruko joan-etorrietan.
- Aipatu ardatz nagusia birmoldatzea eta egokitzea proposatzen da, errepide orokorra trafikotik askatu ondoren, hori lehendik dauden erlazio-espazioetan integratuz, benetako hirigunea sortu ahal izateko.

c) Iurreta

- Oraingo N-634 birmoldatzea eta egokitzea proposatzen da, trafikotik askatu ondoren, hiriko erabilera eta trafiko berrietarako egokia izateko; Iurretaren oraingo bi guneen integrazioa erraztuko da, bide-espazio berriak eta horiei lotutako espazio publiko berriak diseinatuz.

d) Amorebieta

- Hirigunea zeharkatzen duten trenbideak lurperatu ondoren, udalerraren erdian susperturiko hiri-espazio berria hiri-erreferentziako espaziotzat hartu beharko da.
- Behin lurzoruek trenbide-eraginaren zama gainetik kendutakoan, dagokion Egitamu Bereziak euren antolamendu xehatua egin beharko du.

e) Durango

- Hirigunea zeharkatzen duten trenbideak lurperatuta, espazio bikaina suspertuko da hirirako; proiektu hori bertako Arau Subsidiarioetan eta Plan Berezian aurreikusita dago.
- Trenbideak lurperatuta berreskuraturiko espazio osoa suspertzea proposatzen da; horrela, jarraipena emango zaio hiri-ardatz edo bulebar oso garrantzitsu bati, Durangoko hirigunetik (hasitako suspertzea) Matienara.

f) Berriz

- N-634 errepidea eta trenbide-linea pasatzeko soluzio berria, LZP honen Memoriaren 9. kapituluaren aurreratutakoaren ildoan, hiri-dinamika suspertzen lagunduko luke, Olakueta aldea hirigintza-oztopoetatik libre geratuko litzateke, halaber, Euskotrenen geltokiak kokapen egokiagoa izango luke (erdialdetik hurbilago).

4. "Birmoldatzeko eremuen" mugaketa, antolamendua eta esku hartze araubidea, izan ere, udaleko planeamendu orokorreko edo bereziko tresna egokiak eremu bakoitzerako ezarritakoak izango dira, eta hori, betiere, Lurraldearen Zatiko Plan honek proposaturiko irizpideetara egokituko da.

148. artikulua. Birgaitzeko eremuak.

1. "Birgaitzeko eremuak", Lurraldearen Zatiko Plan honek ezarritakoaren ondoreetarako, eraikuntza (ekipamenduak ere barne) eta hirigintza osoa barruan hartzen duten egoitza-eremuak dira; horietan esku hartzeko modua, berriz, eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen kontserbazioan, babesean eta hobekuntzan oinarritzen da, erabilera-aldaketarik sustatu gabe; dena den, espazio eta zuzkidura berriak sortzeko aukera ematen da, baterakoa eta integratzailea den suspertze-ekintzak behar dituen elementu dinamizatzailetzat eta osagarritzat.
2. Bi esku hartze mota daude, Birgaitze Integratua (Eraikitako eta Urbanizaturiko Ondarea Birgaitzeko babesturiko jarduketei buruzko 317/2002 Dekretuak arautu duena) eta Zuzkidura Estrategiarekin zuzenean erlazonaturiko Birgaitzea.
3. Durangoko Eskualde Egituran, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan oinarrituz, Birgaitze Integratuko Eremutzat hartzen dira Durangoko Hirigune Historikoa eta Elorrioko Hirigune Historikoa; Berriz udalerraren ondoko Errotatxo auzoa, berriz, Narriaturiko Eremutzat hartzen da.
4. Eremu horien arauketa Birgaitze Integratuko Plan Berezien bidez ezartzen da.
5. Zuzkidura-estrategiarekin zuzenean erlazonaturiko Birgaitzeari dagokionez, Eskualde Egiturako hiriguneetan honako hau egiten saiatu behar da, gehienbat Eremuko erreferentziako eta azpierreferentziako guneetan (Durango, Amorebieta eta Elorrio):
 - a. Enpresetarako zerbitzuetara bideraturiko erabilera tertziarioak instalatzea.

- b. Hiriguneko merkataritza-erabilerak mantentzea, sustatzea eta birgaitzea, hiriko bizitza euskarritzen eta garatzen duten elementutzat. Ahaleginak egingo dira estrategia zehatz hori, eskualde-buruan eta azpiburuetan gertatu bezala, lurreta, Berriz eta Zaldibarren aplikatzen.
- c. Ostatu- eta ekipamendu-erabilerak sartzea, hiriguneak eta guneko historikoak suspertzeko eta bertako eraikinak arduraz nahiz errespetuz ustiatu ahal izateko.

II. KAPITULUA: EKIPAMENDUAK LURRALDE IKUSPEGIAN

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

149. artikulua. Titulu honetan ezarritakoaren izaera eta irismena.

1. Titulu honetako arauak ekipamendu-sistemaren eta horren barruko azpisistema bakoitzaren (hezkuntza, osasuna, gizarte-ongizatea, kirola, kultura, eta udalez gaindiko ekipamenduak) lurralde-egitura ezartzen dute, Lurralde Antolamendurako Artezpideekin eta Eskualde egiturarako hartutako lurralde-ereduarekin koherentzian.
2. Aurreko zenbakian aipaturiko lurralde-egiturak bermatu egiten du zuzkidura-sistemak lurraldea egituratzeko elementutzat duen eginkizuna; gain, erreferentziako eta koordinazioko lurralde-esparrutzat, jarduketako irizpide eta jarraibide orokorren bitartez ezartzen da, eta horiek programa eta jarduketa sektorialen berri (osasuna, hezkuntza, gizarte-ekintza, kultura, kirolak) eman behar dute administrazioetan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, udalak).

150. artikulua. Ekipamenduen lurralde-egitura.

1. Ekipamenduen lurralde-egitura honako leku nagusietan eta horien eragin-eremuetan oinarritzen da:
 - a. DURANGO eta bertan integratutako hiri-eremua: (Durango – lurreta –Abadiño - Izurtza) eskualde-burutzaren papera hartu eta Eskualde Egitura osoan eragina izango lukeena.
 - b. AMOREBIETA-ETXANO eta ELORRIO, azpiburu gisa hartutakoak, nolabaiteko autonomia funtzionalarekin.

2. ATALA. HEZKUNTZA EKIPAMENDUA

151. artikulua. Irizpideak eta jarraibideak.

1. Arlo honetako ekintza sektorialarekin koordinazio egokia edukitzeko, honako jarduketa-irizpide hauek ezartzen dira hezkuntza-ekipamenduen arloan, eta horiek, biztanleei hezkuntza zerbitzua emateaz gain, lurraldea egituratzen duten elementuak ere badira:
 - a) Ahal den neurrian, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen sarea mantentzea.
 - b) Araubide bereziko irakaskuntzak sustatzea (hizkuntzak, arte plastikoak, helduen hezkuntza, etab.), oraingo ekipamendua berrerabilita eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen bideragarritasuna ahalbidetuz, horiek araubide bereziko beste irakaskuntza batzuekin partekatuta.

- c) Haur Hezkuntzako eskaintza publikoa 0-3 urteko bitartera zabaltzea, lehendik egon eta gutxi erabiltzen diren instalazioak berriro erabilia eta horiei errentagarritasuna aterata.
- d) Bigarren Hezkuntzako oraingo bi zonak finkatzea (Amorebieta-Etxano eta Durango); bakoitzean Bigarren Hezkuntzako eta horren eskaintza publiko osoa eta derrigorrezkoa (baita derrigorrezkoaren ostekoa ere) bermatuz, gutxieneko aukera batzuk eskainita (gutxienez Batxilergoko bi modalitate eta bi lanbide-adarreko nahiz bi hizkuntza-ereduko heziketa-zikloak).
- e) Oraingo kirol- eta kultura-zuzkiduren integrazio funtzionala ikastetxeekin; eskualdeko erreferentziako gunea (Durango-lurreta-Abadiño-Izurtza). Berrizekin batera eta azpierreferentziako guneak (Amorebieta-Etxano eta Elorrio) Eskualde Egitura artikulatzeko gune bihurtzea, zuzkidura-eskaintza integratua eginez (hezkuntza, kirola eta kultura).

3. ATALA. OSASUN EKIPAMENDUA.

152. artikulua. Irizpideak eta jarraibideak.

1. Lurralde antolamenduak (Lurralde Antolamendurako Artezpideak eta Lurraldearen Zatiko Planak) bere gain hartzeko gauza da, osasun-planifikaziotik eratorritako filosofia zein proiektuak, azken horiek Lurraldearen Arloko Planaren mailakoak izango dira eskumenari eta Osasun Sarea osatzen duten zentroyen tamainari dagokienez, betiere euren kokatzea LZPn zehaztutako Lurralde Antolamenduaren irizpideen arabera bada.
2. Arlo honetako ekintza sektorialarekin koordinazio egokia edukitzeko, honako jarduketa-irizpide hauek ezartzen dira osasun-ekipamenduen arloan, eta horiek, biztanleei zerbitzua emateaz gain, lurraldea egituratzen duten elementuak ere badira:
 - a) Durangoko Eskualde Egiturako oraingo osasun-sistemaren lurralde-antolaketa LZPk planteatutako lurralde-eredura egokitzea, ondoren adierazitakoaren arabera:
 - Eskualdeko azpierreferentziako guneetarako bakoitzean (Amorebieta-Etxano eta Elorrio) Osasun Zentro bat egon beharko litzateke.
 - Eskualdeko erreferentziako gunean, Durangon, Osasun Zentroa eta Anbulatorioa egon beharko lirateke.
2. Osasunaren arloko lurralde-planifikazioa errespetatzen duen antolamendu hori betetzeko, Elorrioko Kontsultategia Osasun Zentro bihurtu behar da, eta horrek Abadiñoko Matienako Osasun Zentroarekin partekatuko ditu antolamendu-eginkizunak.
 - a) Oinarrizko laguntzaren antolamendua osasun-zonetatik abiatuko da, laguntzarik ohikoenak biztanleengana hurbiltzeko gauza diren osasun-zerbitzuak emateko formulak sustatzeko; halaber, gainditu egin behar da lurralde-antolamendu hierarkizatuko eredua aplikatzearen ondoriozko funtzionaltasun eza, eredu hori zurruna baita muga fisikoetan, espazio- eta biztanleria-errealitatea ez daudelako eredu horretara egokituta.
 - b) Mantendu egin behar da azken urteotan kostu gero eta handiagoko testuinguru bati erantzuna emateko aurrekontuan egin den ahalegin handia, eta horren eragileak honako hauek izan dira: biztanleria zahartzea, zerbitzu-eskari gero eta handiagoa egotea, osasun-gastua handitzea eta teknologia sorberriak.

4. ATALA. GIZARTE ZERBITZUEN EKIPAMENDUA.

153. artikulua. *Irizpideak eta jarraibideak.*

1. Arlo honetako ekintza sektorialarekin koordinazio egokia edukitzeko, eta aukeraturiko lurralde-ereduaren arabera, honako jarduketa-irizpide hauek ezartzen dira gizarte-zerbitzuetako ekipamenduen arloan, eta horiek, biztanleei zerbitzua emateaz gain, lurraldea egituratzen duten elementuak ere badira:
 - Gizarte-zerbitzuen udalerriz gaindiko oraingo antolamendua finkatzea, Durangoko Merindadeko Mankomunitatearen barruan ez dauden udalerriak (Amorebieta-Etxano eta Berriz) sartzeko ahalegina eginez; gizarte-zerbitzuen udalerriz gaindiko antolamendu horrek ez du ekidingo udalerrri mailako arreta deszentralizatua.
 - Oraingo elkarteen, hirugarren adineko klubuen eta etxeen sarea mantentzea eta indartzea, ezinbestekoa baita horien zerbitzuak udalerrri mailan ematea.
 - Hirugarren adineko egoitza-sarea eratzekeo politika indartzea eta horri jarraipena ematea, oraingo plaza kopurua handituz; horien lehentasunezko kokalekuak eskualdeko erreferentziako gunea eta halako ekipamendurik ez duten eskualdeko azpierreferentziako gunek izango dira (Amorebieta-Etxano).
 - Biztanleria-segmentu jakinetarako zentro berezien sarea handitzea (ezinduak, arreta bereziko zentroak, emakumeak); horien lehentasunezko kokalekuak eskualdeko erreferentziako gunea eta azpierreferentziako gunek izango dira, eta ahalegina egingo da eskaintza osoa eta osagarria egiteko Durangoren, Amorebieta-Etxano eta Elorrio artean.
 - Elkartegintzak gizarte zibilean duen eginkizun garrantzitsua indartzea, horrek indartu egiten baitu sistema; gain, udalerriekiko balio handiko lotura ematen dio sistemari.

5. ATALA. KIROL ETA KULTURA EKIPAMENDUA.

154. artikulua. *Irizpideak eta jarraibideak.*

1. Arlo honetako ekintza sektorialarekin koordinazio egokia edukitzeko, eta aukeraturiko lurralde-ereduaren arabera, honako jarduketa-irizpide hauek ezartzen dira kirol- eta kultura-ekipamenduen arloan, eta horiek, biztanleei zerbitzua emateaz gain, lurraldea egituratzen duten elementuak ere badira, aukeraturiko lurralde-ereduaren barruan:
 - a) Kultura- eta kirol-eskaintza publikoa eratzea, eskualde eta azpieskualde mailakoa, adierazitako erreferentziako eta azpierreferentziako gunek bakoitzean (Durango-Amorebieta-Etxano eta Elorrio); horren eskaintza honako ekipamendu hauek osatuko dute: kultura-etxea, euskaltegia eta polikiroldegia.
 - b) Halako ekipamenduen funtzionamendu mankomunatua sustatzea; izan ere, euren sofistikazio mailaren eta kudeaketa euskarritzen duen antolaketa jakina behar izatearen eraginez, Eskualde Egiturako udalerririk gehienen eskuetatik kanpo gelditzen dira.

- c) Aurretiko lan-ildoen garapena bi beharkizun hauetan laburbiltzen da: euskaltegi publikoa Elorrion (gaur egungoa pribatua da) eta Kultur Etxea Durangon.
- d) Liburutegien oinarrizko udal-sarea osatzea, Garain halako ekipamendu bat sortuta.
- e) Oraingo kirol eta kultur zuzkidurak heziketa-zentroekin funtzionalki integratzea, eta eskualde-burutza eratzea (Durango – Iurreta – Abadiño - Izurtza) Berrizekin batera, bai eta, eskualde-azpiburutzak Eskualde Egiturako egitura-gunetan ere, zuzkidura-eskaintza integratua planteatuz (hezkuntzako, kirolekoa eta kulturalekoa).
- f) Eskualdearen irudia sustatzea, kultura- eta kirol- eskaintza berezia eginez; Durango Eskualde Egiturako benetako eskualde-hiriburu bakarra izango da, bertako kultura-eskaintza berezian oinarrituz.

6. ATALA UDALEZ ETA ESKUALDEZ GAINDIKO EKIPAMENDUAK.

155. artikulua. Irizpideak eta jarraibideak

1. Zuzkidura-eskaintzaren egituratze egokiaren bitartez, beharrezanezi zerbitzua emateaz gainera, LZPk udalez gaindiko izaera duten ekipamendu berezi jakin batzuen proposamena egiten du, batzuk garrantzi handikoak baitira Eskualde Egiturako enpresa arloko garapenean, beste batzuk, ordea, eskaintza turistikoa bideratzeko eta natura-inguruak kontserbatzeko elementu nabarmenak dira.

Lehendik dauden baliabideak hobetu eta euren balioa handitzeko jarduketan barruan, osagarizko eskaintza finkatuz, hurrengo hauek daude:

a) Zientzia Parkea eta Prestakuntza Eremua

Bidezkotzat hartzen da Eskualde Egiturari ekipamendu hau gehitzea, alegia, Prestakuntza Eremua eta Zientzia Parkea, Energia Berriztagarriekin eta Ingurumenaren Kontrol Sarearekin erlazionaturik. Baliteke kokapen desberdinak izatea, dena dela, LZP honek baterako planeamendua proposatzen du Durango alboko Abadiño udalerriko Iurretan, horrenbestez, Prestakuntzatik eta Ikerketatik eratorritako sinergien probetxua aterako litzateke eta Prestakuntzaren eta Enpresaren erlazioa faboratu.

b) Energia Berriztagarrien gunea eta Ingurumenaren Kontrol Sarea

Biok duten ikertzaile-izaerak elkar ulertzea ekarri die, eta Prestakuntza Eremua eta Zientzia Parkearen partaide dira. Bestalde, industria-ingurunean kokaturik egoteak lehia-abantaila ekarri die eskualdeko enpresei, duten kokatze geografiko eta estrategikoari esker, EAeko gainerakoei ezaguera transferitzeko aukera ematen die.

Eskualdearen arlokako dibertsifikazioa, gaur egun automobilgintzarako orientazio handia duena, bultzatu egingo da.

c) Paisaiari lotutako Ibai Sistema

LZPk planteatutako paisaiari lotutako ibai sisteman, ibilguen ingurua berreskuratu nahi da, paisaiarekin bat egiteko, bere babesaz ahaztu gabe, ekologia- eta ingurumen-balio handikoa baita.

Proposamena Ibaizabal, Zumelegi, Zaldua eta Mañaria ibaien urei dagokie, eta meandro formako trazatuagatik nabarmentzen dira, bestalde, ibaiertzen azalerek murrizketa handia jasan dute eta deskonektaturik daude, kasu batzuetan, narriaturik, alabaina, ekologia-, paisaia- eta bioklima-balio handia mantentzen dute.

Ibaiek eta ertzek, hiri-inguruko ingurumen-intereseko landazabalek eta landazabalak elkartzen dituen paisaiari lotutako ibai ibilbide batek osatzen dute Paisaiari lotutako Ibai Sistema.

III. KAPITULUA: KULTURA ONDAREAREN ANTOLAMENDUA

156. artikulua. *Kultura Ondarea (EAEko Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea).*

1. Lurraldearen Zatiko Planak 7/1990 Legeak babesturiko Kultura Ondasun hauek jasotzen ditu; horiek EAEko Kultura Ondarea osatzen dute eta, beraz, udal-planeamenduetan jaso beharrekoak dira:

a) Monumentu kategoria duen Kultura Ondareak:

- Muntzaraz dorrea (Abadiño)
- Abadiñoako udal-hilerria
- Argiñetako hilobiak (Elorrio)
- Kurutziaga gurutzea (Durango)

b) Monumentu Multzo kategoria duen Kultura Ondareak:

- Iurretako Goiuria auzoa
- Durangoko Hirigune Historikoa.
- Elorrioko Hirigune Historikoa

c) Monumentu Multzo kategoria duen Kultura Ondareak:

- Durangoko Hiribilduko Arkeologia Zona.
- Elorrioko Hiribilduko Arkeologia Zona.
- Oizeko estazio megalitikoak.
- Saiputzueta dolmena.

d) Ustekotasun Arkeologikoa duten Arkeologia Zonak.

- 2. Antolamendu Planoan ("Paisaiaren Irigarritasuna eta Kultura Ondarea") adierazita daude.

2. Halaber, halakotzat hartuko dira lege horrek edo berorren ordezkioak etorkizunean babestu ahal dituenak, LZPn jasota ez badaude.

157. artikulua. *Beste elementu interesgarri batzuk.*

1. EAEko Kultura Ondareko Zentroak emandako zerrendaren barruko ondasunak, Kultura Intereseko Ondasuntzat hartuta ez daudenak, udal-planeamenduari lotuta geldituko dira, eta horrek bidezko babes-araubidea aukeratuko du halako ondasunentzat.

ZORTZIGARREN TITULUA: UDAL PLANEAMENDUAREN BATERAGARRITASUNA**I. KAPITULUA: PLANEAMENDUAK BATERATZEKO SISTEMA****1. ATALA. KONTZEPTUA, JUSTIFIKAZIOA ETA EREMUAK****158. artikulua. *Kontzeptua eta justifikazioa.***

1. Planeamenduak Bateratzeko Sistematzat hartzen da, Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, LZPk planeamendu orokorreko xedapenak ondo koordinatzeko ezarri duen prozedura; izan ere, koordinazio hori beharrezkoa da, bai horrelaxe zehaztuta daudelako edo bai tipologia nahiz ezaugarri jakinak dituztelako, udalerriz gaindiko eremuren batean eragina duten lurzoru-eremuetan, baldin eta udalerriz gaindiko eremu horrekiko koordinazioa ezinbestekoa bada.
2. Sistema hori Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 63 eta 92. artikuluen menpe dago.

159. artikulua. *Planeamenduko Bateragarritasun Eremuen Sailkapena.*

1. "Bateragarritasun Eremua", Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, egiturazko hirigintza-antolamenduko xedapenak harmonizatu beharra duen azalera da (sailkapena, kalifikazioa eta sistema orokorrak, gehienbat komunikaziokoak eta eremu askekoak).
2. Lurraldearen Zatiko Planak honako sailkapen hau ezartzen du Planeamenduak Bateratzeko Eremuen arloan, motibatzen dituzten alderdien arabera:
 - a. Bateragarritasun Orokorreko Eremuak: Eskualde Egiturako udalerrri guztietan aplikatzeko modukoa, euren artean zein beste Eskualde Egitura batzuetako alboko udalerriekin, dela Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan, dela gainerako Lurralde Historikokoak izan, Inguru Naturalaren Kategorizazioak eta Gainjarritako Baldintzatzaileek jarraipena izan dezaten udalerrien artean zehaztapen grafikoan, eta koherentzia erregulazioari dagokionez.
 - b. Bateragarritasun espezifikoko eremuak: halako eremuen zona mugakideetan, euren egitura-antolamendua orokorrean koordinatu beharra detektatzen da.
 - c. Trazatuaren Bateragarritasun Eremuak: halako eremuetan, Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen berriek artikulazioko sareak edo azpiegiturak sartzan dituzte, trazatuaren bateragarritasun xehatua behar dutenak.

160. artikulua. Bateragarritasun Orokorreko Eremuak.

1. Bateragarritasun Orokorra da, Durangoko Eskualde Egiturako udalerrien planeamendu orokorreko tresnen beharrezko koordinazioa euren artean zein Durangoko Eskualde Egituratik kanpoko alboko udalerriekin, hurrengo alderdi hauean: Inguru Naturalaren Kategorizazioan eta Kategorizazioari Gainjarritako Baldintzatzaileetan, izan ere, koordinazioa beharrezkoa da Antolamenduaren koherentzia bermatzeko. Bi alderdiak bateragarri egin dira Planean bertan, eta Arautegi honen II. Tituluan ezaugarriak zehaztuak izan dira, bai eta, Eskualde Egiturako dokumentazio grafikoan ere bere osotasunean.
2. LZPen beraren Arauetan eta Antolamendu Planoetan xedatutakoa betez gero, bi alderdion bateragarritasun orokorra ziurtaturik dago Durangoko Eskualde Egiturako udalerrientzat.
3. Eskualde Egituratik kanpoko alboko udalerriekiko bateragarritasuna bermatze aldera, betekizun hori bete behar da udal-planeamenduen aurkezpen- edo berrikuspen-aldian, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, xede horretarako, aurrerapeneko agiria bidaliko da alboko udalerrietara.

161. artikulua. Bateragarritasun Espezifikoko Eremuak

1. Halako eremuen bateragarritasuna beharrezkoa denean baino ez da egin behar, baldin eta adierazitako okupazioaren muga-eremuak garatzea aukeratu bada eta, horren eraginez, udal-planeamendu desberdinetako eremu mugakideen arteko bateragarritasuna ezinbestekoa bada.
2. Lurraldearen Zatiko Planak Planeamenduen Bateragarritasun Espezifikoko balizko Eremu hau aztertzen du:
 - a. **Durango – Abadiño:** Eguzkitzaren inguruan, jarduera ekonomikoaren okupazioaren muga-eremu bat dago aurreikusita eta hori Durangoko industrialde homonimoaren handitzea da. Eremu berriaren mugen barruan, bi udalerrietako lurak sartzen dira. Horren garapenak (udal-erabakia behar duen garapena) irizpide koordinatuak erabili beharko ditu antolamendu formalari, espazio askeen sistemari eta bide-azpiegiturei buruz, eta inguruarekiko irisgarritasuna ahalbidetzen saiatuko da.
3. Eremu hauen antolamenduaren koordinazioa bermatzeko aukeratu den egiturazko antolamenduko tresna Planeamenduaren Bateragarritasun Egitamua da.

162. artikulua. Trazatuaren Bateragarritasun Eremuak.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren proposamenen eraginez, Trazatuaren Bateragarritasun Eremuak ezarri dira, udalerriz gaindiko sarean, ardatzen edo azpiegituren txertaketari dagozkionak; horien eskemak lotesleak dira eta Egitamu honen dokumentazio grafikoan bateratuta daude.
2. Lurraldearen Zatiko Planak Trazatuaren Bateragarritasun Eremu hauek hartzen ditu aintzat:

2011ko irailaren 8a, osteguna

- a. **Amorebieta eta Lemoa (N-240 Boroa-Lemoa):** bi azpiegitura horien eskemak, Boroa-Lemoa lotura eta Lemoako saihezbidea.
 - b. **Durango – Abadiño – Apatamonasterio – Elorrio – Arrasate (N-636 Lebario – Apatamonasterio - Kanpazar):** Azpiegituraren eskema, Lebario-Apatamonasterio-Kanpazar konexioa. Lehen mailako konexioa Debagoienarekin.
 - c. **Aukerako mugikortasuna:** proposaturiko Aukerako Mugikortasun Sarearen azpiegituraren eskema.
 - d. **Paisaiari lotutako sistema:** Proposaturiko Paisaiari lotutako Ibai Sistemaren eskema.
3. Trazatuetan Egitamu honek adierazitako eskemak ezarritako jarraipena segurtatzeko, eraginpeko udalerriek antolamendu-tresnak (elkarrekin bateratuta) batera edo aldi berean tramitatuz egin behar dute antolamendu xehatua, trazatuak (antolamendu xehatuta jasota edukitzearen ondorioz) udal-planeamenduak bateratuta dituzten azpiegituren kasuan izan ezik.

2. ATALA. BATERAGARRITASUN EGITAMUA

163. artikulua. Definizioa.

1. Bateragarritasun Egitamua egitura-antolamenduko egitama da; egitamu hori eraginpeko egitamu orokorren egitura-antolamendua koordinatu behar denean egin behar da, udal-mugarte batzuetako zona mugakideetan hiri garapenaren beharrezan eta ezaugarrien eraginez.
2. Gutxienez, egitamu orokorrerako aurreikusitakoen antzeko agirietan formalizatuko da, iraunkortasun-ikerketaren kasuan izan ezik, baina agiri horiek bateratu beharreko eremuari buruzkoak baino ez dira izango, eta agiritan, horren antolamendu koordinaturako behar diren xedapenak jasoko dira, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 63.3. artikuluekin bat etorrira.

164. artikulua. Formulazioa, Tramitazioa eta Onespena.

1. Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 92. artikulua araberak, Egitamua eraginpean udalerririk baina gehiago dagoenean, formulazioa eta tramitazioa eraginpeko toki-erakunde bakarrek egin ditzake, euren artean lorturiko akordioaren arabera.
2. Akordiorik egon ezean, foru-organismoak bi hilabeteko epea emango du akordioa lortzeko. Epe hori igaro eta akordiorik ez badago, foru-administrazioak bateragarritasun-plana formulatu, tramitatu eta onetsiko du, eta horren tramitazioan eraginpeko toki-erakundeentz unaldia egingo da.
3. Hasierako onespeneren jendaurreko azalpenaren iragarpena eta horren behin betiko onespeneren argitalpena, bestalde, eraginpeko lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan eta gehien saldutako egunkarian edo egunkarrietan egingo dira.

4. Egitura-antolamenduko xedapenetan eragina duen neurrian, EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordearen iritzipean jarriko da.

BEDERATZIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA JARDUKETEN IRAUNKORTASUNA**I. KAPITULUA: HIRIGINTZA JARDUKETEN INGURUMEN IRAUNKORTASUNA****165. artikulua. Hirigintza-jarduketan ingurumen-iraunkortasunaren oinarrizko irizpideak.**

1. Hirigintza-jarduketan ingurumen-iraunkortasuneko baldintzak, izan ere, honako helburu hauek dituzten funtsezko antolamenduko xedapenak dira:
 - a) Jarduketa berriak tokiko mikroklimaren eta ekosistemen baldintzetara modu harmonikoan egokitzea.
 - b) Baliabide urri nagusien erabileran (ura eta energia) eraginkortasun-parametroak aintzat hartzea. Eraginkortasuna, izan ere, mekanismo aktiboak (aukerako energien erabilera, kudeaketa-teknologiak) eta pasiboak (ingurumen-kontrolako elementu arkitektonikoak sartzea,...) erabiltzea da, baliabidearen alferreko kontsumoa murrizteko.
 - c) Eraikuntza-sistemen ingurumen-ezaugarriak kontuan hartzea, hirigintza-obretan, horien bizi-ziklo osoan, obra-fasetik eraispenera, sortutako hondakinen kudeaketa ere barne.
 - d) Prebentzio-neurriak ezartzea, ingurumen-eraginik ez sortzeko, honako zergati hauen eraginez: erradioaktibitatea, nahaste elektrikoak, zarata, bibrazioak, itsualdiak, gas kaltegarriak, keak edo partikulak, isurketa likidoak nahiz solidoak, edo energiaren eta baliabide naturalen kontsumo ezegokia.
2. Finkatua ez den hiri-lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat sailkaturiko lurzoruaren gaineko hazkunde berriek oinarrizko irizpide hauek bete beharko dituzte:
 - a) Tokiko klima eta hirigintzako esku hartzearen aurretiazko baldintzak aintzat hartzea, eremuaren ahalmen bioklimatikoak aprobetxatu ahal izateko.
 - b) Eraikin guztietan eguzki-energia erakartzeko ekipoak instalatzeko aukera, baldintza ekonomikorik eta paisaia integratzeko baldintzarik onenetan.
 - c) Eguzkiaren eragin egokia, eraikinak gehienbat hegoalderantz orientatzeko, etxebizitzetan eguzki-argia egoteko eta erabilera publikoko zona berdeak edukitzeko, gerizpe iraunkorreko eremuen proportzio txikiarekin.
 - d) Haizeen intentsitate handiaren eraginpean dauden lekuetan haizearen indarra moteldu egingo dela bermatzea, eraikitako bolumenak antolatuz, topografia modelatuz eta zuhaitzak landatuz; gain, etxebizitza-eraikinetan elkarren aurkako fatxaden arteko aireztapen gurutzatua ahalbidetzea.
 - e) Kutsadura akustikoari loturiko faktoreak aintzat hartzea, berezko aireztapena lortzeko, inguruko zarata mailak murriztuz.

- f) Prebentzioa egitea, arrisku naturalen eta teknologikoen (industria-jardueren eraginezko arriskuak) antolamenduan oinarrituz, luraren drainatze-sareari jarraipena emanez.
3. Tokiko bide-sareko hierarkizazio egokia egin behar da, kategoria bakoitzean ibilgailuen trafikorako galtzadak dimentsionatuz, hauxe lortzeko:
- a) Oraingo bideetarako lotura egokia duten zirkulazio-sareak sortzea, zaku-hondoak saihestuz.
 - b) Hiriko zirkulazioa kontrolatzeko sistemen ezarkuntza ahalbidetzea, beharrezkoa izanez gero.
 - c) Trafikoaren abiadurak mugatzea eta oinezkoen nahiz txirrindularien zirkulazioari (plataforma banandua) lehentasuna ematea, baita garraio publikoaren integrazioari ere, beharrezkoa bada.
 - d) Bide-sekzioak dimentsio egokia edukitzea, zuhaitzak landatzeko, kontuan hartuta horrek oztopatu egin ditzakeela eraikinetan instalaturiko eguzki-erakarpenerako sistemak.
4. Zona berde publikoen diseinua honako irizpide hauetan oinarrituko da:
- a) Lehendik dauden landaredia naturaleko elementuak euren lekuan mantentzeko ahalegina egingo da, eta elementu horiek espazio askeen diseinuan integratuko dira.
 - b) Kontrolatu egin beharko da zona berde publikoetarako proposatu den landarediaren eta landaredia autoktonoaren arteko bateragarritasuna.
 - c) Landaketa berriko landare-espezieak aukeratzean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Eremuko berezko landarediarekiko bateragarritasuna, biologiari dagokionez, espezie kaltegarrien bidezko inbasiorik ez egoteko.
 - Zuhaitzen tamaina egokia, ingurumen-kontrolatzailatzat jardun ahal izateko; hosto erorkorra eta adaburu zabala duten zuhaitzak erabiliko dira, udan etxebizitzaren beheko solairuak babesteko eta neguan eguzkia sartu ahal izateko.
 - Ur-kontsumo urria eta lehortasunarekiko iraupena, ureztaketarako ur-kontsumoa murriztu ahal izateko. Ureztaketarako ur grisak erabiliz gero, horien ezaugarri biokimikoekiko bateragarritasuna bermatu beharko da.
 - d) Zona askeetan ahalegina egingo da azaleraren zatirik handienean lorategiak egoteko, lurraldearen berezko porositatea mantendu ahal izateko.
 - e) Elkarren ondoko jarduketaren arteko espazio askeen jarraipena sustatu behar da, batez ere kostaldeko zonetan, eta materialen eta espezieen tratamendu harmonikoa egiten saiatu behar da.

- f) Komenigarria da lurraren berezko drainatzea errazteko xedapenak ematea; esate baterako, parterreak eta zoladura porotsuko eremuak, ur-pilaketa errazteko, ur hori xurgatu arte. Landaketa zoladuradun zonan egonez gero, komeni da ura txorkoen artean banatzeko kanalak egitea, edo bestela, txorko jarraituko soluzioak aukeratuko dira.
5. Zona berde pribatuen diseinua oinarritzko irizpide hauetan oinarrituko da:
- a) Diseinuak aintzat hartu beharko ditu inguru naturalarekiko integrazioa eta hirigintza-ezaugarria, zona berde publikoetan.
 - b) Zona berde pribatuetako ureztatze-sistemak, ahal dela, lotutako eraikinetatik iritsitako ur gris birziklatuekin hornituko dira.
 - c) Lorategietako eta eremu aske pribatuetako landaredia kontserbatzeko ahalegina egingo da.
6. Zerbitzu-sareak teknika egokiekin egingo dira, garraioan eta banaketan galerak murrizteko. Erregistro berean zenbait zerbitzu sartzeko ahalegina egingo da, espaloietan esku hartzeko guneak (mantenamendurakoak) murrizteko.
7. Saneamendu-sistemak banatzaileak izango dira, ahal izanez gero. Mikroklimaren ikerketak eta uraren kalitatearen azterketak plubiometria egokia adierazten duenean, eremuetan euri-ura biltzeko, pilatzeko eta banatzeko sistema integratuak ezarriko dira, ureztaketarako, kaleak garbitzeko eta beste erabilera batzuetarako.
8. Ureztaketa-sareek ura aurrezteko sistemak erabiliko dituzte; adibidez, mikroureztaketa, tantaketa eta ihinztagailuak.
9. Hondakinak biltzeko sistemek bilketa hautakorra ahalbidetuko dute; gain, bide publikoan kokaleku egokiak izango dituzte, egoitza-eraikinen gaineko eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko.
10. Argiztapen publikoko sistemek luminariak edukiko dituzte, argi-kutsadura mugatzeko eta energia aurrezteko sistemekin.
11. Ingurumen-kontrolako instalazioetarako (adibidez, eguzki-energia erakartzeko sistemak, bero-puzgailua, etab.) elementu arkitektonikoen sarrera sustatuko da, horien azalera lursailaren irabazizko eraikigarritasunaren zenbaketatik kanpo utzita.
12. Ahal izanez gero, birziklaturiko materialak erabiliko dira. Ez da material toxikorik edo airearen kalitatean eragin txarra duen materialik erabiliko, zerbitzu arrunteko baldintzetan edo istripuak nahiz inguruko klimaren muturreko fenomenoak daudenean.

1. Ez da baimenduko Babes Bereziko lurzoruen behin behineko okupazioa, ez eta, Lurzoru Babestukoena ere, hirigintza-obretan.
2. Hirigintza-proiektuetan, obra-zaborrak baimendutako hondakindegietara eramateko aurreikuspenak egingo dira. Landare-lurrik egonez gero, pilatu egingo da, gero hirigintzaren espazio askeetan erabiltzeko.
3. Hirigintza-proiektuek euren gain hartuko dute hirigintzaren kanpoko espazioen ingurumena suspertzea, espazio horiek hirigintza-jarduketaren eragina jasaten dutenean.

II. ERANSKINA

ADIERAZPENA, UZTAILAREN 22KO 183/2003 DEKRETUAREN 15. ARTIKULUAN
XEDATUTAKOAREN ONDORIOETARAKO EMANA. DEKRETU HORREK INGURUMENAREN
GAINEKO ERAGINARI BURUZKO EBALUAZIO BATERATUAREN PROZEDURA ARAUTZEN
DU

Lurraldeko plan partzialek lurraldeko antolamendurako gidalerroak garatzen dituzte, hauek mugatzen dituzten udalaz gaineko alde edo eremuetan, hauetako bakoitzerako Gidalerroek ezartzen dituzten antolamendurako irizpide espezifikoak zehaztuta. Antolamendurako plan eta programen ingurumeneko ebaluazioaren garrantzia Europako Batasunak aitortu du Europako Parlamentuaren Plan eta Programa jakin batzuek ingurumenean dituzten Eraginaren Ebaluazioari buruzko 2001/42EE Zuzentaraua garatzean.

Plan eta programa hauek ebaluazioa funtsezkoa da, izan ere, hauetan irizpide estrategikoak ezartzen dira proiektu eta azpiegitura handien kokapena erabakitzeke, eta hauen ingurumeneko inpaktuak garrantzi handiagoa izango duela suposatzen da udalaz gaineko edo udal aldean barruan. Hori guztia Ingurumeneko Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura araupetzen duen uztailaren 22ko 183/2003 dekretuan xedatutakoan oinarriturik.

Durangoko Arlo Funtzionalako Lurraldeko Plan Partzialak prozedura hau jarraitu du. Bertan kontsulta publikoen prozesua ere jaso da, lurraldeko hainbat osagairen kudeaketan nahasita dauden administrazioeko eragile batzuen, baita tokiko erakundeen eta Arlo Funtzionalako hiritarren ere, ekarpenak eginda.

Lurraldeko Plan Partziala instrumentu teknikoa izateaz gainera, gizarteak bere etorkizuneko aukera handiei dagokienez duen borondatearen adierazpena da, lurralde antolaketako aukera jakin baten aukeraketan islatuta.

Durangoko Arlo Funtzionalaren etorkizunerako Lurraldeko Eredua irudimen handiko gogoetaren erroka kolektiboa da, abagune politiko edo ziklo ekonomiko txikiena baino horizonte handiagoa duena (16 urte).

Durangoko Arlo Funtzionalerako Lurraldeko Proiektu Iraunkor baten definizioaren xedea da oinarritzko elementuak finkatzea lurraldearen antolaketa eta egiturarako, udal eta arlokako plangintzaren gainerako instrumentu guztien erreferente bihurtu dadin.

LPPa honakoa da:

1.– Lurraldea egituratzeko instrumentua, sektore inbertitzaile pribatu eta publikoak bateratzeko ekintza gisa, garapen iraunkorreko aukerak sustatzera, baita arloaren ingurumen, gizarte eta ekonomiako desorekak zuzentzera ere, orientaturik dagoena.

2.– Arlo Funtzionalari Proiektu bat emateko jarraibidea. Proiektu honek ilusionatu behar du, finantza aldetik bideragarria izan behar da eta planteatutako helburuen artean zuzentarau koordinatuak finkatu behar ditu.

3.– Gizarte, ekonomia eta administrazioeko indar guztien adostasun, konpromiso eta parte-hartzeko prozedura guztion helburua erdiesteko.

LPPak bere proposamenak lurraldearen diagnostiko objektibo batean oinarritzen ditu, irizpide analitiko eta teknikoekin bat etorritik. Bere xedea da oinarri objektiboen gainean erabakiak hartzea

eta lurraldeko politikak ezartzea oinarritzea Arlo Funtzional eta udalerrien eskaletan, horretarako informazio, diagnostiko eta jardun-estrategien formulazioen arteko elkarrekiko elikadura finkatuta.

Hasierako faseetan, Dokumentu Metodologikoak interes estrategiko hainbat alderdi identifikatu zituen eta hauen hainean Lan Dokumentuak osatzeari ekin zioten. Hauen ondorioek, behar bezala landu eta hausnartutakoan, Lurraldeko Plan Partzialaren Aurrerapena egitea ahalbidetu zuten.

Dokumentu honen xedea eta irismena izan zen elementu propositibo nahikoak sortzea ondorengo lanak garatzeko eta, hauen bitartez, hainbat politikak integratu eta instrumentatzeko prozesuak egituratzea.

LPParen Lurraldeko Ereduaren Aurrerapenak esparru generikoa eskaini zuen, lurraldeko antolamendurako helburu globalak eta egindako Diagnostikotik etorritako ondorioak kontuan harturik, lurraldeko estrategia eta helburu espezifikoagoen definizioa oinarritzea ahalbidetu zuena.

LPParen Aurrerapenaren Dokumentua «Arlo Funtzionalaren eremuaren barruan harremanak sustatu eta finkatzeko lehenengo proposamentzat» hartzen da: hiriko asentuen elkarren artean, eta hauek lurraldearekin eta natur baliabideekin dituztenak».

Nahasitako erakundeen eta Herri Administrazioen aldetik, Durangoko LPParen Aurrerapenerako Alegazioen hamahiru txosten jaso ziren dagokion entzunaldiko izapidean. Hauek Planaren hainbat alderdiri buruzkoak ziren, hala nola etxebizitza, natur ingurune edo azpiegiturei buruzkoak, eta hauetako gehienak oso baliotsu eta garrantzi handikotzat jo dira.

Ingurumen Sailburuordetzak, 2006ko abuztuaren 7ko Ebazpenaren bidez, Durangoko LPParen ingurumeneko inpaktuaren aurretiko txostena (IIAT) egin zuen. Ondoren, 2007. urteko urrian, Sailburuordetzak txosten berria egin zuen aipatutako espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen Antolamendurako Batzordetik igarotzeko, 2007. urteko urriaren 29ko bere osoko bilkuran. Txosten horretan LPParen dokumentua aurretiko txostenaren errekerimenduetara doituta zegoen aztertzen zen eta egiaztatzen zen dokumentazio nahikoa zegoen LPParen lehenengo bertsioarekiko aldaketen ingurumeneko inpaktua ebaluatzeko eta ingurumenari dagokionez kritikoak ziren proposamenak edo inpaktu larriak zituztenak zeuden antzemateko.

Horren ostean, Durangoko Arlo Funtzionalako LPPa hasiera betean onartu da 2008. urteko apirilaren 8ko Foru Erabakiaren bidez eta jendaurrean azaldu da eta herri administrazioei entzunaldia egin zaie. Izapide horretan alegazioen ehun eta hirurogei idazki aurkeztu ziren, beren jatorriagatik hurrengo modu honetara elkar daitezkeenak: hamasei, alderdi politikoak; bost, sozietate publikoak; bi, sindikatuenak; sei, elkartenak; eta, ehun eta hogeita hamaika, partikularrenak, zeintzuek, idazki errepikatuen serieak osatzen dituztela. Halaber, Lurraldeko Herri Administrazioek egindako alegazioen hogeita bat idazki aurkeztu dira: hiru, Autonomiako Administrazioen aldetik; bat, Ingurumeneko Foru Sailaren aldetik; eta, hamazazpi, Alde Funtzionalako Udalen aldetik. Aipatutako idazki horien balorazioak alderdi batzuk baietsi eta akats batzuk zuzentzera eraman zuen LPParen dokumentuan. Horretarako behin-behineko onartzeko dokumentua idatzi zen.

LPParen behin-behineko onespena 2010eko apirilaren 13ko Foru Erabakiaren bidez egiten da. Bertan LPParen dokumentuan zein bere IIBEko bere azterlanean sartutako aldaketak laburbiltzen dira eta ingurumeneko inpaktuaren behin betiko txostena eta lurraldea Antolatzeko Batzordearen txostena egiteko eskatzen da.

Durangoko Arlo Funtzionalak, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarreko uval mugarteak barne hartzen ditu. Lurraldeko hainbat pieza bereiziren gainean egituratzen da: Oiz mendiko gailur eta isurialdeak, Ibaizabal-Zalduko hondo alubiala, Duralgaldeko hegoaldeko mendi eta haranak, Ibaizabalaren ezkeraldeko landazabal

eta haranak, Zumelegi ibaiko arroa, Ibaizabalaren eskuinaldeko landazabal eta haranak. Hauek korridore geografiko eta funtzionala osatzen dute, nortasun handikoa, bai ikuspegi fisikotik bai lurzorua erabilera eta jardueren antolaketaren ikuspegitik.

Honek multzorako lurraldeko eredu integratzaile eta bateratua planteatzea erraztu eta bide ematen du. Halere, barneko osagaiei dagokienez anitza baina ekologiko eta funtzionalki osagarria den espazio baten aukera eta bokazio guztiak jasotzen ditu.

Durangoko Arlo Funtzionalak hainbat arazo eta aukera ditu, eta hauen artean honakoak nabarmendu behar dira:

- Korridore geografiko eta funtzionala da, nortasun handia duena.
- Bere ezaugarria da irisgarritasun handia duela Bilbo Metropolitarrarekin eta Gipuzkoako haranekin eta azpiegiturak elkartzen direla.
- Aniztasun ekologiko baliotsua du, baita lurzoru-erabileren eta paisaia ere.
- Gatazka haranaren fondoan industria, hiri, landa eta azpiegiturako erabileren artean okupatzeagatik.
- Baserria hiriko guneez zuzenean okupatu gabeko espazio zabal horren antolaketa eta kontserbaziorako elementu gisa.
- Azpiegitura eta harrobien ingurumeneko inpaktua.
- Industriako espezializazio-patroia eta egitura ekonomikoaren dinamismoa.

Durangoko Arlo Funtzionalaren garapen-ereduak hurrengo oinarri hauek ditu:

- Durangoko Arlo Funtzionala indartzea Euskal Herria eta Bizkaiko lurralde-egituraren funtsezko pieza gisa bere kokapen estrategiko eta irisgarritasun handiagatik.
- Haranaren fondoaren urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazaritzako jarduera zaintzaren arteko bizikidetzaren zaintzea.
- Lurraldearen erabilera zuzenean oinarritutako hiri-garapena sustatzea:
 - Lurzoru baliabidearen kontsumoa mugatzea; AFaren «harrerako ahalmena».
 - Kokaleku tradizionalen kultur nortasun eta ondarea zaintzea hazteko beharrak gogobetez.
 - Haranaren fondoan jarraitu urbanizatua osatzea saihestea ibaibidearen ingurunekeko natur guneen paisaia lehengoratzuz.
 - Hazkunde barreiatua eta landako guneez berriak osaketa mugatzea.
 - Etxebizitza publikora zuzendutako lurzorua sustatzea.
 - AFaren ekipamendu eta zerbitzuen birbanaketa orekatua.
- Ibaizabaleko Korridorearen lehiakortasun eta birkualifikazioko elementuak indartzea:
 - Dagoen industriako clusterra indartzea bere birkualifikazioaren bitartez, berroneratzeko eremuak mugatuta.
 - Enpresei kalitateko zerbitzuak garatzea, hiriko guneez kokatzeko lehentasuna emanez.

- Erabilera mistoak sustatzea: egoitza-lana oreka.
- Arlo Funtzionala egituratzen duten elementuak:
 - Natur Ingurunea Antolatzeko Kategoriak.
 - Egoitzako erabilera eta jarduera ekonomikoen okupaziorako muga-eremuak.
 - Lurraldeko ereduaren eta mugikortasun iraunkorreko ereduaren arteko erlazioa.
 - Ibaiko Korridorea.
- Natur eta landako ingurunea zaintzea. Natur baliabideen eta baserriaren bideragarritasunaren babes aktiboa ziurtatzeko beharra, paisaiaren kalitatearen bermatzaile direlako.

Oinarri hauen gainean, Durangoko AFaren LPParen proposamenak azaltzen dira, jarraian laburbildurik daudenak:

1.– Natur ingurunearen antolaketa.

Antolaketaren kategoriak ezartzen dira bere balio naturalaren arabera, eta hauetan hirigintzako hazkundeak debekaturik gelditzen dira. Kategoria hauen erregulazioa kasu batzuetan LAGetan ezarritako erabilerak jasotzen dituen matrize baten bidez egiten da, eta beste batzuetan, berriz, indarreko berezko araudien edo legeria espezifikoaren arabera.

2.– Egoitzako kokalekuak.

LPPak etxebizitzak zenbatu egiten ditu eredu eta, bestetik, eskaintza bereizita. Lehenengorako familiako batez besteko tamainari eta biztanleriaren zenbatekoari buruzko baloreen metodologia ezartzen du eta bigarrenaren kasuan gehieneko eta gutxieneko harrotzeko koefizienteak aplikatzen ditu.

Lurzoru berriaren kontsumoa gelditzea proposatzen du eta horretarako xedatzen du beharrak lehenetasunez estali behar direla eraikitako ondarea optimizatuz (etxebizitza hutsa mobilizatzea, lehendik dauden eraikinak zaharberritzea edo hutsik dagoen lurzoria berriro dentsifikatzea). Gainera, «okupazioaren muga-eremuak» deitutakoak definitzen dira. Hauek, beharrezkoa izanez gero, erantsi ahal izango dira eta lurreta, Durango, Izurtza, Abadiño, Atxondo, Berriz, Zaldibar, Elorrio, Garai eta Mañanan kokaturik daude.

Eremu hauek mugatzeko egokitasuneko hurrengo irizpide hauek erabili dira: % 15 baino gutxiagoko maldak dituzten lurzoruak, birgertatze-aldien edozeinetan urpean gelditu ezin daitezkeen lurzoruak eta Babes Berezi eta Lurrazaleko Uren Babeseko kategorietan jaso gabeko lurzoria.

Eremu hauetatik kanpo ez da hirigintzako hazkunderik baimentzen eta, edozelan ere, bere okupazioaren beharra justifikatu beharko da.

3.– Jarduera ekonomikoaren kokalekuak.

LPPak, batetik, hiri-guneetatik egoitzako erabilerekin bateraezinak direlako banatutako eremuekin lotutako industriako erabileraren lurzoruak eta, bestetik, egoitzako erabilerarekin bateragarriak diren eta hiriko inguruneetan kokaturik dauden izaera tertziario, komertzial,...eta abarren erabilera mistoen garapenak bereizten ditu.

Kuantifikazioa egiten da azkeneko urteotan arlo funtzionalean jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruen kontsumoa kontuan harturik eta, era berean, batetik eredu eta bestetik eskaintza bereizten ditu.

Etxebizitzen kasuan bezalaxe, lurzoru berriaren kontsumoa proposatzen du eta horretarako xedatzen du beharrak, ahal bada, jarduera ekonomikoen eremuak birsortuz eta indarreko plangintzan hutsik dagoen lurzoria erabiliz estali beharko lirатеkeela. Beharrezkoa izanez gero baino ez dira lurzoru berriak garatuko zehaztutako «okupazioaren muga-eremuen» barruan. Hauek Amorebieta-Etxano, Iurreta, Durango, Abadiño, Berriz eta Elorrion kokaturik daude.

Eremu hauek mugatzeko egoitzako lurzoruen kasurako egokitasuneko irizpide berberak erabili dira.

4.– Mugikortasuna.

LPPak proposatutako mugikortasun-ereduak, batetik, ordeko mugikortasuneko sistema jasotzen du eta, bestetik, garraioko azpiegiturak (bide eta trenbideko sarea) jasotzen ditu.

Ordeko mugikortasunaren sistemak honakoa jasotzen du:

- Motorrik gabeko mugikortasuna. Honetarako oinezkoen eta bizikleten sare jarraitua proposatzen da arlo funtzionalean zehar eta hiriko eta hiri-inguruko ibilbide antolatzaileak.
- Garraio publikorako plataforma eskusiboa.

Bide-sarerako, berriz, batetik, sektoreko proiektuak edo aurreikuspenak jasotzen dira, garapeneko maila handiago edo txikiagoa dutenak, azpiegitura berriei buruz (Boroako inguruneke A-8 eta N-240-ren arteko zuzeneko konexioaren proposamena izan ezik) eta, bestetik, dauden azpiegiturak hobetu, perimetroko hiriko bide berriak ezarri eta hiriko eta hiri-inguruko eremuetako bestelako jarduketak burutzeko proposamenak jasotzen dira.

Trenbideko sareari dagokionez, LPPak Abiadura Handiko Trena, eta honetarako intermodal bat iradokitzen da Buban, eta Trenbide Sareko ALPa jasotzen dira.

5.– Azpiegiturak.

LPPak jarraitu beharreko hainbat estrategia planteatzen ditu ur hornidurari, saneamenduari, hondakinen kudeaketari eta kutsatutako lurzoruei, energiari, gasari eta telekomunikazioei dagozkenez. Horiek guztiak Garapen Iraunkorreko Euskal Estrategiaren helburuak lortzera bideratuta daude. Proposamenak orientagarriak dira.

6.– Ekipamenduak.

Jarduteko irizpideak proposatzen dira hezkuntza, osasun, gizarte eta kiroleko ekipamenduaren arloan.

2010. urteko ekainaren 25eko Ebazpenaren bidez plazaratutako Ingurumen Inpaktuko Behin Betiko Txostenak ingurumeneko hainbat alderdi iradoki ditu, Durangoko Arlo Funtzionaleko Lurraldeko Planaren behin betiko dokumentuan justifikatu edo jaso behar zirenak eta hurrengo gidalerroekin bat etorri barne hartu direnak:

- A) Eremuaren ingurumeneko balorazioa, diagnostikoa eta azterketa.

Kartografian mehatxatutako faunaren espezien banaketa-aldeak identifikatzeko beharra aipatu zen. Xede horretarako, IIBEk hainbat espezieetarako DAFn agertzen diren Faunako Interes Guneei

dagokien kartografia tematikoa barne hartzen du jadanik. Aipatutako gainerako espeziei eta bere banaketa-eremuei dagokienez, erabilgarri dagoen kartografiako informazioa Flora eta Faunako Mehatxatutako Espezien Katalogari igortzen da.

B) Ordezko aukeren ingurumeneko azterketa eta justifikazioa.

IIBEn LPPa prestatzeko prozesuan kontuan hartu diren kokapenei buruzko analisi konparatiboa txertatu da; bertan zehaztu da zergatik baztertu diren kokapen batzuk behin-behineko onesteko dokumenturako.

a) IIBEn 7. kapituluak LPP idazteko fase guztien justifikazioa biltzen du, bere hasieratik bertatik, eta honek hainbat proposamen aldatzea eragin duen beharrezko azalpena jasotzen du.

b) LPPren idazkuntzaren hurrenez hurreneko faseei buruzko aurkezpen grafiko eta kronologikoaren bidez 4. kapituluaren alternatiba guztiak xehekatu dira, hau da, konparatzeko eta azkenean hautatu den irtenbidearen balorazioa egiteko aukera ematen dutenak.

Proposamenak aldatzeko konparazio-azterketa hau udalerrri bakoitzerako egin da. Bertan LPPak formulatzeko fase guztietan aztertutako aukeren ingurumeneko azterketa eta inpaktu handiak eta larriak sortzen dituzten egoitzako erabilera eta jarduera ekonomikoen muga-eremuen proposamenen jarduketan gaineko berrikuspena jasota daude".

C) Inpaktuen identifikazio eta balorazioa.

a) Egoitzako hazkundeko eremuen inpaktuko matrizeak eta jarduera ekonomikoetarako eremuenak ere berrikusi dira, ibai-ibilgu, erriberako eraketa eta faunako habitaten gaineko inpaktuak barne hartuta.

b) IIBEk LPPak planteatzen dituen bideko sarearen proposamenen eta aurreikusitako jarduteko ildo edo irizpide orokorren inpaktuen azterketa jasotzen du, hala ere, ohartarazten du jarduketa zehatzaren edozein garapen egiteko bere planifikazioa eta dagokion Ingurumeneko Inpaktuari Azterlan espezifiko beharrezko izango direla.

c) Horregatik ez dira LPPren proposamen guztietarako antzeman diren eraginaren kokapen espazialaren planoak aurkezten, errepide eta trenbide azpiegituren eraginaren mapa sintetikoaren bidez, uste delako ezinezkoa dela horiek zehaztea.

d) IIBEn azterlanak LPParen araudiaren artikuluei egindako erreferentziak berrikusi eta zuzendu dira, Antolamenduko Arauen dokumentuarekin bat etorritik.

e) IIBEn azterlanak ez du jaso 'LPParen garapen berrien proposamenek eragin ditzaketen nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen deklaratuaren azterlan' Azterlan hau dokumentua idazteko oso hasierako faseetan egin zen eta azken balorazioan zaharkituta dago. Hala ere, LPParen lehenengo formulazioen ingurumeneko inpaktuari ebaluazioan kontuan hartu zen, ondorengo proposamenen aldaketan eraginda. Ondorioz, proposatutako muga-eremuak garatuz gero, lehendik dauden nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan duten afekzioa banan-banan aztertu beharko dute momentu egokian, IIBEn jasota dagoen bezalaxe.

f) Amorebieta-Etxano-Bermeo trenbidearen gaineko jarduketaren aipamena IIBetik ezabatzen da izan ere, LPParen dokumentuak jarduketa hau aipatzen baitu Amorebieta-Etxanoko hiri-gunearen geltokiaren lurperatzeari eta birkokapenari dagokienez bakarrik.

D) Babestu, zuzendu eta konpentsatzeko neurriak.

a) Atal hau ibai-ibilgu, erriberako eraketa eta faunako habitaten gaineko inpaktuak aztertetik etorritako neurrien bidez osatu da, IBERen 4. kapituluaren (proposatutako okupazioaren muga-eremuek potentzialki eragindako baloreak azpimarratuz) eta 5. kapituluaren (kasu bakoitzean zuzentzeko neurri egokiak zehaztuta) atal egokietan hurrengo neurri hauek erantsiz.

b) Eskatu den «Proposatu diren neurri ekonomikoen zenbatespena eta horien betearazpenerako denbora plangintza» atalari dagokionez adierazi da ezinezkoa dela neurri horien kostua zenbatestea. Proposatutako jarduketa zehatzak garatzeko momentuan da, hain zuzen ere, kostu ekonomikoak ebaluatzea eta inplementatu beharreko konpentsatzeko neurrien denborazko planifikazioa egitea egoki eta egingarritzat jotzen denean. Horrela bada, hau IBE egokian zehaztuta jaso behar da.

E) Lurraldeko alderdiak.

a) 3/98 Legearen B eranskinean edo Legegintzako 1302/1996 EDaren I. eranskinean jasota dauden jarduera edo proiektu horiek ingurumeneko inpaktuaren banakako ebaluazioa gainditzeko baldintza LPParen izpirituaren azpian dago, nahitaez betebeharreko eta indarrean dagoen legeria baita.

b) LPPak baldintza gainjarri gisa «Faunaren Intereseko Guneak» Ur-ipurtatsaren afekzioko eremua jasotzen du nahasitako udalerriek kontuan har ditzaten. Horrela bada, hauetan egin beharreko edozein interbentzio Bizkaian espezie honetarako onartutako Kudeaketa Planari lotuta dago. (118/2006 Foru Dekretua).

c) Garatzeko alde berriak proposatzeko aukerari dagokionez, inplizituki ulertzen da ezen, 183/2003 Dekretua betez, horiek erabakitzeko kokapeneko arrazoizko aukera guztiak kontuan hartu beharko direla.

F) Bestelako kontsiderazioak.

LPParen izapidetze konplexuak eragin du Aurrerapen, Hasierako Onespen eta Behin-behineko Onespenaren faseei dagozkien dokumentuen artean aldaketa nabarmen batzuk egotea. Aurrerapenari buruzkoak ez dira aztertzen, LPParen idazketaren oso hasierako faseei dagokielako.

Hasierako Onespen eta Behin-behineko Onespenaren dokumentuen arteko aldaketa nabarmenei dagokienez, hauen artean 4. Kapituluaren zehazten diren muga-eremuen kokapen eta mugapenen aldaketei buruzkoak daude.

Hala ere, argitu behar dugu aipatutako aldaketa horiek ez dakartela inolaz ere Planak proposatutako Lurraldeko Eredua zehazten duten irizpideen aldaketarik, izan ere, oro har, kuantifikazioak mantentzen dira egoitzarako zein jarduera ekonomikoetarako, zehaztaperen txiki batzuk bakarrik eginda. Gainera, aldaketen ondorioz ateratzen diren eremu berri guztiak ingurumeneko inpaktuaren ebaluazioko prozesutik behar bezala igaro dira.

Garapen berrien eremuen proposamen batzuk aldatzea justifikatzen duten arrazoiak hurrengo alderdi hauetan oinarritzen dira:

- Urpegarritasunaren birgertatzeko aldien mugapen eguneratu berria. Eremuen kokapenaren doikuntza egin zen urpegarritasunak eraginda egotea saihesteko xedez eta hirigintzako irizpide berriak kontuan hartu ziren. Hauek eremu hauen hiri-bilbe finkatuarekiko jarraitutasun eta irisgarritasuna bermatuko dituzte, eremu berrien gainean egiten den hautapena zorrotza izateko moduan.

- Eusko Jaurlaritzaren Bioaniztasun eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren txostenak. Hauek proposamen batzuek babestutako espezieen gainean edo fauna eta floraren intereseko espezieen gainean eduki zezaketen ingurumeneko inpaktuaz ohartarazten zuten.

- Hainbat udalek proposamenekin lotuta Jendaurreko Azalpenaren fasean zehar igorritako alegazioak. Gainera, udalerrri batzuek bere plangintzen aldaketak onartu dituzte, LPParen proposamen zehatzetan eragiten zutenak.

Planaren garapenean zehar ebaluatutako ordezeko aukerak ildo estrategiko garbia eduki dute, hazkundeko bere potentzialtasunaren arabera arloaren garapen ekonomiko proportzionala egotearen alde lan egitera bideratuta dagoena, betiere haraneko natur balioen egonkortasuna inolaz ere arriskuan jarri gabe. Hauek indar handiz sustatzen ari dira, berriz, Planak proposatutako jarduketan bitartez.

Aukera guztiak, bere ingurumeneko ebaluazioa eta justifikazioa IIBEren 4. eta 7. kapituluetan zehar aurkezten dira. 4. kapituluaren ebaluatutako aukera guztiak eta ingurumenaren gainean duten eragina aurkezten dira, ingurumeneko inpaktua estimatuta. Eta 7. kapituluaren, berriz, proposamenak aldatzera eta azkeneko aukera hautatzera eraman duten arrazoen justifikazioa aurkezten da.

Ingurumeneko Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanaren garapenean zehar egindako lurraldearen diagnostikoak eta ingurumeneko inpaktuen ebaluazioak ingurune fisiko, natur ingurune eta giza ingurunearen funtsezko osagaiak identifikatu zituen, baita Planak proposatutako jarduerak garatzearen ondorioz sor litezkeen inpaktuak ere. Inpaktu hauek, positibo zein negatiboek, prebentzio eta zuzenketako hainbat neurri beharko dituzte, baita jarraipena ere Ingurumeneko Zaintza Planaren garapenaren bidez. Hau Ingurumeneko Adierazleen sistema batean oinarriturik dago eta Ingurumeneko Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren aipatutako Azterlanean erantsita dago.

Azterketa honek eragin zuen proposamen batzuk baztertzea, izan ere, bere inpaktua kritikoa eta Planaren helburu orokorrekin bateraezina zela jotzen zelako, garapen iraunkorraren ikuspegi batetik, betiere Durangoko Arlo Funtzionalaren testuinguruan.

Hasieratik IIBEtik ateratako prebentzio eta zuzenketako neurriak bere aurreko bertsioetan kontuan hartu ondoren egindako LPParen birformulazioen ostean, LPPak bere behin betiko bertsioan proposatutako okupazioaren muga-eremuek, baita bide-azpiegituretarako proposatutako trazatuak ere, ez dute inpaktu handi edo kritikorik sortzen.

- Proposatutako jarduera ekonomikoaren muga-eremuei dagokienez:

Ingurumeneko Inpaktuaren Baterako Ebaluaziotik ez da jotzen LPParen azkeneko proposamenak ingurumeneko inpaktuak, ez handiak ezta kritikoa ere, eragiten dituenik. Sortutako inpaktu gehienak txikitat hartzen dira jarduera ekonomikoko okupazioaren muga-eremu berrietarako okupazioko aurreikuspen estimatuetara eta ingurumenaren natur baldintzetara egokitu ondoren.

- Egoitzako erabileraren muga-eremuei dagokienez:

Identifikatutako ingurumeneko inpaktu negatiboek ez dakarte inpaktu kritikorik, eta hauek guztiak maila ertain edo txikikoak direla jotzen dira. Hortaz, aurreikusita dauden prebentzio, zuzenketa eta konpentsazioko neurriek eragindako inpaktuak zuzendu edo arindu ahal izango dituzte.

Ingurumenerako afekzioa oraindik antzematen den udal mugarteetan zuzentzeko hainbat neurri zehatz planteatzen dira. Neurri hauek egindako ebaluazioaren ostean Durangoko Arlo Funtzionaleko Lurraldeko Plan Partzialak proposatutako ekintzetako bat edo hainbaten inpaktua

jaso dezaketela hotzen diren ingurumeneko faktoreei dagozkie. Horregatik, IIBEn hauek babesteko neurriak ezartzen dira:

- Urpean gelditu daitezkeen eremuak.
- Ibaiertzak.
- Ibai-ibilguak.
- Eremu higagarriak.
- Bertako basoak.
- Korridoreak eta faunaren mugikortasuna.
- Kultur-Natur Ondarea.
- Landazabal atlantikoak eta balio handiko nekazaritzako lurzorua.
- Paisaia.

Planaren ingurumeneko ondorioen jarraipenerako neurri gisa, Ingurumeneko Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Dokumentuak Planaren Ondorioak Gainbegiratzeko Programa barne hartzen du. Berau ingurumeneko adierazleen sistema batean oinarriturik dago, organo substantiboak burutu beharko du eta Planaren berrikuspenerako epekin koordinaturik egingo da.

Teknikoa ez den laburpenaren eskaera dela eta, Azken Adierazpen honetan azaldutako zerbaiten berri zehatzagoa behar izanez gero IIBEren Laburpen Dokumentura jotzea gomendatzen da.